

Mario, haritik tiraka

Unai Ormaetxea

© Unai Ormaetxea

ISBN:

Lege Gordailua:

Irudiak: Iñigo Ibarretxe

Diseinua, maketazioa eta ekoizpena: Joseba Berriotxoia - www.eroteta.com



Inprimaketa:


Printed in UE.

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-aren jabeen baimenik gabe.

Mario, haritik tiraka


Unai Ormaetxea





Aurkibidea

| | |
|--------------------------------|-----|
| Hitzaurea | 7 |
| Sarrera | 11 |
| Mario parkean I | 13 |
| Mario kalean | 27 |
| Mario plazan | 49 |
| Mario Haizearen Orrazian | 75 |
| Mario koadrilan | 95 |
| Mario topagunean | 139 |
| Mario parkean II | 169 |



Hitzaurrea

“Ez uste ene izkribuetan, zeuk zerbait utzi gabe ezer aurkituko duzunik. Nik buztinezko ontzi bat ematen dizut. Zeu zara bete behar duzuna”.

* Izan ere nire oihal honek, babes honek, erreal edo irrealiki neure gaitasun faltari gaina hartzeko eraikitako simulazio honek, egileen egi bihurtzeko gezur txiki honek, haizearen aberriko zero honek, antzarak berau gurutzatu eta beraien eran bertan solas daitezen nahi du. Protagonistaren baieztapenak irakurleari eginiko galderak dira, gotorleku ireki baten erantzunen zain daudenak.

Musika eta hitzetatik, begirada distantziatu baina hurbileko batetik, lagunarengandik lagunarentzako jarritako bidea. Herrikoia; Mariotik Mariora.

Ideiek, hitzen eta noten patinean doazen arren, ‘gure’ lengoia izatera heldu nahiko lukete. Esanahiak, zeuk ugaldu edo okertzeko, kristal errefraktorio batean irudien gisan. Isiltasun aktiboaren antza izan!

Zer diozu idazle? Idazlan bat berez dogmatikoa den arren, ekintza antidogmatikoa izatera hurbildu da?

* Garrantzitsuagoa iruditzen zait izan nahi denera iritsi nahi izatea. Gainontzeko Marioen giltzei Marioren sarraila erakustea.

Entsaioa da zurea. Entsaioa humanistikoa baita. Lotzen gaituzten korapiloen eztabaida. Ezagumen, intuizio, deskribapen, metafora, galdera... biltzen dituen solas ausardi enpatikoa. Monologo dialogikoa.

Gizakiaren koherentzia osoa ezinezkoa den abiapuntutik, egoera normalena ignorantzia den partetik, ahal den koherenteena izateko saiakera eskertzekoa da. Arrautza osorik erakustea. Goringoa eta zuringoa. Bere dualtasuna eta aldakortasuna. Azaleko hitz aspertuetatik erbesteratu eta oskola haustea. Geurera iristeko egin beharrekoa gitea.


Arrautzatik ei gatoz eta egia esan badaukagu bai arrautzatik. Baloratzekoa zuringoaren gaintik goringoa jartzea da ordea. Arrazoiko eta bihotzekoa, inuzente eta ergelari gailentzea. Kezkatuen eta kakaztuen gaintik egiak lehenestea. Gezurrak salatzea behintzat; bizi teatroa. Asetzen gaituenaz gozatu eta betetzea, koipe, apar, ke, izen, omen eta abarrez arduratu gabe.


Benetakoari men egitea. Numerotara ekarri ezin litezkeenei, salgai ez dagoenari, neurgailu hori erabiltzen duten mundu ume, harro, zuringotuen igurtzien gaintik.

Bizitzaz arduratzea gizarteak eraman nahi gaituen parametroetatik aldenduz. Goringoa zuringotik desberdinduz. Bizitza existentziatik. Bata bikotzat har ez dezagun, laginak bistaratu eta geure buruari ezetz esaten ikasteraino.

Hau guztia, banaka garbiak bagina, errazagoa litzateke kolektiboki egitea, hargatik txalotzen dut ur zeurekoienetatik edaten ematera datorren iturri garbi hau. Iturria besteen urekin ureztatzeraz datorren ur hau, pertsona bere bakarrean eskasagoa baita. Txepelagoa. Izuagoa. Goringoa zuringoa dela sinestera emanagoa. Bizitzea existitzea dela pentsatzera ekarriagoa.

Arrautzak zerbait txarra badu, bizitza bera bezala, errazen zuringoa bistaratzen dela da. Frijitua, egosia zein gordinik. Lehen kontaktu ekidin ezina. Halabeharrezkoa beharbada. Mundu honetan zuringoak beti dauka goringoa mendean hartua ordea. Inguratua. Setiatua. Badator Mario baina, ezinbestean zuringoa laztanduz, goringoa goraiatzera. Gutxien gutxienean tortilla bat egitera. Osagarriak nahita nahastuz zenbaki bako izatera. Tontotu, harrotu, tonto harrotu edo zuringotzera baina, goringotik abiatzera. Gure geureenetik, zentzu zentzudunera.





Sarrera

"Haurrak irribarrez; jakintza eta ene amodioa, jolasa dira.
Gazteak kantuan; jolasa eta ene jakintza, amodioa dira.
Zaharrak isilean; amodioa eta ene jolasa, jakintza dira."

'Ezin naiz aldatu' zioen kamaleoiak. Agian hori da ondoen definitzen nauen esaldia. Baliteke horiek izatea, ezinbestean, guztiok ondoen definitzen gaituzten hitzak.



Izan ere, guztiok aldatzen gara denboraren harira; bizitzaren neurrira. Ukaezina da; saihestezina. Mendia bezala, momenturo ezberdin eta bizitza osoan bera. Kontua ordea, ez da aldatzea, nola aldatzen garen baino. Zugandik urruntzea ez da zure bila joatea. Edo izan liteke baina, ez ditut halakoak gustuko, normalean, deskubritzea baita hori; berriz maskaratzeko desmaskaratzea. Ez berez aldatzea.

Inork ezin du 11 urte izaten jarraitu, bizitzak zoritxarrez –ardurak irabazi ahala galtzen doan berezko irrika magikoaren kaltera– ezinezko egiten baitu berau, baina, inork ezin dizu, ez luke behar behintzat, lehenasun kontua den bizi bakarrean, norberaren koherentzia minimo batekin jolastea galarazi. Saiatzen dira eta... baita lortu ere askorekin; gehienekin.

Damutzeaz ere damutu liteke, baita barkamenei barkamenak eskatzea alferrikakoa ez dela sinetsi, baina errespetatzen ditut bereziki, atzerantz, iraganerantz, aurrerantz begiratzen duten naturaltasun berdinarekin so egiten dutenak. Eta ez ditut maite espreski, izana izenagatik trukutzen dutenak. Kontzientzia baldintzengatik. Larrua prakengatik. Horiek ez dira kamaleoiak. kamaleoiak etsaizentzat ikusezin bihurtzeraino kolorez alda daitezkeenak dira, baina ez ezkutatzeko prezeski, naturarekin bat egiteko baizik. Komunikatzeko. Gerturatu ta harremantzeko. Ni kamaleoia naiz; Mario kamaleoia.

Mario parkean I

"... voy a ver si me encuentro dentro de mi piel, y comprendo porque nada puedo entender. Me resulta tan raro todo lo normal, me tropiezo me caigo y vuelvo a tropezar. Creí que me he había equivocado, luego pensé: que estoy bien aquí, en mi nube azul, todo es como yo lo he inventado, y la realidad, trozos de cristal, que al final hay que pasar descalzo..."

Zorionsua naiz. Haizeak txistua jotzen du nire barruan. Ni nirekin nagoelako izango da? Gertaerak gerta daitezen prest? Duda muda edo aleteo bat baino ez den hegaldirako egonezin baikorreen? Edo zoriontasuna, izatea baino hobeagoa imajinatzea delako agian? Batak zein besteak ez dute zertan baina, bakarrik egoteak pentsatzera bultzatzen zaitu, balantza alde batera zein bestera balaztatzera behartuz.

Baliteke zorionsua ez izatea. Baliteke ez, ia seguru, baina gaur zorionsua naizela esan dezaket ahopeka. Beharbada, gaur nire burua estimatzen dudala baino ez da, hori baita zoriontasunera hurbiltzeko bide bakarra; zeure buruaz konformatzea. Zu zurekin ez zaudenean ere, posible bada. Beno, hobe esanda eta beti ere baldintzek laguntzen badute, nahi ta nahi ez baldintzatuta bizi

baikara, bakoitzak berarekin bizitzeko artea bilatzea da gakoa. Zu zeu aurkitzea.

Zoriontasuna ez dela existitzen esango nuke. Ezinezkoa dela bizi garen moduan bizita. Besteekin konpartitu beharreko injustiziez betetako mundu honetan, ezinezkoa dela, zoriontasun mugagabea bizitzea. Gehienez ere zorionsua izateko nahia da daukagun guztia. Ezinbestean, zorionsua izatea hori izango da, diot nik.

Baina gaur sentsazio hori daukat eta, gaurkoa gaurko. Oraingoa oraingo.

Parquetik, neure barrutik paseatzean, askatasuna usaindu dezaket eta, ez da gutxi. Libertatea, bai horixe, ez da ez gutxi, bada zerbait, erreala izateko gehiegizko hitza apika. Kavatisek zioen kale berdinak ibiltzen ditugula beste hiri batera joanda ere, eta, arrazoi faltarik ez du, parkean bertan ere fenomeno hori ematen baita. Niri behintzat hori iruditzen zait. Hori gertatzen zait. Parkean lasai lasai egon arren, naizena, barruan daramadala alegia. Eta gauden lekuan gaudela ere barruan badaramagu garena, zergatik argia bertan piztu? Zergatik ez beste edonon?

Lekuak, momentuak baino errazago aukeratzen direlako izango da. Batez ere garuna, berez, leku bat dela badakusazu. Argi dago behintzat, garenak harrapa gaitzan, momentuak, lore usaia edozein txokori ez dariola, are gehiago pentsatzea ere mehatxatuta dagoen garaian. Amestea arriskutsua eta arnastea balentria bat den basetxe honetan.

Nik, horregatik hain justu, ez dut zoriontasuna xede gisa hartzen, ez dut parkea helburu bezala erabiltzen, bidaiatzeko bitartekotzat baino. Balia-bide bat. Euskarri bat. Hemen eta nirekin, zoriontasunerako eremu bat aurkitzen dut; bidaiatzeko leku bat. Askatasun tarte bat. Askatasun tarte bat ontasan, jakinduria eta adiskidetasuna ereiteko. Egia, poesia eta ulerkuntza bilatzeko. Izaera eta hitza gobernatzeko. Talentua eta grazia preziatzeko. Ohorea defenditzeko. Gezurrei aurre egiteko. Osasuntsu eta umoretsu egoteko.

Nire eskuetan bakarrik balego, neureganako neure kritikek ere geratu ez nazaten, ni parkean nagoen bezalaxe, parkea nigan egongo litzateke nagoen lekuan nagoela ere; kalean, plazan,... batzuetan egoten da. Eskizofrenia partikular honek lagundu nazala noan tokira noala ere; etsaiengana, lagunengana,... batzuetan laguntzen dit. Beharko! Herriko edozein txokotan dagoela Mario, ze Kristo.

Neure munduan nago, nik diseinatutako koadroan, nire pentsamenduek eraikitakoan, nahi dudana izaten, nahi dudana baieztatzen, ezeztatzen, argudiatzen zein amesten; neure buruari bakarrik esplikazioak ematen.

Bene-benetako askatasuna, azalpenik eman beharrik ez izatea da. Baina ezinezkoa da hori, kirolaren munduan esan ohi duten bezala, besteek ere jokatzan dutelako, noski. Ez pentsa! Ez diot horri aterik ixten, batzuetan nire onurarako ziorik ere aurkitzen dut beste jokamolde ezberdinetan, ez dut ukatuko. Nola ukatu? Hortik luzatzen gara ta!

Argazki kamerak lez saiatzen naiz kanpoko interesgarria barneratzen. Baita negatiboak positibo bihurtzen fotografoak lez. Gerora zuhaitzak lez, enbor eta ardazketatik luzatzeko.

Ni bizipozaz ari naiz ordea, bizipoza delako bizitzaren motorra. Poza sozializatu bako gizartean ez baitu libre izateak ere apenas merezi. Alderantzizkoa berriz, parentesian esanda –barra kode bat txiste kontari-ezinezkoa. Jakingo dugu ba guk? Geure iraultzetatik bakarrik barre egiten dugunok?!

Bizipoza egiteko zerbait egitean datza; zeregina, zer egina bada ere. Maitatzeko norbait izatea, zerbaiten esperoan egotea, ordua betetzea,... kontxo! Buelta ta buelta iritsi naiz zoriontasuna definitzera. Hori da: ordua zeure erara betetzea. Denbora gobernatzea. Zer gehiago eskatu diezaio-kezu bitzita honi?

Geure buruaz gain baina, batzuk bederen, beste batzuegan ere pentsatzen dugu, eta errealtateari atxikituz, zorionsua hitza bete betean existitzen dela pentsatzea ezinezko egiten zaigu, ebidentea da, eta ezinezkoa bada, ba hori egin beharko dugu, imajinatu. Izan ere, eta nire usteak argudiatzeko, errealtatean erreparatzea baino ez dago; egunerokoa. Gizaki zorionsua bele zuria baino arraragoa da. Bai? Bai! Galdetu zeuon buruari zorionsuak zaretan edo ez eta, ikusiko duzue nola utziko diozuen zoriontsu zorionsua izateari. Nor bizi da itxurakeria minimorik erabili gabe? Nork dauka esateaz gain kontzientzia garbi? Zuk zurekin bakarrik, edo hobe esanda, ondoen zuk zurekin lortu ditzakezun erantzunen galderak dira.

Sasi zorionsuak gara! Makilatutako zoriontasuna darabilgu egunero; xahutasunean ezpuru.

Zoriontasuna eta askatasuna eskutik elkar hartuta doaz beraz, bata besteari tiraka. Diote, askatasunak ez duela zorionsu egiten jendea, pertsona egiten duela soilik. Klaro! Esan dut, baina zu zurekin egonda hurbil zaitezke bakarrik zoriontasunaren espresio gorenera. Bakoitzak bere senarekin bakarrik lortu baitezake, denboran zehar, bere nahien araberrako asean. Baina hori bai, esandakoa, menpekotasunik gabe; bizipoza mastikatuz.

Ba hori, gizakia txori bat kaiola batean baino askeago sentitu ezin den honetan, askatasun arriskutsu bat nahiago dudala, mirabetza lasai baina aspergarri baten ordean. Guztiz jatorra ez den nortasun baten partean. Nola heldu bestela momentuko nirvana posible bakarrera? Neure barruan arakatzera noa; beraien gerla nire jenioaz baketzera.

Badakit neu neurekin asakatzeak arrisku gutxi duela, pentsamenduaren arriskua soilik, a priori behintzat, baina askatasun bakarra dagoelakoan nago; pentsamenduarena. Gizon askea bere pentsamenduen bukaeraraino heltzeko beldurrik ez duena da, eta horretara abiatu nahi nuke; beldurraren aurpegian maitasun golpe bat jotzera.

Zu besterik ez zaitut ezagutzen; nire zu. Ni zugaran, ezagutzen ez dudana zugaran, zu zarelako nire, ni zure baino gehiago. Oxala, bat izan eta hala ere, izen ezberdinekin izendatuko baninduzu, izan ere zure errealitateak nire galdera guztiak besarkatzen ditu, dar-dar batean, tiritetan, pazientziak bete-tako umeak lez. Azken finean, tigreak eta oreinak dituen isla pila batekin



betetako “leo” bihotz gazte bat baino ez naiz. Bihotzaren lehen etsaitzat arrazoia bera izan dezakeen arrazoi bat. Ta zer dago hori baino politagorik? Bere arrazoiekin konformatzen den zoroa, horren zoro al dago ba? Jakintsu, poeta eta zorotik denok daukagu apurrik, ia ba kontzientziak laguntzen didan ibilaldi horretan; neure barruko ongia eta gaizkia bereizten dituen inteligentziaren argiak.

Niri, hauek hitz guztiak hitz bakarrean laburbiltzea gustatzen zait; sentsazioak. Sentsazioak dira nireak. Sentsazioak dira gaurkoak ere. Nik beti garrantzia handia eman diet sentsazioei, barrutik ateratzen diren ahotsak baitira, erraietatik eta kanpo eragin gutxienarekin ateratzen direnak. Nonbaitetik nonbaitera jotzeko hotsak dira eta, hobeagoa da nonbaitera jotzea, inora jo ezinik geratzea baino. Gainera sentsazioei ezin zaie ezer leporatu. Ez dute aparteko errurik ezertan. Sentsazioak bultzadak dira, ez tirakadak. Utzi beraiengatik eramaten... chambao-txanbao.

Litekeena da bultzadetan pauso txikiak jatea, bizitza eskailera bat balitz beti pasa dudalako hurrengo mailaren zain. Azkarregi abiatzea, baina abiatzea da kontua, jausita ere, mundu honetako bizimoduaren zulo beltz amaigabetan behin eta berriz amilduta ere, berriz abiatu ahal izateko. Gaur ez naiz erori ordea. Ez dut laprast ere egin. Pausoka noa. Ta egin izan banu zer? Zorionsua izateko nahia nabari zait. Sentsazio partikularrak ditut; askeak.

Ez dut bizitza nola zihoakion galdetzen ziotenean gizon hark erantzuten zuenik esango: “zoriontsuagoa izan ahal banintz, asko jota, anai bizki bat dudalakoan egongo nintzen”. Ez nuke inoiz horrelakorik esango. Hala balitz?! Ezta gutxiagorik ere, nik, gutxien gutxienez, gizon horri zerbait falta zaiola uste baitut. Baita soberan duela zerbait, txarra ez bada ere.

Poztasun hau momentukoa da, ez iraunkorra. Poztasun hau ni neurekin aurkitzen hasi izanaren ondorioa da. Aurkitu nahi izatearena behintzat; biluztearena.

Olatuaz bat abiatzera noa beraz. Parketik kalera. Jendearengana. Zuongana! Berdetik asfaltora. Huts egiten dudala? Desilusionatuko naiz baina, saiatu ezean aurrez gaude galduta!

Artean utzi zuok eta nire artean zerbait gerta dadin bakarrik. Inozenteak ez izatearen inozentzian jokatzek. Nire segurtasunek egunero dudak gosalduko dituzten arren, auto-estima orokorraren utopian, auto-estima propiora hurbiltzen. Ados gauden ez dio ardura, ezta esandakorik gogoratuko duzuen. Ez nazazue estudiatu, ez jarraitu ez obeditu. Ausartu!

Hau ez da maitasunezko kantu bat, ezta hitz hutseko kontu bat ere.

Zu edo zu gabe

Ez da erreza,

sentitu ez ta, sentiaraztea.

Ezta, uneka sentitzen dena

esan ezin izatea.

Deabruari, aingeruaren

kandela bera jartzea.

Bizia bizi duguna dela

ez salgai dagon bestea;

Ikustea.

Sinestea.

Egitea.

Zerbait adierazi nahi nuke

ezpainik mugitu gabe.

Ate bat ireki nahi dut

aterperik busti gabe.

Kolorerik ikustea

kolore ezari ere.


Leihoak irekitzea

euria danean ere.

Zu edo zu gabe.

Zu edo zu gabe.

Nik lasai pentsa dezaket
pentsaezinetan.
Gaztelu erreak eta
zubi laburretan.
Nahita galduta uzten dituzun
zorionaren giltzetan.
Denborari adarra jo ta
bizitzarekin olgetan;
Bitsetan.
Neuretan.
Geuretan.



Mario parkean I

Hau, hau ez da, hau ez da `maitasun` kantu bat.

Hau, hau ez da, hau ez da hitz hutseko kontu bat.

Hau, dena da, hau dena edo ezer ez da.

Hau, hitz bitan, bizitza baten bizia da.

Zu zara ni naizena.

Ni naiz zu zarena.

Zu nire ta ni zure.

Hori da dena.

Parke ertzetik

parke ertzera

bidean doa dena,

nire mundutik

gure mundura

hau loratu da.

Parke ertzetik

parke ertzera

bidea dugu dena,

nire mundutik

mundu erdira


loreak badira.

Sentsazioak sentsazio,
ezin duenak poza nondik dabilen dio.
Mundua dutenen orbitan salbu,
justizi ezak aske izaterik ez du.

Sentsazioak sentsazio,
koadroaren markoak ez digu balio.
Bakoitzak bikoitza preso badu,
erru bakook ere errua daukagu.

Nahi den dena baina, ahaztu barik, zeu barik, ezin zara bizi.

*"Ez ahaztu Mario, kamaleoia zara; Mario kamaleoia. Norberarena
besteekin uztartuz zarena izatera heltzen dena. Zu ez zara aldatzen,
zu aldakorra zara. Haritik tiraka, hariari zentzua hartu nahi diona"*



Mario kalean

"... a la sombra de mi sombra, estoy haciendo un sombrero, sombrero de largas pajas que recogí del suelo. Lo haré con el ala ancha, que casi llegué hasta el cielo, pa muchas veces no ver las cosas que ver no quiero. No quiero ver injusticias, no quiero ver miseria, no quiero ver militares ni princesas, no quiero ver dictadura, no quiero ver pobreza, no quiero ver religiones ricas ni reinas. Pero voy a dejar de hacerlo y voy a luchar con dos huevos..."

Izan ere, kalera irtetea baino ez dago zoriontasun eza zer den jakiteko. Besteen begietan norberarenak islatuta ikustea bezalakorik ez dago, zoriontasuna izateko aukerarik ere izan ez dutenen amets gaiztoaz ohartzeko. Berdinak izan ezin direnen berezko frustrazioaz gupidatzeko. Etxerik ezak, urrutira joan gabe, sorrarazten duen sentimendu arrotzaz ikaratzeko. Nahi luketen apurra sikiera, izan ezin direnen ustezko mingotsa frogatzeko. Gaziak gazi dastatzeko. Giza kudeaketa gaiztoetan kaka egiteko. Munduari zor dituen aukerak eskatzeko,... posibilitate eza gaitzetzeko; injustizia.

Ai ama, bizitza oso bat begira dauden begiok, sekulam sekulorum, fruituak ez bezala, helduak ez direla konturatzeko!

–**Egunon Mario!** (Txema okina, "Barrio Sesamo"ko panadero ilehori sinpatiko hari beretzat lapurtutako izena)

–E? Bai? Zer? Esan?

–**Ezer ez, ba, horixe, egunona baino ez.**

–A, bai, barkatu, egunon.

–**Zertan zenbiltzan ba, kale izkinako eskale horri horren arretatsu begira?**

–Zuk nirekin egin duzuna, nik berarekin egiteko potrorrik ba ote dudan pentsatzen!

–**Zer?**

–Ezer ez, ba, horixe, Senperrenak ikusten eta airera baino mintzatzen dabiltzan hauei, egun ona opatzeko gibel nahikorik ba ote daukadan baloratzen.

Izan ere, zakurrak garitan bezala dabiltzan hauek, jakingo ote dute egun ona zer den? Besteen begietan kurruxku bat ere balio ez dutenek izan dezakete egun onik? Egun ona zer da? Egun normal antzeko bat? Mami askorik bakoa? Egun ona opatzea, izatea baino errazagoa delako ofrendatzen dugu? Egun ona opa dizunak hala desio du oso osoan? Loou Reed-ek ere ironikoki aipatzen zuen ‘perfect day’ existitzen da? Galdera berdinak egingo ditu, euro-gero dabilen aurreko eskale honek bere kartoipeko birri-netan?

“... las cosas siguen como siempre, la vida me afecta a mi y a los demás...”

Erantzunen bila berriz, erantzunen zain, edo hobe esanda eta neurekiko gardena izateko, hauen beldur, aldatuko ez diren arazoetaz konturatzeak dakarren, berriz hauetaz ez gogoratzearen punturaino.

Hala ere, badago galdera zein erantzunik gabe juzkatzen duenik. Nola ez. Bi minutu dira hemen daramatzadanak eta dagoeneko pasatu da pertsona ezberdin andana, bakoitza bere aurreiritziz beteriko ikuspegi bereziarekin:

Denbora nola jan ez dakitela eta kopeta baino ez dutela dioten atso bi: Max Center edo Mas Gente-tan kolatzeko erreparorik erakusten ez duten berbalapiku ugari horietako bi. Espalaira bultzatuko nituzke!

Zerutzat koltxoi zikin bat baino ez duen eskale bati dirurik ez ematea poltsa zimurra izatea ez dela auto konbentzituraz igaro den gazte bat: detaileak preziorik ez daukala ez dakien aberaskillu ugari horietako bat. Zenbat dira baina, egoera bukgabeak kontzientziaren sakonean geratzen direla ez dakitenak, eta txarragoa dena, lehenago edo beranduago irtenbidea bilatzera kaleratzen direla. Berriz kili-kilirik sentituko dute behintzat?! Gustura txatxamurtuko nituzke nik!

Batak besteari, besoa besoaren gainean daudenak edo, inoren bizkar bizi direnak penarik ematen ez dietela dioten ama koadrila gaztea: inoren kontura kafe'zito'ak hartzen eta igogailuetako elkarrizketetan galtzen diren giza-pija ugari horietakoak. Kasik nahiago ditut parrokiako mojak, inori

inoiz jaten eman ez dieten beraien bularrekin, kontu egin. Noiz lehertuko dira petardo hauek guztiak?

–Pintterdiko jende honek kalean ere ez digu lasai ibiltzen uzten. (bat)

Hara bestea! Beste bat hobe esanda. Inguruko obrak begiztatzea baino zeregin hobeagorik ez duen beste espezie koipetsu bat. Ignorantzia gorra den beste adibide bat. Benetako jakinduriara inoiz iritsiko ez dena. Hauxe da hain zuzen gutxien gustatzen zaidana: errealitate anitz bezain ulertu bakoan, beraien burua inoiz etsaminatu gabe, lau haizetara edozer aldarrikatzeko lotsarik ez dutenen ahots ezatseginak. Kokoteraino nago jaio bezain pronto hiltzen diren hitzekin! Jakingo ote dute hauek behin jokoa bukatzerakoan, erregeak eta peoiak kutxa berdina konpartitzen dutela? Plastikozko jende honi, ttu egingo nioke burusoilean oker eginaren damurik gabe!

"... lo que hay que aguantar, ser uno mas..."

Argi dago denok buztin berarekin eginak bagara ere, inor ez dela molde berekoa.

Zenbat arrazoi duen oihaneko animalia arriskutsuena, paradoxikoki, bertan bizi ez dela dioenak! Ikusiak ikusi, nork diost niri kaleko koordinadetan, beste animalia bat gehiago ez garenik? Askotan ematen ez duen arren, porlanezko ohian honetako koefiziente intelektual handiena dugun animalia izaki, arriskutsuenak ez garenik? Ez da berau egia bakarra izango,

egia handia bai ordea; jarrerren egia. Arlo baten ez bada beste baten islatzen den ‘anomalía’ nortasuna. Zer den baleki gizon izaten erakusten digun duintasunak?!

Adorea behar da gero hau guzti hau asimilatzeke, sumitzeko. Adorea, arnastu ahala kontsumitzen den adorea.

Behin gogoratzen dut, Londreseko homeless bati, ahots hauek guztiak –berdinak baitziren hangoak edo nire estabilitatea zen berdina akaso–mintzen ez ote zuten galdetu niola eta erantzuna ez zait sekula ahaztuko: “ez dut nagusi batekin eztabaidatzen arrazoia izateko arrisku handia baitaukat”. Toma! Esan nuen nik. Hori da hori horren egoera beroan burua hots izatea. Bere urteek lau negu baino gehiago dituztela jakinda, arazorik eman gabe egia biluztea.

Izan ere arazoak ematen dituztenekin badakizue zer egiten duten? Arazo gehiago eman ez dezaten egin beharrekoak egin, ahalik eta arazo gutxien planteatzea baita berauek konpontzeko bide bakarra sistema honetan. Par-txeak partxeen gainean. Nagusi sentitzen direnei nagusi esatea baino ironia finagorik ez dut ezagutzen gainera. Azken finean, zoriontsuak izateko erre-bindikatu ere ezin direnen eskubideak zeintzuk dira?

Gogoratzearen gogoratzuz, gogoratzen dut jaio bezain pronto, berriz amaren hankartetik sartzeko saiakera egin zuela kontatzen zidan ‘muerto de hambre’ hura. Baina jadanik berandu zela eta, ordutik gosez hilik bizitzeko aukeratua zela zioen hura.

Eta nik, nik, esku hutsen mezuen bila darrait.

"... de rodillas estas, rodeado de ropa sucia, la mano que tienes extendida, nunca nunca para de temblar, no para de temblar, de frío de cansancio y algo mas, las sombras se vuelven alimañas, y cuesta tanto, y cuesta tanto, cuesta distinguir la realidad, cuando la vida, no vale y nada vale nada ya, perdóname porque yo he sido, uno mas, yo he sido otro mas, otro mas de..."

- Aizu barkatu baina, jendearen esamesek ez dizute zer pentsatua ematen?
 - Bai, zelan ez, iraun beharra sortarazten duela jaiotzak bizi aurretik, ta iraun nahi eza oihukatzen duela bizitzak jaio ostetik. Besterik?
 - Ahal bada bai, horiek arrosak baitira kaka irentsi duen eskale baten ahotik.
 - Ba bai, dramak ez baitu stopik, heriotzaren ume bakarra bizitza deitzen denetik. Baina zer nahi duzu esatea nire heriotzatik?
 - Ez dakit, izango da zer esana, zer orekatua, banatua, planeten planetan ezta?
 - Bai baina ez dut ahotsik altxatzen, eta are gutxiago eskatzen, nirea ez den ezer ez baitut nahi bueltan. Jabe gabeko gauza bakarra zaborra denez, eusletan. Zaborraren zaborretan. Ticketdunen trenak utzi nauen geltoki honetan.
-
- Igo zaitetz ba trenera bederen! Lagun dituzun saguak zure gorpuz loditu baino lehen.

–Bizitzak berdin egin du nirekin. Orain ez hasi higuintzen. Eskerrak arnastu arren, existentzia, heriotzaren amets gaizto bat baino ez den.

Kontxo! Honek jadanik bizimoduaren beste aldea baino ez du ikusten; sinetsi beharrekoa eta sinestezina. Beste bizitza baten esperantza, esperantzak elikatzen ez duen arren bizi arazten baitu. Azken finean ametsa baino ez, bizitzeko ametsen beharra ezinbestekoa delako, kasik, bistan denez, hiltzeko, pozoia bezain beste. Horra hor naturak gizonari eskaintzen dizkion lasaigarri biak; esperantza eta ametsa.

Niri, hutsa naizela onartzea ezinezko egiten zait ordea. Lehenago existitu ez naizen bezala, gerora existituko ez naizela pentsatzeak trabatuta egiten nau. Agian noizbait jakingo dugu zerbait ezereza baino hobea den. Momentuz, burua paralizatzen dit pentsatze hutsak. Nahia beldurrari gailentzen zaiola dioten arren mugara iritsi naizela dirudi, baita pentsamenduaren mugara ere.

Heriotza da betidanik, pentsamenduetan aurrerantz jarraitzea eragotzi didan hitza. Infinitua markatzea. Muga jarri gabe muga aurkitzea. Inpotentzia da, eta heriotzaz pentsatzea baino inpotenteagorik? Bizitzan behin baino agertzen ez den arren bizitzako momentu guztietan dago presente gainera kabroia. Hori da nire miseria; heriotzari beldurra. Inora heltzeko presaka nola joan asimilatzea. Baina zeri bestela? Zer nahi duzue esatea, jaitzeaz arduratu ez naizen lez, hiltzeaz ere ez dudala arduratu behar? Gezurra. Dozena bat bizitza banitu?!

Hila, txiza botatzera altxatu ezin den lotia da? Itxartuen mamua akaso? Nork zioen epe laburrera begiratu behar dugula, epe luzera denak hilda egongo garelako? Baina bizitzarik izan ez duenak heriotzaren sinetsi beharko du ezta? Heriotzaren bizitzan?! Eta erlijioak ez duela indarririk diote gero? Kalamidadezko baldintzetan, beste zerbaitetan amesteak ez duela balio? Ba aurrera edo atzera egiteko, ez dela gutxi. Eta bizirik bizi direnak ere ez dute beti gehiagorekin amesten ala? Zenbat arrazoi dago korrika hasi eta inoiz ez gelditzeko?!

Denentzako patu eta botika berdina dago hemen: hilko gabela onartzea eta ondoren zerbait gehiago izango dela pentsatzea. Baina horiek onartu beharrean batak bestea izorratzeko bideak eraiki dira.

Pentsatzea bakarrik bost pertsonetatik bakarra bizi dela airoso munduan?! Bosten batek dituela bizi azterketarako txuletak! Eta bostarekin nabilen honetan, kontrapunturako, planeta vip honetan, armetan gastatzen den diruaren ehuneko bostarekin mundu osoko miseria arinduko zela pentsatzea! Ondorioak ezin dira ba bestelakoak izan; putapenikoak. Zorte txarragoa izan dutenengan trufatzen den jendea, edo gero eta mundu boteretsu baten begietara gosez hiltzen ari den hazkunde izugarri handia. Hobeto lo, gizarte honetan sinetsi baino, esango luke aurrekoak.

Niri heriotzak beldurra ematen dit, baina zarata barik kritika sozial gisa agur esaten ari dela dirudien eskale honi ez ordea. Ez behintzat ikaratzeko bestekoa. Nola emango dio ba? Beldurra bizitzak ematen dio honi! Eta zer

opa diezaioket nik etorriko diren egunen deseperantzan beti zero kilometroan dagoenari? Egun ona niri desiratu didaten bezala? Heriotza leun bat akaso?

–Lorearen arantzak baino ezagutu ez dituzun horrek, bizitza honetan edo beste baten, baina landare osoa ezagutu dezazula behintzat. Zerbaitetarako nahi banauzu, badakizu, mesedetxoren bat edo,... beno, hurbil ibiltzen naiz beti. Agur.

–**Agur.**

Agur hori zein agur hotsa izan den. Agur horrek segi zure bidetik esan nahi zuela zirudien. Edo nik nahi izan dut horrela ulertu, azken finean neure bidetik joan nahi dudalako? Horren astuna da mundua? Anitza bezain pisutsua? Hainbeste pisatzen du egiak? Errealitateak? Zenbat aldiz errenditu daiteke duguna ondo lotuz?

Sistemak elikatzen gaitu, ez dago dudarik. Itotzen gaituen soka berak eusten gaitu. Hau da dagoena. Nahi dugun ikuspuntutik begiratuta ere panpinak baino ez gara, eta panpinek ez dute jolasean parte hartzen; beraiek dira jolasa.

"... ba al daki inork bereizten, zerua eta infernua, nor dagoen sufritzen eta nork daukan errua? Ta ba al dakizu zuk bereizten, malkoen arrazoia, sentimenduen zergatia, bakoitzaren egia?"

Ez al daki inork bereizten, albisteen kolorea, boteretsuen armak eta etorkinen gosea? Ta ba al dakizu zuk bereizten, hitz bakoitzaren zentzua, inoiz galtzen ez dutenen, aurpegi faltsua?

Gauzak aldatzeko beharra, sarrailak bidean, begiak ireki behar dira kolpe eta kolpe artean; bidean. Gauzak aldatzeko gogoa, mina zaurietan, begiak ireki behar dira horma zaharren aurrean..."

–Ondo bizi. ('dontsua'. Horrela deitzen diot nik behintzat, beti berdin agurtzen duen 55 urteko 'gizajoa', ahoan irribarre lasaigarri eta puru gabe inoiz ikusi ez dudan pertsonajea)

–Bai berdin; ondo bizi. Egunon edo,... horixe joe, ondo bizi!

"... pasito a pasito buscando el equilibrio, y dejándome llevar. Solo estoy jugando a que me invento un camino, primero a saltitos luego en espiral, no me mire así me esta clavando un cuchillo, o es que no sabe jugar. Yo seguiré mirando al cielo, tu nunca quisiste volar..."

Behin jendeari begiratzten hasita, bistaz, edo bistaz bakarrik –balite-keelako herriko marmar hori bakarrizketen lotura bat izatea– antzeman daiteke bere buruaz konforme ez daudenak ez direla gutxi. Sentimenak ez dute erradiografia beharrik eta hamarretik zazpitan ez nuke huts egingo. Ziur.

Beste espaloitik haserre aurpegiak doan gizona emazteaz potroetaraino dagoela errefusa ezina da.

Bere burua madarikatzen hamar metro atzerago doan emaztea bera, titi-puntetaraino norgatik dagoen badakidala zin egingo nuke.

Kalea kaguendioska gurutzatu duen kurrela horrek bere nagusia akabatuko luke seguru.

Mandamasek ere izango dituzte arazoak, baina nork ukatu mamoneokin bada ere, poltsikoak beteta eramangarriagoak ez direnik? Ez dutenei galdetu bestela!

Dena dela laugarren edo bosgarren martxako belozidadean bizi garenez, poltsikoetatik jausten zaiguna denbora da maiz.

"... hortik dabil gizon bat, kalean gora kalean behera, hortik dabil beste bat..."

Badabilela bai, hara nor doan bere bulegorantz! Atzo 'Yanki go home' eta Fidelen aldeko esloganak ozen ozen kantatzen zituen tipoa, Berlineko harresian daukan bulego adokinatura.

Katu beltz bat! Beste bat?!

Semaforoz bestaldean dauden lautik hiruk ere, gaur beraien egunik onena ez dela ziurtatuko lukete. Gaur? Galdetuz baieztatzen dut nik: dakidan guztia emango nuke ignoratzen dudan erdiगतिक.

Neska horrek bere itxura aldatzeko behar izana sentitzen du. Gaur egun nork ez?

Morroxko horrek itxura ez ezik baita izaera ere. Aupa hi animo! Hori ez da hainbestetan ikusten, zaila baita oso konturatzea ere.

Nerabe hori, neskak txunditzeko orrazkera moderno eta 'Nike' batzuen premian dago. Normala.

Beste tipa horrek ordea, mugikorrik ezean gainerako neskekiko atzertua geratuko denaren ustea dauka. Jokoz kanpo batzuen arriskuan bai behintzat. Baieztatzen galdetzen dut nik: helduko da mugikorrek gizakiz aldatuko duten garaia ere.

Gaske horrek eskolan ditu arazoak. Beste horrek ordea, eskolan eta etxean. Batean zein bestean, nork ez? Halabeharrez perlas!

Semaforoaren alde bietan, nire ondoan eta bestaldean, 'La calle' eta 'La farola' saltzen dabiltzan Errumaniako edo batek daki nongo larru zuri zein beltzak, behartutako aurpegi erdi irribarretsuak disimulatu ezinean dabiltzan berberak, beraien herrian eta bertan ere fujituta daude. Karmaren bila darraigu denok ere! Diot nik.

Errepidean bertan klinexak saltzen ahalegintzen dabiltzan gertuko iji-toak zer esanik ez! "La cabra" hil zen antza. Tronpetazoka.

Hau guztia ikusi al dute itsuek? Edo gertatzen ez direnak ikusten dituzte ezereza posiblearen soka horien kontra?

Entzun gorrek? Edo nahikoa dute argi bikoitzeko begiekin? Hartu zein ematen dituztenekin? Kausa zein barkamen gutxiago behar dituztenekin? Hiperaktiboak konturatu? Dislexikoak harrapatu?

Nahiz eta batzutan hobe den ez jakitea, jakin nahiko nuke zer dioten gehiengoarengandik bereizten direnak; elbarritu fisiko, psikiko...

Zergatik dago semaforoa gorri hain luzaroan? Nire barnekoak lez? Gizartearen suntsiduratik gizartea baino zerbait hobea sortuko da ezta? Eta hau ez dut ez galdetzen ez baieztatzen; ezin da bestela izan.

Ufff! Azkenean. Burbuila gris honi ostikada bat ematera nioan. Guru-tzegrama hau apurtzera. Aurrera baina! Jarraitu dezadan pauso lausoz nire desorekaren orekaren bila, edo, nire orekaren desorekaren bila, herriaren erritmora joaten uzteak, neu ez izatearen arriskuan erortzea ekarri baitezake.

Bidea gurutzatu, kale izkina hartu eta arkupeetara noa. Hori da, hori egingo dut, pasealeku batera. Paseoaren pausoaz paso egitera. Edo norbaitekin egotera beharbada. Ez diezadala ezerk pausoa pausatu bederen. Ez behintzat gizatasunetik haragoko teknologiek edo bestelakoek.

"... beldurrak batu gaitu ziutatean, funtzioa beti aurrera, biziko gara aski urrutiratua, elektragailuek zainduta, prefabrikatutako ametsetan, estatistikaren zeruan, borondatea itoa izan da, kontsumoaren ferian..."

Ostra! Hara nortzuk dauden han! Lehenago aipatu izan banitu! Izango dute esplikazioren bat momentu magiko hauek.

Hori da hori bikotea. Arkaitz eta Izaro. Ustez normalak direnentzako atzeratuak baina, geure burua guztiz normaltzat jotzen ez dugunontzako, mundu anormal honetan jokaera normalenak erakusten dituzten gizase-meak. Edo ez? Frogetara atxikitzen naiz bestela.

Beraiengana hurbilduko naiz, hauek pausoan pausa bat beraiek nahi duten guztietan egin dezaketelako. Kit-kat bat, beraiek esango luketen bezala hain berea duten umore sano horrekin. Gero ez dituztela gauzak ulertzen ariko dira asko esaten, baina nik behintzat, ez daukat inongo arazorik elkar ondo ulertzeko. Egia da Down gabezia arina dutela, baina nor libratzen da ba hemen bakoitzaren harrikadaz?!

–Aupa bikote?! Zer moduz?

–**Kaka, kaixo, Mario.** (Izaro, 25 urte, maitekorra eta txaplatia, hori bai)

–Zertan zenbiltzaten ba? Urrunetik entzuten nuen doinuren bat.

–**A,a, abesten. Ba, ba, badakizu, abesten ez gara hitz, hitz to, totalka aritzen.**

(Arkaitz, 23 urte ta Izaro bezain jatorra eta atsegina. Beste irla bat)

–Ederto! Ze poza! Noski baietz. Zuek beti abesten, beti umoretsu. Gainera bertsotan ere aritzen zarete ezta?

–**Be, ber, bertsotan edo. Bertsozaleak bai behintzat.** (Arkaitz)

–Hobeto. Garrantzitsuagoa da bertsozalea izatea bertsolaria baino. Lasaiagoa eta nobleagoa bai behintzat. Ez duzue uste?

–**Zuk, baba, badiozu?! (Arkaitz)**

–Nik badiot ez, zuek baderitzozue. Ta? Zer zenbiltzaten abesten ba? Kantuan horren sutsu eta ironikoki? Badakizue, zerbaiti kolpeka.

–**Behin, gube, gu bezalakoa ez den baba, bati, jarritako koko, koplak. (Arkaitz)**

–**Lele, lelo bati. (Izaro)**

–**O, o, hori bai, gugu, gure Mañuk eginak dira.**

–Zuenak egin badituzue zerbaitegatik izango da beraz, gustura entzungo nituzke ba aldarrikapen horiek, axola ez bazaizue.

–**Baba, badakizu, ilun ikarak do do, doinua? Du du, duoan egiten baitugu, baba, bata, be be, bestearen e, erantzun be be, bezala. Pupu, puntila. (Izaro)**

–Ez baina lasai, baietz zuekin kantatzen amaitu!

(Arkaitz)

1– Belea eta zozoarenak
 badauka bere grazia,
 horra kazpela pare bat nahasgai
 ezberdinez egosia.

–Izan ere zer dugu bizitza
 umorez hartu ezean,
 ez dugu faltan ezer sentitzen
 irribarre bakoitzean.

–Tori! musu bat masail gorriko
 dama gazte xarmententzat,
 neska politik geratu bitez
 irudimen bakoentzat

–Kopatxo eta zigarrotxo bat
 jan ostetan lagunekin,
 geure buruaz nahiko dugunez
 nori emango dio min?

(Izaro)

2– Alde batetik normalak eta
 bestetik gu ta besteak,
 ni ere poztan nau gu ikusteak
 beste “normalak” pozteak.

–Konpaziozko begiradetan
 zetako negarrik utzi?
 Paso eginez islatzen bada
 zer den asko, zer den gutxi.

–Gozatzen dugu, uju! eginez
 kulunka hodei artetik
 bihotzak aise hegan eginez
 maitasunaren gainetik.

–Nor da belea? nor da zozoa?
 nor zozoa? nor belea?
 Egosi ona irteten bada
 zerk markatzen du alde?

–Hori da hori! Abestu azkena berriz mesedez, zuekin erreplikatu dezadan. Denoi
 berdin sartu dakigun.

(hirurok) (fa) NOR DA BELEA? (mi) NOR DA XOXOA?
(fa) NOR XOXOA? (la) NOR BELEA?
(do) EGOSI ONA IRTETZEN BADA(re)
(sol) ZERK MARKATZEN DU ALDEA? (do)

Zelan gustatzen zaidan su hartzen duen jende hau. Begiak kliskatu gabe ezin begira daitezkeenak, eta hurbilduz gero, pizten zaituztetenak.

–Agur bikote agur. Gozatu ederra hartu dut zuen artean.

–**Gugustatu za zaizu orduan?** (Arkaitz)

–Bai horixe. Kantuz ukitu nauzue, ukitzeko gustuko dudan beste era horretan.
Gezurrak beraiek ere beste egia bat baino ez diren kilima berean.

–**EeeE!! Baina gustatu bebe, benetan?** (Izaro)

–Hori gustatu zaidala! Duda izpirik al dago akaso? Hurrengoan gitarra dakart.
Agur lagunak agur, banoa nire bidetik; nire kaletik.

Entzuten duzuenean nire umea, nire nerabea, kaleetatik noraezean hilda ikusi dutela, hilda egotea mereziko dut.

–**EeeE?** (biok)

–Eze ezr, ezer ez, onenak zaretela. Txau txau.

“... paparabaraba, paparabaraba, paparabaraba, paparabaraba,
paparabaraba, paparabaraba, paparabaraba, paparabaraba.”

Que tiene tu veneno, que me quita la vida solo con un beso, y me lleva a la luna, y me ofrece la droga que todo lo cura, dependencia vendita, visible cadena que me ata a la vida, y en momentos oscuros, palmadita en la espalda, ya estoy mas seguro.

Se me ponen si me besas, rojitas las orejas.

Paparabaraba, paparabaraba, paparabaraba, paparabaraba,
paparabaraba, paparabaraba, paparabaraba, paparabaraba.

Pon carita de pena, que ya sabes que haré todo lo que tu quieras, ojos de luna llena, miradas de fuego en mi cuerpo de cera, tu eres mi verso, pluma, papel y sentimiento, la noche yo y tu la luna, tu la cerveza y yo la espuma.

Se me ponen si me besas, rojitas las orejas. Paparabaraba..."

Redios! Hauek daukate hauek maitasun gosea; zerua garbitu nahia! Elkarri musuak lapurtu beharra! Eta elkarrekin zeruari bi izar! Ilusio kontagiagarria, eguzkia doratu eta ilargia txukuntzerainokoa. Lotsabako zoriona.

Maitasunak egiten gaitu, argi dago. Maitaleek maitasuna beraiek sortzen dutela uste arren, egin, amodioa da egiten duguna. Eta maitasunak egiten bagaitu, ez da inor beronen jabe, Exkixuk esan eta gure parejatzuek erakutsi lez: inork agintzen ez didalako maite dut maite dudana, inork agintzen ez diolako maite nau maite nauenak.

Kalean zorion apurra dastatzea sendagaia da, botika, baina ez da normalena nabaritu daitekeenez. Gizartea maite arren, zirrikitu gutxi uzten du gizakiak horretarako.

Kaleak pauso asko ditu ibiltzeke ordea, eta itxaropenari ez diogu aterik itxiko. Zorionarena ez bederen. Eta zorionaren kalean luzaroan egoterik ez dagoen arren, ahal den guztietan saiatuko naiz bertara hurbiltzen; haur begien inozentziara hurbiltzen. Harri koxkor saihestezinez betetako kaletatik egunero pasatuko naizen arren. Nahita igaroko ditudan arren errealitatearen egi gordinak ezkututzen dituzten karrikak. Nigandik kanpo hamaika bide egon arren, ez dagoelako beste errealitaterik, gizakiok, izakiok, barruan daukagunetik at.

"... caminante no hay camino, se hace camino al andar, golpe a golpe, verso a verso..."

Mundu zailean egoteak ematen baitu mundu hobe bat eskatzeko eskubidea.

Mario kalean

Ez dakit,

ez dakit zergatik ez garen, garena, beti.

Ez dakit,


ez dakit zergatik garen, ez garena, askotan.

Kalea kale egiak zenbat aurpegi
usteen kontra ispilu ona dirudi
berdintasunik ez da inondik ageri
dohain bakarrak atzetik ditu 'fallo' bi

| | |
|------------------------|---|
| Baina dena da berdin | Berdinak beti berdin |
| gero ezer ez da berdin | norbait luzitu dadin/bizidunon bizi min |
| neu izan nahi ta ezin | zirkoa zirko gordin |
| izan nahi eta ezin | bihozdunon bihotz min |

Buruhausteak datoz betilez gainezka
ia nor zaren ia zer zaren galdezka
baina garenok izan nahi dugun bitartean
jarrai dezagun geure izarren aterpean

*"Ez ahaztu Mario, kamaleoia zara; Mario kamaleoia. Norberarena
besteekin uztartuz zarena izatera heltzen dena. Zu ez zara aldatzen,
zu aldakorra zara. Haritik tiraka, hariari zentzua hartu nahi diona"*



Mario plazan

Ez al da ba zoragarria, gaur egiten duen eguraldia? Gainontzekoetan egiten ez duena?

Pentsa inork gutxik daukala bere herriaren egunsentiaz gozatzeko aukerarik; koloretan amesteko plazarik. Kantauri itsasoa zeure sentitzeko ahalmenik.

Abiatu gaitezen ba, udazkenak baino izan ez dituela dirudien herri zahar honen udaberriaren bila.

Larrosa koloreko larrosa eta krabelin usaineko krabelinen bila; egiaren bila.

Izan dena izan denik, sinetsi ezinik eta, ametsa, amets hutsa dela, sinetsi ezin dela, bezperen minbiziz, goazen herriaren egunaren bila. Justizia, ez berdinketaren bila.

Askatasun eguzkiaren bila. Kolorez jantzitako soineko jatorraren bila.

Pozik nago. Itxaropentsu. Nola ez naiz ba baikortasunak jota egongo, horrenbeste itxarotako momentua heldu denean? Hogeita piku urte luze kartzelan eman dituen laguna kalean denean? Akaso ez du koadro ilun honi eguzki izpi bat jartzeak merezi? Inoiz ez bezala korronteetan apurtzeak?

Ospatzeko gogoia daukat; zoriontzekoa. Gaur, betilez, oraindik den arren, txintxin baten urtzekoa. Norbait bere tamainan eredu senti araztekoa. Borrokaren garaipen txiki honen haize leun izatekoa.

"... maite dugu gure herria, ta askatasun eguzkia, itzal egiten digu horrek baina..."

-Agur Mario?! (P.N.V.-ko ezagun bat. E.A.J.-koa ere)

Ba gaurkoan ez dut ba beste barik agurtuko. Ez naiz betiko sentsazio mingotsarekin geratuko. Gaurkoan, horren beraiena duten soberbia puntu berdinez erantzun nahiko nioke. Barruan daramaten argentino txikiaz. Txikia? Esan baino pentsatuko luke berak!

-Agur Sabino, agur. Denbora ederra ezta?

-Bai horixe. Lasai egotekoa egoterik badago. Ta zu? Nora ba?

-Ba begira, galdetu ezean esan ere ez nizun egingo. Plazara noa baina. Izan ere, 25 urtetan besarkatu ezin izan dudana lagun bat agurtzera. Aldika herritik kanpo egon bai baina, elkar sentitzeko paradarik izan ez dugun gorputz osoko bihotz bati ongi etorria ematera. UCD, PP, PSOE ta, nola ez, bertoko atzerriratutakoek osatzen duten tropelak bahiturik izan duten preso politiko bati itzulera gazi-gozoa leunago egitera. Bazatoz ala?

-Ez eskerrik asko, zereginak ditut.

–Bai lasai, nola ez, trankil gizona, nik ere ikusten duzunez baditut eta beste 'behar izan' batzuk. Zureak ez bezalakoak segurutik baina betegarriagoak seguru. Ez dakit ze hitz erabili baina -agoa atzizkiaz doanen bat, ikusi dezakezunez, oraindik badelako eskubideen alde bere bizitza hipotekatzeko ahalmena duen bihotzik. Gugatik dena ematen duen gorputzik. Herriarekiko maitasunak edo opresorearekiko gorrotoak bakarrik lortu dezakeen izar gorri hori aldean daramanik. Baina beno, ez zaitut entretenitu nahi, bakoitzak daki bere burua nola asetu. Segi zurea betetzen.

–**Bai, ondo bizi.**

Nire lagun dontsuak esango lukeen bezala, hori bai, bere inozentzian. Kanpo eder eta fraide berbati hauekin kokoteraino nago.

"... si han de callar, que callen aquellos, los que firmaron pactos de silencio..."

Egia da egia bakarra, bihotz bat salbatzeko beste bat behar dela bezain egia, eta justiziaz eraikitako bakeranzko bide jatorrik, ikusi edo, ikusi nahi ez duten hauek guztiengan aurpegi grisak baino ez dira nabarmen. Itzalak ereiten dituztenen bihotz grisen lorratzak.

"... Por encima de lo humano y lo divino, vosotras, vosotros y vuestro dinero..."

–**Ze Mario? Begirada galdu hori?** (Aitortxu, Durangaldeko euskaldun zahar jator bat)

–Buruari bueltaka nonbait. Plazara bidean ez dugu arrosekin tupust egiten eta arantza baten arantza izan nahi izan dut.

–**Buuuuuu! Zu horrela jartzen zarenean badakit nortzuetaz ari zaren.**

Entzungorreneak egin eta gainetik kendu ezinik, egunero adarrak jartzen dizkiguten herrikideetaz.

–Hori da, betikoetaz, batak bestea hiltzen duen garaia, gerla garaitzat jotzen dutenetaz baina, batak besteari bizitzen uzten ez dion sasoia, bake sasoitzat bataiatzen duten berberetaz.

Egia esan, 4 hitz esatea berez eraginkorra ez den arren, burua altxatzeko baliagarria da. Badakit neu ere ez naizela iraultzaile petoa. Idealak azken muturreraino eramatekoa. Borondate baino desio gehiagoko arima parentesian esanda, baina, momentuz abertzaletzat daukat neure burua, aldizka neurean errenditzen naizen arren. Gorroto ditut orduan, gureak izan zein ez, jarrerekin beste zerbait erakusten dutenak. Jarrerekin bai, jarreretan baitago motorra.

Bakezale asko dago –bakearen pipa erre baina kerik irensten ez dutenak– eta bakegile gutxi. Zugan konfiantza daukadalako diotsut hau. Ez besterik.

–**Bai, klaro. Begiak irekiz pixka bat, barneko burges txiki hori noraino heltzen den konturatu behar da norbera. Giza joko honetan normaltzat jo liteke hitzen hipokresia, maskara beharrak edo, min egiten dizkiguten irudietatik**

aldentzea. Baita daukagunaz konformatzea ere; bakoitzarena lotzea. Edo gehiago nahi izatea, nola ez. Ekintzak dira balio dutenak ordea. Izanak, ez esanak. Hitzak, zure pausuen mapa bakarrik behar dute izan.

Eta orduan, pentsatzen hasten naizen honetan, zelan dauka izena, ilegalizazio ezmoral baten aterpean udaletxeak osten dituen izaerak? 'Demokrazian' preso politikoak, zapaltzeko gainera, onartzen dituenak? Hitzaren beraren ere errespetu barik, zentral termikoak zein AHTak herriratzen dituenak? Denon ardura behar lukeen gatazka baten ondorioei muzin egiten dionak? Edo, martxoak 11an bezala, komenientzien arabera, sentipen bortitzekin era ezin lotsagarriagoan jokatzeko duenak?

–Sangijuelak Aitor, sangijuelak. Euskal Herriko 'arkitekto' hauek abilak dira barru espaziorik gabe etxeak eraikitzen. Eta guri, eraiki gabeko etxeari leihoak egitea baino ez zaigu geratzen. Ta kontuz, gurean ere badira ta! Kontu egin.

–Bai, trepak edonon dira baina guk gure kontuak egin beharko ditugu ba, **Madril-Gasteiz konexioak beraienak bezala.**

–Nork dio gero gaizki eramaten dela zakurrarekin katua? Boterea da kontua. Tolerantzia joko, eta bakea aholkua. Niri ere gustatuko litzaidake munduarekin armonia lakonikoan egotea, baina saihestezina da saiakera bakoitzean, odola irakin eta sama luzatzea.

–Zelan ez apartheid propio honetan. Ondo da Mario, laster ikusiko gara plazan, omenaldi aurretik txiri txiri errekadu bat egin behar dut eta.

–Bai ba, laster arte. Plazerra izan da.

"... neguaren bihotzeko begirada zaurituak gurutzatzen ditugu plaza desolatueta, gerla garaien mehatxuak airean doaz justiziaren larru beltzak sardeskatz. Denboraren orratzak, plegatzen gabiltza, larru beltzak josi asmoz..."

Neure buruari sarri diotsat, horrelakoek eta men egiten dieten zurrupatzaileek ez nazatela nire bidetik aldendu. Nire pentsamenduetatik erbestera. Ez nazala sabeliztun berak bere txotxongilo egin! Gu bidean bai-koaz, bide justuan. Partiduek bihotzak atzamaratu eta komunikabideek zauriak pozoindu arren, odola eta sarraskia zuri-beltzez ikustera behartu arren, egiaren eta giza eskubideen bide bakarrean; ezkerreko karrilean. Ez diezadatela gero giza arrazoiketa klitxeatueta hitz egin!

Maite zaitut aberri, eta maite nauzu, seguru, eta maitasun honetan perfekzio ezak erretzen ditugu; bizitzak.

Bozgorailuetatik:

"... maite ditut maite gure bazterrak, lanbroak, ezkututzen dizkidanean. Zer ezkututzen duen, ez didanean ikusten uzten, orduan hasten bainaiz, ezkutukoa, nire baitan pizten diren bazter miresgarriak ikusten..."

Plazara hurbildu ahala kantu hau entzuten dudana heinean, itsasoak olatuka kolpatzen du nire bihotza. Lotsati eta, horrelakoetan nigan ohiko

den eran, sentimenduak gutxi azaleraziz, bidean egokitzen zaizkidan aurpegiak agurtzen ditudan erritmo berean.

-Aupa, Aupa, Aupa, Aupa, Aupa,... Iep! Iaup! Aup! Epa!,...

Koloka nadin. Mikel Laboa gero eta urrutiago entzun ahala, txalaparta baita belarriak betetzen hasi zaizkidana.

Garik eta Anek astindutako egur horiek badute toke mistiko bat. Barruak irakiten, begiradarekin disimuluan Kepa bilatzen hasteko modukoa. Baina bera aipatzen duten kartelak ikustea baino ez dut lortzen: “ongi etorri Kepa”, “etxera, gudari”, “zu bai zu, potxolo”,...

Egia esan eskertzen da formalismoetatik kanpo, formatuetatik irteten den pankarta umoretsu bat, eta berak, zer esanik ez. Suposatzen dut, azken finean horrelakoek atxikitzen zaituztela zureengana ‘ongi etorri’ batek baino gehiago. Ta zertan datza honek ba? Kolektibokoa dela badakigu!

Jarraitzen dut bera begiz jo ezinda baina, begiak poztu dizkidan beste elementu ez ohiko batek piztu dit atentzioa bitartean; oholtza atzetik gorantz galanki irteten den eta, iheslariei aipamen egiten dien 2x3 metroko lona siluetatu eder horrek.

Itxurosoa, gustagarria, eta emozionantea, batez ere nogan pentsatu daukanarentzat. Nogan pentsatu. Pentsatu. Tutu-tutu-tutu...

Kaixo

Bum-bum, bum-bum

Zoom, zoom, zoom

Ti-ta-ti-ta-ti-ta-ti

bilotza etxean egun: entzun!

burua herriari lagun: erantzun

pausorik aldiz urritu, zazpikal

Ieup! Ieup!

Nahi puke egon horrela beti.

Baina herria lapurto zigutenetik

aberria baino ez da geratzen zutik

Burua bilotza gorputza ametza bizitza hitza

Zer da aberria?

Herririk bagenu, behar ez genukeen alegia.

Ikusi makusi loa,

edozein herriko silueta origarri ilunaren astero,

itzalaren argia: gora Euskal Herria

Eskerrak Sarriren etxeko leihotik ere,

Zerbait ikusten deg.

Laster arte. Agur bero bat.

Iheslaria

- Gogobete aurpegia daukazu e Mario?!** (aita erbestean duen Leontzio betiko lagun minak ondotik)
- Bai, gustura pentsakor esango nuke, gustatu baitzait bateko edo besteko, hemen egoterik ez dutenak gogoratzeko era. Atsegina bere itzalean. Aspertua nengoen, sorlekuan egoterik ez dutenen, laino gisa itzultzen diren uren imajinaz. Ura sentitu nahi nuen. Gardentasuna ikusi. Nola irudikatzen dira ba betirako distantziak? Egia da gaua iluna den arren eternala ez dela? Ezinezkoak pixka bat gehiago irauten duela bakarrik?
- Ilusiorako galderak. Baikortasunak ematen du indarra eta hala hobe, dena den, erantzunak errealitateak berak eman ezean berdinetan gaude.**
- Orduan berdin ez? Ia berdin, esperantzaren ilusio iheskor baina iraunkorreakin. Baina bai, zu beti bezain hanka lurtar eta egoki. Zuzen. Jai daukagula dirudi beti ezta? Bihotzetan piztu arazi dizkiguten garretan kondentatuak gaudela?
- Pssssssss, aureskua dator ta!** (albotik errespetuz Pablo zaharrak)
- Buruz baieztatu ta txistua entzun artean, oraindik siluetari begira, neure kolkorako baina, galderetan darrait.
- Zergatik igotzen ditut aspaldiko pasarte klandestinoak oroimenaren bar-kura? Gauza garrantzitsuek betirako pisua daukatelako izango da?! Zortek zenbateko garrantzia dauka gure patuan?
- Ostia! Hor dago Kepa. Azkenean. Ez da ezer bereziagatik baina, gustuko dut jende aurreko jarreraz ohartzea, jendearen lepotik egin dituenak

imajinatuz. Inigo eta Inakiren txistu eta hankei ordeztatu, beraien begietara so dago Kepa. Eta niri malko gazi-gozo bat estaltzen duen irribarre maltzur bat irteten zait. Giokonda aurpegia. Lagun biek ordezkatu eta eskainitako arrosa eta auresku horren atzean, beraien begiraden arteko distantzian flotatzen duten bisitak, hitzak, esanak, ez esanak, irudiak, usainak, ametsak, amets gaiztoak, irriak, negarrak, Km-ak,... daude.

Herri honetan beti izango da euri xume bat zuentzat.

"... askatasun oihu bat, olatu bat bezala, entzun da Kantauri itsasoan, lur zatitu honetan, itxaropen doinu bat..."

Kontxo kontxo! Hau ere kanta da ba! Aspaldiko gremlins! Hirurok gaude gaur! Inbidia sanoaren gaineko lagun izatearen luxuak dira hauek.

Eskerrak inork lapurtu ez diezadan, inoiz bihotzik gainean ez daramadana.

Aiba bertsolariak! Aupa Unai!

"Garai zaharren usaia dago
garai berrien atzean
habia bere txoriaren zain
dagoenaren antzean
ta nahiz ta jakin adarrak jartzen
dizkigutela lantzean
ez da inor eskuz gurutzatuko
gure aitaren etxean
ta nahiz ta jakin adarrak jartzen
dizkigutela lantzean
gogoz hustuko gara patrika
bukolikoen hutsean"

"Zer esan zuri, zuri zer esan
lurruntzen zaizkit hitz danak
suposatzen dut halako zerbait
sentitzen dutela amak
zure figurak bereizten ditu
esanak eta izanak
gazi-gozoak, malko-irri zein
golpeak edo laztanak
zure figurak bereizten ditu
esanak eta izanak
gora Euskal Herri askatua ta
bere alde dabiltzanak"

Urko nire lagunak esango lukeen lez: nire numero uinoa.

Bihar, hurrengo egunaren bezpera baino izango ez den arren, edo bez-
pera delako, aupada bat.

"... eraman zuten Francis Hughes gaztea baita haren lehengusu Tom
McElwee ere, etorri ziren Patsy Ohara, Bobby Sands ta lagunak bila,
Bostonen, Chicagon, Saigonon, Santiagon, Varsovian, Gasteizen eta
Belfasten, eta beste hainbat lekutan, hau zerrenda amaigabea, ez

dute uzten maitatzen gauean, ez agurrik ez negarrik gauean, ez zergatik ez, norarik gabe..."

Uaa,... itzela! Ordua zen ekitaldietan kalitateak gora egin dezan. Omen-
dua partaideekin besarkadetan batu eta senide bat taularatzen den bi-
tartean, "Hertzainak"-en "No time for love" bozgorailuetatik entzutea la
hostia da! Behintzat dinamikoa eta, gezurra dirudien arren, garaikidea izan
dadin. Izan ere, ezker abertzalearen lana borondatezkoa denaren argu-
diopean, beti betikoaz konformatzen gara geure buruak engainatzeraino.

Arnaldok dioen lez, ahal den neurrian askoz kalitate hobeko Euskal
Herri bat posible dela egiaztatu eta sinestarazi behar diogu jendeari. Bidea
hori da. Zaila noski, gizartearen aspektu guztiak ukitzen dituelako, eta iris-
terik errez ez dagoelako. Baina hala behar du, sasi politikoez gure botoe-
kin nahi dutena gitea galarazi nahi bada. Mundu justuaren bila bagoaz,
hobearen bila.

Gidoi landu bat sumatzen dut askotan, eta hobetu aldera, detaile txikiek
egiten dute herria, joera zaharkitu edo topiko hutsaletatik haragoko marra
gainditzen doala sentiaraztea.

Ezin gara esamoldeetan atertu, eta bakoitza bat izanda, denok bat iza-
tera helduko garen perspektibarekin ekin behar diogu lanari, sasi mili-
tarismo zein auto protagonismoetatik kanpo. Oztopoak oztopo, edozein
kudeaketan ezinbesteko deritzot. Sin prisa, neurriz kanpikorik behintzat,
pero sin pausa, pazientzia inpazientziak oparitutako lore hauskor bat baita.

–Arrastion. (Santos, herriko senide bat) Badakidanez lotsagarria dela errepikan hastea dena esanda dagoenean, ezinbestean ez bada behintzat, hemen gaudenok aske izateko, hemen ez daudenen askatasuna behar dugula baino ez dut esango. Horretarako, bisita baten bidean ama batek bere alabarekin autoan izandako elkarrizketa bat ekarriko dizuet gogora, senide naizen aldetik, beragan islatu nahi dugularik maitatua urrin sentitzen dugunon amodio eta esperantza.

Grabaketa bozgorailuetatik:

Alaba: Amatxo aitaxo zergatik dago hormen atzean?

Ama: Lore bat ereitearren etxeko baratzean.

Alaba: Amatxo nolakoa zen aitaxoren lorea?

Ama: Itsaso usaia zuen, mendien kolorea. Petalo zuri gorriak, zurtoin berdeberdea. Zu bezain hauskorra eta, zu bezain dotorea. Baratzean erein arren, bihotzean gordea. Otsoek gauez zapaldu egin zuten ordea.

Alaba: Noiz izango da amatxo aita berriz askea?

Ama: Bakea daukagunean maitea.

Alaba: Zer da bakea?

Ama: Justua izan nahi bada, lapurrak lapurtuari berea ematea.

Alaba: Ama aita azkenengoz ikusi nuen udan, gaur nola esango diot zenbat maitatzen dudan?

Ama: Musutsu gozoak eman, ez zaitetz egon dudan. Erein zuen loretxoa ikusi dezan zugan. Zer ari zara pentsatzen laztana hor atzean?

Alaba: Aita berriz utzi behar badugu espetxean, zure laguntzaz bueltatzean, nik

ere egin nahiko nukeela aitaxoren antzean: loretxo bat erein etxeko baratzean, berari emateko etxera etortzean.

Aupa zuek! Tiernoia. Ederra. Egokia gainera.

- Honek hunkitzen ez duen gisa-semerik badago?** (semea borrokan hila eta iloba batek daki non daukan Maria amonak)
 - Egongo da, munduarentzako preso bat, ba horixe, bat baino ez delako. Kontua da batentzako, hain justu mundua bera dela. Boligrafo gabeko bisita horiek bihotza biguntzen didate. Tristatu aldera, alaitu. Baldintza gabeko laguntasunaren zeinu. Haiek zaintzen dituztenak ez duten gizatasunaren amorru. Izan ere opresoreek...
 - Txarri baltzok! Deabru hauei egia diotenean ere ez zaie sinetsi behar!**
 - ... guk zuri beltzean amestea nahi dute, zuri beltzean amestea baino gauza tristeagorik ez baitago. Hargatik zaie zilegi edozein prozesu desbideratzea.
 - Horixe da ba txarri horien artea; desmoralizatzea. Herria tristatzea. Erdian burdinak jarri eta alde bietan presoak uztea. Izan be herri tristeetatik ez dator garaipenik. Zerbait ikasi badut 87 urte hauetan, ezbeharrei aurre konbentzimenduz eta umorez egin behar zaiela da. Etengabe kristalak mastekatuz gabiltzala dirudi bestela!**
- Hargatik diot iraultza gaztea dela, eta batik bat gazteena. Mugitzen dena animatu behar da gazte, mugitzen dena, kontuan hartu hurrengo urteetarako. Zaharrengan hori argi izan ezean, pozoa baino ez da geratzen. Gurekin geratzen diren urteak dira zahartzen gaituztenak, ez pasatzen direnak.

–Zenbateko arrazoia daukazu polite. Aikor! Iparorratz eredugarri zen ta den Sabin dakarkidazu gogora.

–**Ez dakizu zuk ondo!**

–Ez, baina dakidanarekin nahikoa daukat. Asebetetzen nau denetarik ikusitako zu bezalako dama bat, zuri beltzaren arteko gama alaietan kulunkatzen ikusteak. Neskato horrek, bere aita ikusteko islatzen duen ilusio bera zuga ikustea. Bizitza oso bateko egiak. Zimurren koloreak.

Bozgorailuetatik orain Exkixu entzutea Kepak hitza hartu bitartean jenniala da. Jadanik ez dakit musika bozgorailuetatik edo nire belarrietatik irteten den.

"... bidean emandako bizia, denboran utzitako hazia, inola ere ez da galdua, denak apur bat emanez, gutxi batzuk dena eman ez dezaten, bakarrik egon ez daitezten. Sua, sua bihotzian, sua sua bihotzian, itxaropen hazia..."

Mikrofonotik Kepa: (hitzez hitz)

–Eskerrik asko benetan be. Enaz ni omenaldi zale, baten batek zeozer emoten badeu gure dauelako baite, barruek eskatzen dotzelako ta ez trukien ezer jasoteko baina, honezkero, sentimenduek konpartidu bidien, apur apur bat husteko aprobeixuekot, beti be egoeraren hoherako dalakuen.

Lehenengo ta behin nire esker on eta miresmena hori bai, amatxuei, aitei, senideei, lagun, ezagun, ezezagun,... en fin, zeuoi.

Ondiño ez dakit maitasune edo ernegue dan nigan nagusitzen dana, bestiek beste, ezinbestien eskutik hartute duezelako. Iguel, gura moduen bizi ezin izatien kontzekuentzi banaezina izengo da amodio hau; zeinekin gorrotatzen dodan. Dana dala, zentzuaz jokatzea danez gure bidie, berdin segitzen dot oin, kartzelan, erbestien, zein oin hogeit urte ta piku. Paperak, polito jarri daian, lerro barik segitzen dau!
 "... hauxe duk hauxe, gure destino petrala, hauxe, hauxe duk hauxe..."

-Orduko talde batek esango leuken lez, nola aldatu diren gauzak kamarada, baina nola beste asko ez dien kanbixau. Nola problemak gehitu eta oinarritzuenak arreglau barik segiduten dabien! Nola gure kuadrue abstrakziñotik diferentzietako lan asko dauen eiteke, baina, nola, neurriko markue plazaratzen segidukogun.
 "... ya lo dijo Villa, dijo Zapata; justicia, tierra y libertad..."

-Zelan orduko 564 ohe huts haiek ia 800 bilakatu dien! Kaiolatutako zazpiehun ta piku arima! Zelan jentie eperdixe bustiten segidu baina, nola bestiek gure eperdixetarako ostikadarik onena eukiten segiduten dabien! Zelan dudak landatu eta bildurrek areagotzen saiatzen dien! Zelan itxura hotzieren, ekintza bortitz bilakatzen dien saminaren gidoilari izeten segiduten dabien! Zelan historixe kontetako diskurtso bakarretik mobiduten dana ez dan fotografixan urtetan! Zelan geuzei bere izenez deitu barik segiduten dabien! Hitz baten esanda, eta sasi epaiketa zein biher dien abar guztixek testigu, zelan ilusiñuek, ilusiño faltsu konbertiduten saiatzen dien, egoera Kafkianuetara heldute bada be.

Azken finean komunikabidietan dekie burujatien arma handixena, guzurrek edo egi parzialak erabiliaren erabiliaz ajau ta egi bihurtzeraino. Denbora, manipulaziñorako, ta zelan ez, negoziorako, alde dekie ta.

Eztekogu errez. Ezker ormatik tantue eitue gatz dau, ta partidue irebaztie gatzau, baina, egixen ganién ibiltie berez da irebazixe ta, zer ibilie badau.

Egixe baita herri, nazio edo guruzun moduen deitue izeteko autodeterminaziñorako deretxue dekogule! Baina sarien parte gara ta,... eztogu ba ONUn pregunteuko.

Egixe baita ezker abertzalie izan dala, Argel eta Lizarratik paseute, Txibetatik Anoetaraino, herri honen soluziñorako proiektu ulergarri-errespetagarri bakarra eskaini deuená, prest dauzenekin berba eitoko dena delako garaia probestuz, pausuz pausu, berez gutxi ez dan marko objektibo baten esku zabaltasunez ganera.

Partidismuetatik haragoko proiektu bakarra, baina klaro, inplikautako gehixenek, partidismo intereseuen komenientzire, soluzioñue onartzen ez dabien egixe bera. Bakotzak bere soliziñue eukiko dau, azken erreferendum partidista edo hobe esanda party-diska kasu, baina beraz, ez dot pentsetan guriek ez bestiek, soluziñora eroango gaituenik, soluziñuek, tarta osoaren, fleko guztien irtenbidie bideuelako.

Jaurlaritzatik hasite, Herri eta Esteuen artien komunikau bihera, Partidu-Estatu ikuspuntutik berba ein dalako beti hemen.

Egixe baita treguak baldintza egokipetan berba eiten dan bakoitzean hasten diezela! Jukutrietan gabiz ostien; mamoneuetan. Zurikerixetan gitxienez.

"... preguntas que no terminan, respuestas que se adivinan, todo excusas, todo son excusas..."

Galdetu diezaiogun geure buruari beldur gabe, errealitate ezberdinen herri honen benetako izaera zein den?! 7 gurpleko autoak zenbat bolante dituen?! Zenbat euskaldun dituen E.Hak?! Zenbat aditu, aurkari, maitale, bekatu, gobernu, arazo, galdera, erantzun,... aspaldi, olerkiak bezala, inmortala bihurtu behar izan zen estraditatu hari eginiko hau datorkit gogora:



Zein da? Zioen amak.

Erru bakoon errua.

Pentsamenduarena.

Zein, alaben bideen erru bidea?

Izenen izan nahiarena. Errebidea.

Eta burmuina lurruntzen ziona:

Zazpi ken zazpiren hutsa.

Nor da? Galdetzen zuen.

Zer da? Oihukatu.

Eta isilean mintzatzen zen,

mintzatzen da:

zazpiarena da bata. Zazpiarena bia, hiru ta laua. Bosta, seia ta zazpia; gu ta gutarrak.

GORA!

Mintzatuko da.

Jarraitzen du mikrofonotik Kepak:

–Egixe baita betikoak diezela geixen sufritzen dabienak! Geixen ematen dabienak, klaro. Borroka dauen bitartean, ondo bagauz, txarto goazenaren seinale beraz. Hau baita bizitzie tokatu jakuna, ez guk aukeratua. Gurau neuke bestela balitz baina,...

Ezta hain gatza gatazka bat dauela onartzie ezta? Sufrimendu nahi ezak aitu ta errespetetie behintzet, komenentzi lotsagarrixetarako tortillieri bueltie emonda, kontrako itxurie emon biherrien. Gogue ta borondatie bida baina, eta antza, entramaue ikusite, hori karuaue da. Indira Gandhik esaten zeuen lez, eskumutur zarratuarekin ezin baita eskurik emon.

Proiektu bat edo beste, baina lurraldetasunetik abiatatuko prozesu serio bat. Euskal komunitatearen, E.A.E, Nafarroa eta Iparraldearen onarpenetik. Gizarte plurala bai baina, euskal lurren onespentetik, tokian tokiko soluxiñoarekin.

Portzierto, ezan txarto egongo ejenpluegaz aldarrikatuko bagiñun euskal herri euskaldune. Ixe ixte independentzixe bera baino gatxaue ikusten doan arren beraru. Zetako gure dogu beste herri baten ohiturapien –hizkuntza etab.– biziko garen herrixe? Gaeliko bako Eire edo euskara bako Euskal Herrixe? Bizitza eraiki gura dogu, ez museo bat! Ta esan dziela nik eiten dodan hau eztala euskera ona gure badabie, dana mezkletan dodala, baina kalien gauz ta aitzen gara ez? Ba bardin einbigu herri osuegaz!!

"... nor da gogoan daukazuna nor da? Lo aurreko zure instanteen jabe nor da? Bihotzean daramazuna nor da? Zure begietan gorderik nor da?..."

-Gure lana, gu danona, plazie osotzen dogunona, Euskal Herri garaikide baterako bide onena independentziarena dala begi-bistaratzie da. Horretarako barrankuen behera harri batek baino buelta geixau emon biher badogu be. Gerora, herri bedeinkatu honetaz zer izengo dan diskuziño nahikue izango dan arren, edozein erabaki, geure eskuetatik, gizabanakakoaren eskutik, bakoitzaren hitzetik paseuko danaren garantixe isladatzie. Benetako sozialismorako bidie! Ta gogoratu bide horretan, bakotzak eindakuen, esakera ruso batek esaten zeban lez, jaustie onartute dauela, baina altxetie derrigorrezkue dala.

Gure bizimodu, inok aurretik ibili bako bide bana da. Irabazteko dekogunaren jabe zarie? Konziente zarie? Konziente diez? Merezi dau amets honi forma emoten segidutie?

"... batzuetan apurtzen naiz, 11.000 zatitan, banaka gordetzen ditut leku ezkutu batean, inork ez ditzan aurkitu, hitz politen artean, batzutan zurea bainaiz, haizearena bestetan..."

Ostia! Utzidazu zure isiltasunarekin isiltzen. Amets urakan hauek digeritzen.

Uff! Beldurrak, berezko inertzia horrek, horren mistika boteretsua de-
nez, beste mistika guztiak birsortzen dizkit. Ez dakit, batzuetan beldurrez
ere janzen garelako izango da, baina, dohaina beldur gabe ez omen da
eraginkorra eta, honek, koskabiloak zimurtu baina sua ernetzen dit.

Bozgorailuetatik:

"... gure hitzak esan berriz esan, ez daitezela isil, ez daitezela gal,
elur gainean txori hanka arinek utzitako arrasto soil ederrak
bezalaxe,..."

Joan nadin, beletarena egin beharrean momentu betegarriagoen zain,
doinu honekin plazatik aldentzen.

–**Hunkitu aurpegiarekin eta abesten zoaz Mario?! (Erlantz, gutxitan gauden
Gernikaldeko lagun on bat)**

–Hori ba, nola ez. Borborka ditut sentimenduak, eta hori ni ez naizela ekintza
publikoetan aztoratzekoa. Baina hiri gorri bat badela ikusi dut. Sopa zaldia
eman, ideologiak hil eta arimak bahitu arren, bada, baita etorkizun faltan ere,
zein militantziak denari bai esatera behartu gabe, nora so egin. Bada
abertzaletasunaren amaraun ahularen kontra bihotza nola suspertu! Bada
zerua, lakuan itotzen den errekarerekin bat egiterik. Bada etorkizunik.
Esperantzarik. Bada herririk. Bada hitz baten esanda, ia utopia bat den ilusio
honi, irudikatu ez ezik, errealitatearen egiaz forma ematen jarraitzerik.
Zerbait gehiago? Ordaindu beharreko prezioan gainera, gauza handiagorik?!

"... ni naiz, erreka zikinen, iturri garbiak, aurkitu nahi dituen poeta tristea.

Ni naiz, beste asko bezala, neguko eguzkitan, hotzez hiltzen dagoen gizon bakartia.

Ni naiz, hostorik gabe gelditzen ari den ardazka lehorra.

Ni naiz, pasio zahar guztiak kiskali nahi dituen bihotz iheskorra.

Ni naiz, borrokaren erdian ilunpetan etsita amore ematen duen pizti beldurtia.

Ni naiz, ezerezetik ihes munduaren erdian, ezin aurkitutako amets urrutia.

Ni naiz, irribarre bakoitzean gaztetasun hondarrak galtzen dituen.

Ni naiz, itsasoko haizeak gogor astintzen duen lainoen negarra.

Ez zaidazu galdetu, gauza ilun guztien, arrazoi gordea, nora ote dihoan denbora aldakorrak daraman bidea..."

Mario plazan

Badakit zein den egien ta gezurren kalea.
Badakit zein den zuritik beltzerako aldea.

Eta esanak esan edo izanak izan
ez dago jarraitzea bezalakorik.
Injustizi justuen labankaden gainerik
ez dago geu garena bezalakorik.


Gure etxea gurea da baina denak iritzi bila.
Hemen ez dugu aukarik josiko kanpokoan harira.

Beraz kontuak kontu edo usteak uste
ez dago izatea bezalakorik.
Injustizi justuen labanikaden gainerik
ez dago geu garena bezalakorik.

Alperrik da hitzez jostea
zauri zaharren plaza betea
baina altxa daigun ahotsa
gorputza ez bada bihotza
gorputzean dago bihotza!

Joko zikina atzean
egi gordinen aurrean
ta zenbat noraezean?
Iparrik gabe aldean!
Ba nik badaukat bat nirean!

*"Ez abaztu Mario, kamaleoia zara; Mario kamaleoia. Norberarena
besteenekin uztartuz zarena izatera heltzen dena. Zu ez zara aldatzen,
zu aldakorra zara. Haritik tiraka, hariari zentzua hartu nahi diona"*



Mario Haizearen Orrazian


"... que las estrellas no se olviden en salir. Que el sol no sea una estufa de butano. Que la guerra no me sea indiferente. Que el dolor no me sea indiferente. Que la resaca y fría muerte no me encuentre vacío y solo sin haber hecho lo suficiente. Que lo injusto no me sea indiferente. Que el futuro no me sea indiferente. Que no me sean indiferentes los amigos, el pueblo, la familia, los lugares,... en estos tiempos en que hasta los pájaros visitan al psiquiatra, a los jóvenes les da por perseguir y las niñas no quieren ser princesas, solo le pido a..."

A mi. Neuri, ez baitu bestela balio. Ia ezertarako balio. Leku honetan egotea bezalakoa da. Harago naraman indar magnetiko bat dauka monolito honen aurrean egoteak. Magia berezia dauka bai, puntu estrategiko honek, mausoleo propio honek, neu haraino joan ezean kasik alferrikakoa dena ordea.

Igo nadin ba zure mendira, nire gailurretik gora. Zuen presentzi ezak ikusmuga azpi-jaten baitu, bihotzak olatuak bezala utziz, ihesean etengabe!

"... ai, ai, ai, ai,.. aiaiaiiii... que cuando elevas el vuelo, el que no aletea se cae primero..."

Noiz utzi nion izarrei izena jartzeari? Ipurtargiak begiratzeari? Ume izateari?! Ibilaldietako autobusetako ilusio birjinei men egiteari? Bisitetan zirrartzeari? Amesteari?! Traidoreen errautsen gainean umilen aberria eraikitzeari? Behar izanetatik eskubideak sortzeari? Borrokatzeari?! Taldeko beste heroi bat izateari? Bolivar? Zapata? Atahualpa?... Sandino, Lorca, Machado, Neruda, Lenin, Pantxo Villa?... Evita, Marcos, Cooke, Benedetti, Luther King?... Camilo, Mao, Malcom X, Marx, Tupac Amaru?... Walsh, Martí, Mandela, Che, Txita, Gogor?...



"... ai, ai, ai, ai,.. aiaiaiiii... que estando en la cuerda floja, no consigue nada el que no se moja... »

Noiz utzi nion begiokin hodeiertzak deskubritzeari? Munduari kuku egi-teari?! Sorterriko motxilarekin hemen zein han bidaiatzeari? Bizitzarekin lar-rua jotzeari?! Notak lurrean erein bitartean zuhaitz puntetan kantatzeari? Haizearen orrazi izateari?! Zirrikitu zabaleko orratz?! Buruko lez bihotza-rekin oheratzeari ta egunsentiz, bart gauean zerura lotu zituzten ontziak as-katzeari? Zorion beteenari?! Ibai, mendi, arroka,... muga bako izateari?

"... todas respuestas inundan mi jardín, y no hay guerrero que descanse en mi, no hay luna de agosto ni lluvia abril, que no haya dormido antes en mi..."

–Zer gertatzen zaio munduari “Che”? Ta Euskal Herriari “Jon”? Pertsoneti espresuki? Neuri adibidez? Zerk bahitzen du ilusia?

“Jon”: Etorkizuna norberaren eskuetatik pasatzen ez dela pentsatzeak akaso Mario? Gurpilean sartu eta sinesteak gainera? Beste barik bakoitza berarekin bizitzeak kontsekuenteak izan beharraren karga barik? Inorekin ezertan ikustekorik ez izateak? Kuriositate ezak?

Jada ez nago zuekin baina seguruenik hortik doaz tiroak ezta? Neurri batean errazena eta logikoena da. Izan ere, norbait hermafrodita bada hori historia da eta, etengabe birsortzen du kaka.

Nabari denez, urak oraindik ortozik dabilta kale busti horietatik, zuhaitzetako orriak, gaixoen gisan kexatzen jarraitzen duten bitartean. Baina hori betikoa da Mario, ez pentsa beste mundu baten zaudela, garai ezberdinak diren arren arazoak iturri berdinek eratorriak baitira. Jainkoak hiltzen diren arren amabirjina beti dago haurdun!

Madrilen areagotu eta lekutuko zen, dorre bikietan lehertutako gerra mundial berriaz geroztik, eta halaber, manipulaturako komunikabideen minbiziz, hitzak ajatu eta posturak tintatu dira. Egunkariak berriz dira ideien kanposantu. Eta gugana, egunkari saltzailea bera ere ezin da etorri jada! Etorkizunari ilusio zahar baina extrategia berriekin aurre egin beharrean gaude. Begi berriekin begiratu beharrean, errekak ur berriak dakartzaten eran, leku beretan 'purifikatzen' direlako beti.

Ez pentsa gaur dena eurek egin edo suntsitzen dutenek, etorkizunerako guri sarbiderik uzteko duintasunik erakutsiko dutenik. Txakur izatera heldu eta txakur izatea zer den ulertu duenak, txakurrago izan nahi! Zenbat eta bihotz txikiagoa izan orduan eta gorrotoz beteagoa baita. Bihotz onekoak ordea, bihotzekoaz hiltzera emanagoak gara. Nik diodan lez; "Xalbador"ak gara!

Ikusten duzunez, erantzunak ez daude zugarik bakarrik, zuk bilatu behar dituzu ordea.

–Bai noski, aberaskiluen mundu honetan sentimenduak baino radiotaxi gehiago dagoela badakit. Baita sentipenetatik kanposantuak sortzeko besteko bihotz gaiztoak daudela. Hilak errentabilizatzeko besterainoko gaixotuak! Rousseauk

berak aspaldi zioen lez, ezberdinen artean ordezkaritza printzipioak ezinezkoak direla ere. Kateatuta jarraitzen dut ordea!

–Kateatuta nahi gaituztelako aske garelakoan. Umeari karamelu bat emanda bezala. Hori da jokoa eta hori da txarrena, hau horrela izatea demokrazia ordezkagarria deritzotenaren hastapenetatik. Gezurrezko demokrazia honetatik. Plazebo honetatik!

Kode politikoez haragoko galdera bat egingo dizut; ia: edozein momentutan lana edo komunitatea oro har, galdu ahal dituzunaren sentsazioa gailentzen bada arrazoi ekonomiko zein teknologikoetatik adibidez, non geratzen da demokrazia? Non daude Argentinako putxerazoaren diruak adibidez? Buenos Aireseko leku husteak?

Hori da globalizazioa. Klase borroka herri arteko borroka bihurtu du inperialismoak, estatu mertzenarioak sortuz, eta honen barnean hau gutxi balitz, administrazio okerreko dogmapean pribatizazioak sortuz. Izugarritzko irabaziak sortzen dituzten Repsol bezalako monopolio pribatuak. Aldizko estatuei beraiei ere, arauak jartzeko besteko indarra duten demokraziaz mozorrotutako globalizazio jantziak. Txano-gorritxorena egiten duten otsoak! Ea: aberatsen segmentuen jukutriak, non gehienak itsu itsuan gozokia txupatzen otordutik kanpo geratzen diren, behar dena, inkomunikatzeraino.

Ez dut inon hezur zaharrik egin nahi baina, onez gatozenon bizkar, zilbotak mahai gainean lasai jarri eta txufeatzen ari dira etengabeen.

"... tenemos la obligación con nosotros mismos, de devolver la vida, la vida que esta robando esa maldita maquina que administra dolor y sufrimiento; se llama capitalismo..."

–Ta errezetarik ez al dago? Tokian tokiko edo gu ere geure artean batu behar al gara ba? Zure esperantzaren uztairako bidea erakutsi iezadazu, nire geziak sukar ametsez aska ditzadan.

–Errezetarik? Lehenengoz, jakinduriarik zuhurrenak proposatu lez, onena igurika eta txarrenerako prestatzea.

Bateratzerik? Momentuz, tokian tokiko eta batzen bagoaz hobeto! Estatu batuetara begira utzi nuen globalizazio inperialistatik aldentuko gaituen kontzientzia askatzaile eta independentista baten oinarrien alde.

Horretarako denak berdinak izan behar gara ordea, eta ez dago errez. Benetako filosofia demokratiko baten bila, partidu politikoek zismatik aldentzea ia pentsaezina da gaur egun. Ta hori Washingtonek berak, Estatu Batuak 20 urtez gobernatu ostean ohartarazi zuela, partidu politikoak korrupzioaren iturri direla.

Momentuz, askotan eta nahi ez beste izen ezberdinekin erre arren, arriskutik libratu den H.Bz kanpo, zurikeri interesatua da edonon nagusi. Hargatik defenditu dut nik beti langileen esparrutik, sigla batzuk baino haragoko ezker abertzalea deritzoguna. Partidu batetik haragoko identitate zeinua, kubatar askok P.R.Cgaz egin bezala iraultza ostean. Hargatik nintzen sozialista bizi nintzenezan, eta bizi ostean ere, hori delako egiatzko

demokrazia baten ideia gauzatuena. Herria auto gobernatzen!
Independentzia eta sozialismoa! Herriak auto gobernatzen, eta zergatik ez,
Bolivarianismoak jorratu bidetik, justizia arrazoidun baten independentzia
osoaren ideiapean bateratu arte. Asko esatea da ezta correccaminos?
Etxetik hasi beharko gara ba!

"... A Chico Méndez lo mataron, era un defensor y un ángel, de toda la Amazonia. El murió a sangre fría, lo sabía Collor de Melo y también la policía. Cuando los ángeles lloran, lluvia cae sobre la aldea, lluvia sobre el campanario, pues alguien murió. Un ángel cayó, un ángel murió, un ángel se fue, y no volverá..."

–Bai Jon bai. Gogoratzen dut Santa Klaran, mausoleoan, 'Che'k ere antzera hitz egin zidala, demokraziaren izaeraz eta, Rosariokoa bazen ere, etxetzat zuen Kuba maitetik eredia ematen hasi beharraz. Ametsak egi bihurtzeko baldintza gertuenetatik, Gramara igotzeaz bat demostratu zuten bezala.

Gizajoa, izkina bakoitzean injustizia erauzi aldera, giza arrazonomenduaren borroka demokratikoa bermatuko duen giza itunaren bila akatu zuten baina! Horren ohiko duten zurezko trajea jantzi enbarazu egiten dutenei, eta beste zeregintxu bat gutxiago.

Gure semeei utzi diezazkiekegun bi ondareak gurekin dira ordea: sustriak eta hegoak. Zergatik izango ote da bestela, etengabe jaiotzen jarraitzeko ohitura arriskutsu hori duela "Che"k? Zenbat eta gehiago iraindu, traizionatu edo manipulatu, oraindik gehiagotan jaiotzekoa? Che da denetan gehien jaiotzen

dena. Sustraiak eta hegoak uztearen arrazoia, ez da izango pentsatzen zuena esan, eta zioena egiten zuela? Ez da izango horregatik dela horren aparta, esanak eta izanak elkartzea horren arraroa den mundu honetan, eta bat egiten dutenean, elkar ezagutzen ez dutelako agurtzen ez direnean?

Ba ez dakit sustraietatik edo hegoetatik mintzatu zitzaidan, edo bietatik noski, kontu kontari hasi zitzaidanean.

Zioen Chek zure toki beretik: benetako giza eredu, lehentasun taularen erdian gizakia jartzen duena da, ez merkatua edo kapitala neoliberalismoak egiten duen lez mundu gehienez. Konkretuki, iraultza sozialista geratzeko jaio zen sozialdemokrazia geroztik. Hori zen helburu gorena, behin bloke sobietarra desmantelatu, 'gera hotza' deitutakoaren ostean, berdintasuna, krisiak jota uztea lortu dutena hain zuzen, izan ere, gaur egun, nagoen lekutik oraindik, horrela dakusat Blair, Schorodér zein garaian dagokionarekin dena; zatikatua. Jaio aurretik hilda behar lukeen taktiketara lotutako gizartea. Edo zuek inguruan dituzuen frantses horiek bezala, pixka bat moztu eta beste bidezidor batzuen bila alderrai dabiltzanak. Centro, centro izquierda, centro derecha, orain bai, orain ez, zurekin bai, zurekin ez,... espainiarrak nora ezaren kasuko.

Eskerrak nire latinoamerika, guzti horiek pairatu eta aurpegi berrien premiaz bueltan datorren. Eskerrak Brasil, Bolivia, Uruguay, Nicaragua, Ekuador, Venezuela,... altxatzen hasi diren. Bakoitzak berean, lurra eta pertsona subjektutzat hartu ta berbideratzen hasi diren. Ia Kubak pairatutako diskriminaziorik bizi beharrik ez duten, beronen kapitalismoaren kontrako 40 urtetako borroka, eredu nahi bada ez, baina, adibide bezala hartuz, eta

kudeaketa dagoeneko zail baina zuzen batekin, justu batekin, nahi dugun bezala bizitzera heltzen garen. Mugen mugetatik zein kontraren kontra, zorientasun berdintsua laztantzera heltzen garen!

Bakea ez da existitzen eta, tablak, xakean baino ez. Denok irabazten irteteko, justizia eta berdintasuna landatu behar ditugu.

Sozialismoa edo basakeria baino ez zaizkigu geratzen beraz, badirelako osasuna edo hezkuntza bezalako oinarriak, merkatu librearen esku utzi ezin litezkeenak, ezberdintasunak areagotu baino ez lituzketelako egingo.

Osasun-zerbitzuak zein interes ekonomiko, kultural, edo hezigarriak kapitalaren aurretik jartzen duen markoa behar dugu. Ez al du ba denborak beti eta, mundu osoan demostratu, hierarkia orotan, pertsona bakoitzak bere inkompetentzia mailara igo eta bertan irauten duela? Igo duen 'dohain' berak lupetzetan ito dezakeela jakin arren ase ezina dela? Ez al da horren adibide historian eman diren kolonizazio lotsagarriak eta esan ahal bada, lotsagarriagoak deskolonizazioak? Afrika,'Sub-Amerika', zuen E.H... lurralde artifizial zatikatuak hizkuntza hezkuntza etnikoen truk! Horrela deitzen diote ber kolonizazioei 'integratio nazionala' egun. Genozidioari 'aurrerapen sozioekonomikoa' ta herri erresistentziari 'terrorismoa'.

Zintzoak izatera konbokatzen zaituztet, tiranoengan hustu eta, muga gabe maitatu zein gorrotatzera. Askatzera! Hitzordu hontara hitz emandako guztiak badatoz, zentzuak, iraultza indarrez hartuko duelako betirako, eta ez hurrengo baten gehiago izango garen arrazoi arduratuagatik, bestela lurraren hiletara zitatuak gaudelako baizik. Lasai, bizitza berez da joko

galgarriena, ez da inor irabazle irteten. Definitu edo definitua izatean dago kontua, eguzki eta ilargiak baitira birjaiotzen diren bakarrak.

Proiektu giza demokratiko bat eraiki ta defenditzera gonbidatzen zaituztet. Planetaren bitzta merkatu librearen esku uztea ardura etiko eza dela irizten diona; mundu injustu baterako bermea. Arrazoa gailendu behar zaio interes berekoiei, besteen kontura dirupuztu eta multinazional zein sektore handien bitartez lurraren politika zuzentzen dutenei. Bitzta bizi nahi dugunaren zirriborro izango da beti, bildu gaitezen ba gure askatasunaren eratzunean!

Begira Mario, argiago esango dizut: inbasoreak, 'indio' izenez bataiatu zituen suaren inguruan batera amets egiteko elkartzen zirenak. Ehunka urtetan saiatu dira su hori itzaltzen. Ametsak lapurtzen. Lortzear daudela sinetsi ere, baina ameslariak, txispa mantentzen jakin izan dute, generazio berriek sua berriz pizteko aukera izan dezaten. "Somos excluidos por decreto neoliberal. Somos rebeldes por decreto de la dignidad humana" esaten genuen guk mateaz eskuan txingarren bueltan.

Lurra eta izakiaren gudari gara, eta erraldoi bat ikusten duzunean, ongi aztertu eguzkiaren posizioa, balitekeelako ipotx baten itzala izatea. Ez dezagun arerioa goratu, ezta erru guztiak leporatu. Ez dezagun geldiezin bihurtu.

Nazionalista erreakzionarioek aberriaren ikuspegi xenofoboa daukate, mugetara bakarrik mugatzen dena, herria eta aberria bananduz, aberriaren esentzia herria izango ez balitz bezala. Gu nazionalista iraultzaileak gara, 'zurdo de ideas' guajiroei esaten nien moduan, eta kontzeptu hori da

indartu behar duzuen, eta ez gure hilobien aurrean negar egiteko, pozarren, seme-alaben sehasken aurrean baino.

Hegan egin nahi dugu, ez askatasunari kanta txori kaiolatuak lez!

"... bapatean, lehertu ziren gauzak, koloreak, irrintziak arnasak, herrietan askatasun festak, solasean, mutil eta neskek, guztiak lehertu arte..."

–Zelan mintzatu zitzaidan e! Hogeitona brontze ta zazpi metroko garaiera duen Santa Klarako bere monolitoak ere ezin diezaiokete itzalik egin.

Argi dago hemen bakoitzak bere jainkoak dituela. Bere elikadura orbitak. Eta jainkoz ari naizen honetan gogoratzen dut jainkotzat lurra izan behar genuela zioen norbait ere, eta gezurra ez dela konturatzen hasita nago, mundua hankaz gora dagoela uste izanaz batera. Gu lurrera egokitu beharrean, mundua ekarri dugulako geureetara. Ez da gezurra lurra hiltzen gabiltzala badiot. Jainkoa hiltzen. Eguzkiak ernaltzen duen patxamama deusezten, berezko gatazkez kanpo, mugaz gaindik, geure kontra doazen bizimodu arinago baten bizio txarrak hartuz. Politika txarrak onduz: transgenikoak landatzeen truk... bitzta osoko hipotekadun etxebizitzak aberaste sistematiko arin honi aurre egingo liokeen eskubide orekatuen truk... petrolioaren lelopeko gerrak politika ekologikoagoen truk...

Erruak, gerora, denongan banatzen dituzte gainera; ur, jaki, arropa, eta abarren gaineko sentsibilizazio kanpainak eginez, arazoak erabaki orga-

noetan konpondu beharrean. Lehengo antikapitalistak ere, itsu itsuan, deskapitalista izateaz konforme uzten!

Hau da politika! Botoa bereganatu gero nahi dutena egiteko. Poker partida batean baleude bezala. Elizgizonen antza dute, salbuespenak salbu, denean bezala, edozein estalpetan kristoak sortzen boterearen bilako karreran. Eraginkorra den beldurra, arma printzipaltzat hartu eta zigorrak kendu zein ezartzen, xede bakarra den boterean dantza egiteko!

"los obispos no leen el evangelio desde la porciúncula de Asís, sino desde la sede de el poder".

Etxondoposo elizpean idatzitako hura, hura bai egia hauena. "Irabaziak baino ez du balio" esango luke bestela Chomskyk beretik.

Jaungoikoaren nagusi hauek ez dute komeni ez denik gaitzetsiko, ezta komeni bada, putreak bezala, begiak ateratzeko aukerarik galduko. Euren liburu sakratuarekin gure lurretara etorri ziren begiak itxi eta otoitz egiteko eskatuz, eta zabaldu genituenerako biblia triste berarekin utzi gintuzten beraien lurretan jada.

Hauek ez dute argirik piztu ezin dutenetaz ahazteaz bat, berekoikeriaren argia pizteagatik barkamenik eskatuko. Bestelakorik aldarrikatu arren. Gizona ogiz bakarrik ez dela bizi esango dute, baina ez dute bakoitzak bere ogia izan dezan, duten guztiarekin borrokatuko. Ezta gutxiagorik ere, jainkoarren! 'Bidalitako' hauek ez dute gose grebarik egingo, grebetarako

ogi bakoek aukerarik ere ez duten arren, inork ezin baitu bere gosearen greba egin. Hauek ez dira 'Che', nortzuk arimaren soldatarekin ere elikatzen dituzten bihotzak!

Baina zer diot, zertan egongo ote nintzen pentsatzen?

Utzi dezadan mendi gailurretako gutunontzietan lez, nire notatxoa bertan, gaurko bereziki ekarritako pergamino eder hau, lazo gorrian bildua, eta noan abesten, hurrengoak irakurri eta kantu berarekin bide beretik joko duelakoan.

Mundua ulertzeko
bada zenbait modu,
mundu hontan badira
dozena bat mundu
botereak errurik
nagusiena du
gizarteak gizondu
ezin bagaitu gu
gizartea pertsonok
egin behar dugu

Zer da kultura eta
zer errespetua?
Belo batez urkatu
daitekeen paktua,
arma nuklear baten
azpiko jokua
aginteaz doana
eskutik hartua,
arimak ereiteko
bezain sakratua!

Zenbat Ruanda edo
zenbat Afganistan?
Ia nor izaten den
hurrengoan listan,
heriotzek landatzen
jabegoaz bistan
ta nahiz ta makilatu
dena telebistan
beti gabiltza mundu
txarragoen pistan.

Gosearekin nahiko
ez genuen antza!
Nori axola zaio
tripa hutsen dantza?
Mundu erdia dagon
amildegi baltza?
Limosna puta batek
ahal duena altxa
baina 'bizitza kontu
seriotan datza'.

Odol gorria odol
beltzagoz zuritzen
'petrolio'ak ez du
besterik mugitzen,
ta ez denez platerik
hotzean zerbitzen
jarraitu behar dugu
dorreetan hiltzen
ez baditugu hankak
lurrean ipintzen.

Bost kontinenteetan
dagoen problema
gosea, ura edo
gaixotasunena,
parentesi artean
esateko dena,
yankiak maskotetan
gastatzen dutena;
'txute' umiltasun batek
Konpon dezakeena.

Satanas Luzifer ta
Beltzebuz aparte
europarrak beraien
errua daukate,
sozialdemokrazia
ezberdinen ate,
neoliberalismo
txatxuen aterpe,
beti gure esku ez dauden
egoeren menpe.

Pisuak zerutik ta
lurrak erein gabe
molde transgenikoen
garaietan gaude,
'tragau' ditugun behi ta
oilaskoen pare,
autodestruksiorantz
goaz, hala ere
'muu' ta 'koo' esateko
baimenduta zaude.

Zer da ezkerreko ta
Zer da eskumako?
Zer da demokrazia?
Hau, esaterako?
Indar gabe edozein
aldaketarako!
Kapitala edozein
sistemaren jainko!
Aberriak eraikiz
herri faltarako?!

Norbaitek telebistan
zioen moduan
izan dena kontatu
dizuet orduan:
etorkizuna uzten dut
gazteen eskuan,
bihotz gorriko "Che"ren
munduen munduan,
bizi ezin bada behintzat
ametsen zeruan.

–Halabeharrez, erreferentzia bat bagaren aldetik, nik benetako egiak nahi ditut.

Zinez galdetuko nieke munduko gosearekin bukatzeko Ipar amerikarrak maskotentzako janaritan gastatzen dutenarekin nahikoa den! Ur eza ote den munduko bigarren heriotza kausa, edo beste era batera esanda, mundu osoak ura izatea, europarrak urte betean kosmetikoetan gastatzen dutenaz konpon daitekeen!

4 segunduro bat hiltzen den?! HIESAK jota 40 miloi dauden?! 500.000 diren berarekin jaiotako haurrak?! Egunero 28.000 diren gosez hiltzen direnak, eta 824 miloi ote diren desnutrizioagatik hilzorian daudenak?! Egunero 1.200 lagun diren bere buruaz beste egiten dutenak, hogeitik batek baino lortzen omen ez duelako gainera?!

Egia ote den lur bedeinkatu honetan 630 milioi txiro daudela?! Egia ote den mandatari nagusiek, legez gaindik dauden boteretsuenek, super poblazioaz bukatzea dutela helburu! Helburu nazia, helburua, pobreziaaren atalase azpitik dauden gehiengoaz lotsagabeki bukatzea baita. Kapitalismoari arazoak ekarri liezazkion zantzuak ezabatzea.

Gure gerra beraiek aukeratu duten bakea baino ez da, ondorio justua delako.

"... nos estáis obligando a sentir cada vez mas odio..."

–Baina galdera hauek guztiak ez ditut hemen bezala egingo Txita, zuok ‘Che’ak egiten zenuten bezala egingo dut; aurpegira formulatu. Aurrez aurre esan. Ahal deneraino heldu. Identitatea, bitrinan geldi izateko museo-ko pieza bat ez dela erakutsi didazuelako, gure eguneroko kontradikzioen sintesi harrigarria baino! Nik liderrak behar baititut, sinesmen iheskorak gerturatzen dizkידatenak! Ez politikoak ez politika, politika egin ezean politikak egingo zaituela jakin arren. Hau da –gure– egin nahi dudana nire politika.

“Vamos a recoger la memoria del fuego para que el eco del viento de su espíritu alimente nuestra lucha contra nuevos rodajes de la vieja dominación” esango lukete ‘Che’ren seme-alabek.

Ez dut funtsezko egia bat bera ere ezeztatu nahi! Abokatuen egia! Ez Bergarako besarkada ez tipula malkorik! Barrez ezer konpondu ezta negarrez ezer deusezterik! Barruko mugarik! Ez zerurik ez baineran lorerik! Sasi artean kotoizko lorerik ereiterik! Bihotza izozgailuan uzterik!

Ez dut eguzkia, nire bihotza bezain gorri eta handi bada ere, lakuan ezkutatzerik nahi! Lur desertuko azken arrosa izaterik! Itsasotik lur faroa bilatu ezinik dabilen marinela lez hil-hurrentzerik!

“... bukaera da, bukaera aurrez aurretik da, arratsalde euritsua kamaleoientzat...”

Zure hiletako loreak batu ditut eta zulo bat eginez zure etxerako bidean lurperatu, etxeratzen direnak ikus ditzazun eta familia bisitatzea errazago egin. Egunen baten izango duzulako hegan egiteko gogoa, milpen artean hegaldatu edo lorez lore argia bilatzekoa. Zuk ikusi nahi zenuen mundua ikustean noski. Lasai, kanta bera kanta beharrik ez denean, ezta zapalduen olerkirik egin. Orduan, egingo dugu berriz bat, elkarri 'ongi etorri gurera Che' diotsagunean.

Mario Haizearen Orrazian

Batek bia dakar denak isilik
zentzuak ez dauka non obaturik
ikusten ez duten begien lema
norbere erruen islada dena

Betiko leloa, betiko martxa
dama beltzak beti egiten du dantza.
Zenbat erru bako? Zenbat errudun?
Eta beste zenbat izango dugun?

Zenbat txori hiltzen gari artean?
Zikoizkeri eta boterepean.
Arauen gaineko joko legala
dominoko fitxak baino ez gara

Non da Bolibarren pentsamendua?
Non da Che? Non Chico? Non da mundua?
Non Kristo guztien sakramentua?
Mekaguen gu eta gure kantua!

Non da Bolibarren pentsamendua?
Non da Jon? Non Gogor? Non da mundua?
Non kristo guztien sakramentua?
Mekaguen gu eta gure kantua!

Bestela zer? Zer da ezer? Ta zer da zezer?
Zer da dena? Zer ez dena? Zer poza? Zer pena?
Zer mingotsa? Zer bihotza? Zer bero? Zer hotza?
Gureak egin du? Gogor heldu! Ze ostia gara gu?!

*"Ez ahaztu Mario, kamaleoia zara; Mario kamaleoia. Norberarena
besteekin uztartuz zarena izatera heltzen dena. Zu ez zara aldatzen,
zu aldakorra zara. Haritik tiraka, hariari zentzua hartu nahi diona"*

Mario koadrilan

MINIKATEA: "... gerra gogoa, lagunek ta rock and rola, San Dios, kortako, gure beixek horman gora..."

Ez dago larunbatez pilotan joan eta momentu on gehiagoren esperoan dutxa bat hartzea bezalakorik. Koadrilakoak elkartu ohi garen Herriko tabernarantz abiatu aurretik, umorea bere lekuan jartzen dizun melodia batekin bustitzea bezalakorik. Nekatu ostean, berriz ere gustuz nekatzeko, testuinguruak eskatzen duen eran, lasaitasun tarte bat hartzea bezalakorik. Unea gustuz janzteko baldintzak adinakorik.

"... une etengabeak, une etengabeak..."

Prebioak bezalakorik. Ohartu naiz ia-ia neu konturatu gabe, zeure mar-txan, abiadura pausatuan, imajinazioaz jokatzen dugulako edo, aurretikoen zalea naizela. Aldez aurreko sorginkeria pilotan, saskibaloian, futbole-an, errugbian,... beno, rugbya apartekoa da, ostekoagatik ere, hirugarren den-borengatik, ezberdina izatera heldu litekeen bakarra baita. Noski, guri to-katu zitzaigun garaia medio, guk ere meritu zatia izango dugu, familia-koa-drila berezi bat sortzen asmatu genuelako Arratiko zekorretan. Egia da

ordea, bat batekoak hartzen diola gaina edozeri gero. Adrenalina gailentzen zaiola beste edozein ongi izateri.

Jokatzeko prestatzen beraz, bateko edo besteko, jokoak beti egon behar duelako. Bukaerak berriz, beti egongo dira aurrekoak baldintzatuak, eta gaur ere, auskalo non, nola eta norekin bukatuko dudan. Ondo, gaizki edo horrenbestean, baina jakin dezadan behintzat, litekeena dela hauek izatea eguneko momenturik onenak. Ez dago unea ureztatzea bezalakorik; goseaz jan, egarriaz edan, loguraz lo egin, kakalarriaz kaka zein txiza gureaz txiza botatzea bezalakorik. 'Atxis' bat adinakorik.

"... bizitzak emandako pase txiki hauengatik ez balitz..."

Batzuetan lan karga bilakatzen zaizkidan bizarra moztea bezalako egin behar txikiekin bukatu dezadan irten orduko. Zerbait jan eta abiatu nadin abiapunturantz; despege pistarantz; herriko tabernarantz; koadrilarengana. Aspaldiko konplizeengana.

Aldatzea da berez tokatzen zaiguna, are gehiago, parentesian esanda, diseinuak horrela aginduta, 30 urtetik aurrera. Jendea 'hanburgesatzen' hasten den hortan. Ez baita ez gezurra ez kasualitatea, adin horietan direla burujateak normalagoak 'aurrerantz' joan zein ez. Aldaketez gain, beste hari batzuen funditzeak urguritzen ta aztoratzen nau ordea. Giro krispatua ez dakarte aldaketek, talde baten barruko hari mozteek baino. Ez al dira ba betirakoak existitzen?

Utzi ditzagun ba bizi teatroak, bizitza zirko bat den arren ez garelako gu pailazoarena egiteko bakarrik elkartzen. Hari mozteen ondoreneko us-tezko konplizitateek ez dute lekurik. Losa bat dira, arropa bustiekin ibiltzealako. Ilusioa berreskuratzeko zatiketei erreparatu beharko zaie. Koadrila egitea lortu zuten baldintzei. Interes partikularren gaineko talde lanari. Bandera gorentzat errespetua daramaten erregistroei.

Bonbillak merezi duela uste badugu ahalegintxua egin beharko da, baterako zein besterako hariak sendotzera jolastuz, zelai markatutan ibiltzea ez baita inoren gogoko, ez behintzat nire gustuko norbera lasai egon litekeen arren. Ilusio berdinez noa enkontrura beraz, joatekotan joan behar delako, ahal dela inoren bizkar hitz egin edo informazio, ezinbestean baldintzatuak maneiatzen ibili beharrean.

"... nondik zatoz? Nora zoaz? Zer da hau? Norena da hori? Nekatua nago..."

Ez nadila ni akats horretan erori, bere mihia haginkatuta pozoinduko liretekeenak jadanik ez direlako gutxi. Izan gaitezak ausartak! Konfiantza bai edo konfiantza ez. That is the question, plaza, komunean konpartitu nahi bada behintzat. Zain egongo dira Ekain, Xabi, Piru, Martxelo, Jonmi, Donibane, Alain, Txiki,... gustura hartuko dut lehenengo kafea, dagokion porrotxuaz bat, ta gero, gerokoak.

HERRIKO: "... isilik inola ez hobe da abestu, eta gure musikaz mundu zaharra deuseztu, gitarra bateria ta saxoa prestu, hau maite ez duenak bizitzerik ez du..."

Hau bai hau ongi etorri ederra.

–leupa! Pi-pa-pu-pa-pi-pa,... aupa Eire, ahal duzunean kafe huts bat mesedez.
Zuek?

–Trankil trankil Mario, neu nago errondan eta. (Alain)

–Ya era hora, que eres mas agarrado que un paso doble cabrón! (Martxelo)

–Calla calla saltapatras, que esto acaba de empezar. (Alain)

Joe zelan izorratzen nauen koadrilan erdararako dagoen joerak. Ni heldu aurretik ere horrela ibili dira, ta ni tarteko banintz baita neu ere, baina norbaitek berbideratu ezean erraztasun berdinez galduko gara! Jakinda gainera gero eta gutxiago egin orduan eta artifizialagoa dela! Zerbait ohitura kontua bada, hau da, ta are gehiago koadrilan, beraz joaten utziz gero,... ba hainbeste urtetako borroka gutxiesten egongo gara, bizi ditugun garaien estalpean geure tribuaren zeinu gorena borratzen goazen heinean.

Jadanik ez ditut gogoan koadrilan noiztik ez ditudan txatxamurke, samazarratue edo papaue moduko hitzak entzuten. Komaidios! Ta zenbat galduko diren?

Agerikoa da euskara egiten dugula, hala dirudi, ordea, ez da hala!

Ez dakit errua gehienbat norena den, baina gure begirada laburrari be-
rea egotzi beharko zaio. Trenbideko burdinak paralelo, zuzen, ikusten di-
tuen bista laburrari, urrutira, okertzen direla badakigulako. Gero arduratsu
batek orain arduratsu bat behar duelako, momentu orokoa, benetako hitzak
edo hitz pisutsuak beste bagoi batean bidali ordez. Kaleak gure trenak
gurutzatu ezean museo bilakatuko direlako karrikak! Gero eta E.H ardura-
gabeagoan hitz bako bokalak lez jarraituko dute eskolak eta Isabel izango
da “kutsidazu bidea” esaten bukatuko duena.

Ezin gara bizirautera kondenatu, gero eta lehorrago baitago baratza;
gero eta alferrikakoago fruitua; gero eta nekatuago jendea, hildakoak hil
ondorengo lehen ordutan lez.

–Zertan Mario? (Xabi)

–Ezer ez ezer ez, badakizu, porroaren paperari lez, buruari ezinbestean buelta
bat ematen. Eman ahala nire burua ere apur bat kiribiltzen uzten da ta.

–Estres estrarik ez hartu e!

–Ez ez, lasai, dirauena, buelta ta erdi bat. Estua gainera. Normalean, gainerako
denbora ezertan zuhur pentsatzen ematen dut! Bestelakorik eman dezakeen
arren.

**–Ba ni bai, ni estresatuta nago, ta gaur bertan nire buruaz beste egingo nuke,
astelehenean egin behar pila bat ez banu.** (Jonmi)

-Kar, kar, kar. Hartu egizu nire maritxutik apur bat zuk merezi duzu ta. Honek barregura emango dizu, momentuko zorientasuna, ta badakizu, barreak bizimodua luzatzen du.

-Gehiago oraindik? Kar, kar.

-Ikusten zenbat gustatzen zaigun umore beltza?! Zorientasunak ez gaitu politagoak egingo baina ze kontent uzten gaituen e?!

-Bai horixe, baita albokoak ere! (Donibane)

-Ba begira ze pozik denok! Preziatzekoa da zure ikuspuntua Don, erretzaileengan ere zerbait mirestekoa bada hain zuzen hori delako, tolerantzia, oraindik ez baitut erretzaile ez direnetaz kexatu den inor ezagutu. (Piru)

-Joe zeinen umore on ta arina daukagun e?! Gaur ere 'gabon' entseatzen etxeratu garen susmoa hartzen diot honi.

-Nik ere bai, baina ez aurrez Urtza, Katu ta Kili-kilitik ohiko erronda egin gabe. Pipatu eta atxurra harrapa arte. (Ekain)

-Noski ezetz Gargamel. Ezta Pink Panthertik ohiko eran kaleratu arte ere! Benga ba, eguzkia jada oheratu da ta ilargia zahar egin arte; txorta ke!
(Txiki)

BAFLEAK: "... geldirik ez egon, geldirik ez..."

Badirudi larunbatetan kaleak, tabernatik tabernara joateko jarriak direla, ta hor goaz gu, koadrilan, kaleei minutu erdiko balioa emanez, berauen espaloi ta espaloi ez direnen probetxua gogoratuz, hurrengora.

URTZA: "... te acuerdas de aquella noche en la cabaña del turmo, las risas que nos hacíamos antes todos juntos, ya no queda casi nadie de los de antes, y los que hay, han cambiado..."

Bai ba, ze gutxi dirauen betirako bizitzak. Gogoratzen dut nik ere auzoan 'txurro ba', 'inke', 'tiragomak' zein sugandilak disekatzena jokatzen genueneko. Baita 'beso, verdad o consecuencia'ra ere, proiektu txiki bezain haundien ondotik. Egun ez bezala, behar duen moduan, hura 'hip hip urra' konstante bat zen, bere negar zein irri birjinekin. Non izango dira Jose, Alicia?,... Lehenengo ematen zidatelako ematen nuen, gero eman ziezadaten, eman-dakoa jaso dezaten ondoren, ta azkenik ematearen plazer hutsagatik.

Iragana pasatzen ikusi zaituen kanario itsu bat da, are gehiago pentsamenduak sintonizatzea hainbeste kostatzen zaigun garai hauetan.

-Mario zuk pika ezta? (Ekain)

-Why not compañero!

-Compañero? (Alain)

-Bai ba, laguntzaile. Momentu konkretu hauek konpartitzen ditugun lagunak ezta? Jotzen zebilen kantuan bezala, ezer ez baita berdin. Lagunak zaindu beharrean

gorde egin ditugula ematen du. Kutxatan gorde. Musikaz egin bezala, betirako eskura utzi. Eta betirako betirako, musika baino ez da geratzen.


Bateko edo bestekoez –militantziak, bikote kideak, dena delako pizgarriak– mimatu beharreko hariak zaindu beharrean, kasilatan lerrokatzera eraman gaituzte. Litekeena da gizarteak bultzatuta izatea baina, erori gara tranpan, eta kontuz ibili ezean, geure eskuekin eginiko gezurrezko kutxan atrapatuta bukatuko dugu.

Hargatik nioen compañoero, komedia lagunak, lagun-minez osatzen ziren koadrilak bukatu zirelako. Gurean bai behintzat. Edozertarako, eta batez ere momentu garrantzitsuetarako, onerako zien txarrerako, baldintza bako lagun-min dituzunak, ez direlako koadrilako denak. Ez dute zertan izan behar ere. Enoa ni hortik, ezta gutxiagorik ere, baina noski, bizitza eman ere, berea zure esku utzi duenari emango diozu. Behar duzunean argi ematen jarraitzen duenari.

Gertukoa eta hurbilekoa izatea berdinak ez direla esan nahi nuen bakarrik. Dena den haritik tiratzeko aipatu dut compañoero, gizarteaz haserreturik edo, ez zuek laguntzat ez zaituztedalako. Hori bakoitzak daki, nik hurbilekoa nor dudan eta nortzuen gertuko naizen dakidan bezala.

–Ez baina, askotan zerbait adierazteko kontrako hitza erabili arren, egia da bai, batzuetan argi ezaren iluntasun galkorra antzematen dela. Lehen argia ematen zuenak orain itzala baino ez duela ematen alegia. Hariak aldatzen saiatzen zara orduan, eta hori errespetua mantenduz egoera berrietara

atxikimendu berdinaz moldatzea da, baina ez da erreza, eta ez da erreza, izan arren, bakoitza berera doalako. Bat egin zuten bideak, ez doaz batera, eta argia ematen duten hariekin baino ez zara geratzen orduan. Hariekin, ez argiarekin. (Xabi)



–Ados; hari argitsuekin. Hara baina norainokoa den nahiaren ahalmena, badirela ezinbestean zein bestela, bideak bat egin ez arren, apurtzen ez diren erlazioak. Emankor mantentzen diren loturak. Horra gakoa. Horra magia.

Gure orbita, gure orbita izaten jarraitzea baino ez dut eskatzen nik. Jakitea, konpartitu denboraren parean, baloratu eta ezberdintzen. Zurea eraikitzea baino ez zaizu geratzen bestela; berriz metxa piztea; sortzea. Txinoek dioten bezala, badirelako hiru gauza inoiz itzultzen ez direnak: botatako hitza, jaurtikitako gezia eta galdutako aukera.

–Horrekin zer esan nahi zenuen? (Alain)

–Bakoitzak nahi bezala hartzea dauka baina, ereindakoa jasotzearen aldekoa naizela esan nahi nuen nik “V de vendeta”n dioten bezala. Barkamena eskatzea inoiz alferrikakoa ez den arren, bakoitzak bere fruitua jaso dezala. Erantzunak, ekintzak bezain aske onartzea eragileak. Neuk eragindako errebueltak onartzea. Jarrera arduratuen zalea naiz.

–Egia esan, guztia iluna eta mugimendu eza den aintzira batean ez nuke bukatu nahi. Are gutxiago baloreen erregelekin bukatzen diren are mugikorretan ibili.

Patua, marikoi lotsabako bat delako, eta ez nuke benetako lagun batentzat niretzako nahi ez nukeenik nahi. Geure kontra goaz bestela, eta gure lehen etsaia geu garenez, Mariorena Mario eta zurea zu Xabi, geuretik hasi beharko dugu, ez dagoelako munduan ezer ganora bakoagorik, geure burua keletoarena egiten ikustea baino.

Burua asentatu ta ipurdiarekin pentsatzen hasiko ote gara ba! (Txiki)

"... corre dijo la tortuga, atrévete dijo el cobarde, estoy de vuelta dijo un tipo que nunca fue a ninguna parte. Sálvame dijo el verdugo, se que has sido tu dijo el culpable, no me grites dijo el sordo, hoy es jueves dijo el martes, y tu no te perfumes con palabras para consolarme. Déjame solo conmigo, con el íntimo enemigo que malvive de pensión en mi corazón. El receloso, el fugitivo, el mas oscuro de los dos, el pariente pobre de la duda, el que nunca se desnuda si no me desnudo yo. El caprichoso, el orgulloso, el otro, el cómplice traidor. A ti te estoy hablando a ti, que nunca sigues mis consejos, a ti te estoy hablando a ti, que estás metido en mi pellejo. A ti, que estas llorando ahí, al otro lado del espejo, a ti que no te debo más que el empujón que anoche me llevo a escribir esta canción. No mientas, dijo el mentiroso, buena suerte dijo el gafe, ocúpate del alma dijo el gordo vendedor de carne. Pruébame dijo el veneno, ámame como odian los amantes. Drogas no dijo el camello. ¿Cuánto vales? Dijo el gangster, a punto de rendirme estaba..."

–Zertan Mario? (Xabi)

–Ez ezer ez, Txikirenari beste buelatatxu bat ematen, kantu bat tarareatzen alderantziz goazenaren seinale. Eta egia da, suposatzen dut erru zatia denona dela, hasieratik bakoitza berean zarratu beharrean gauzak argi ez esatearren.

Uste dut giza izakiaren erronka handienetako bat eskatzen ikastea dela. Arlo guztietan. Ta askotan exijitu egiten dugu sikiera eskatu ere egin gabe!

-Ondo da, ondo, ta zer moduz txiri txiri hurrengora bagoaz eskatu ta exijitzera? Tragoa ateratzeko behintzat beti asmatzen dugu ta! (Jonmi)

-Wazemank. (Ekain)

BAFLEAK: "... cuidado cuidado os avisamos, somos los mismos que cuando empezamos..."

Somos los mismos,... askotan esaten denean izaten ez delako da maiz. Ez dugu ba baieztapen gutxi egiten sentimendua kontrakoa denean, geuk sinetsi nahian edo: 'ez dut berriz edango!', 'bihar bertan utziko diot erre-tzeari...' Utzi ditzadan baina kontu horiek aldakortasun bateratua harika bultzatuz.

Bagoaz ta trenbidetik berriz, espaloi zein kale erditik, tren esperantzatsuaren hurrengo xedea argi dagoen arren, bagoi bakoitzak kit-kat bat egiteko edozein izkina geraleku duelarik. Agurtzeko ere! Hori bai, auskalo zergatik hurrengo poteak ere denbora mugatua izango du; 10-15min. Hurrengoan beti hobeto egongo garela pentsatzen dugulako izango da? En fin, bideak berberak dira, hauek zelan dabilzkigun da kontua. Ibiliak markatzen du alde.

-Agur Kemen.

-Bueno Mario, bagoaz hurrengorantz.

–**Aupa ai Mario!** (Laie. Herrian bizi den katalana jator bat)

–Zaindu perla!

Gustua ematen du irribarre batekin agurtzen zaituen jende honek.

KATU: “... noche de chicas caras, luna llena de coca, miel para la heridas, por fin los cuatro ases...”

Itzel! Gustatzen zaizkit begiak biko urreko lez, galdu litezkeen paper gutxiak galtzera gonbidatzen zaituzten lekuak ere. Marra ibiltariak itzuriz komunera heldu ta ate bueltan zera irakurtzea: “un día leí que fumar era malo y deje de fumar. Un día leí que beber era malo y deje de beber. Un día leí que follar era malo y deje de leer”.

–**Mario zu zara e? Martxelorena hurrengoaren ezazu Piru ta Donik ateratu zuz heldu aurretik. Non sartu zara ba?** (Ekain)

–Banago banago, ohiko agurrak toreatzen komunera joateko aprobetxatu dut. Beste barik, banago. Denontzako zerbeza ezta? Heinekenak betilez?

–**Ez ez, edo bai baina, katxiak. Gau berezia da ta guk horrela ospatzen ditugu egun anormalak. Txosna eran. Zanga zanga egin dezala gure dosiak ere gora.** (Ekain)

–**Hori hori, ta hiltzen pozik hasteko egin dezala bakoitzak bere irri-zigarroa!**
(Piru)

Bafleak: "... y vamos a echar un cante pa el que se muere de hambre, con las palmas de mi mama, pal que curra en el alambre, a los ojos de mi niña, a los que viven del aire. Al que vive con la ruina, al que busca por los bares, a lo puta que es la vida, a los kinkis de mi calle, para el que vino a joderme, para el que vino a abrazarme, un cante al que quiera escucharme..."

–Hori hori, nahi duenak entzun nazala nik ere nahi dudana entzungo dut eta.


(Donibane)

–Ez zaizu zuri Katuko giroa asko gustatzen ezta Doni? (Jonmi)

–Ez zaizkit ez saltinbanki hauek ilunean askorik gustatzen, baina bakoitza taberna honi bai ta horri ez esaten hasten bagara, badakizu, horra ez hau dala ta, horra bai beste huragatik, ba betikoan gaude! (Donibane)

–Tabernak ere ez dira betiko antza! Gorde ezik erabili beharko dira ba! Kar, kar. (Ekain)

–Gustuko direnak bai, baina ez pentsa horiek ere printzipioz betirako direnik. Ezta hauetan dabilen jendea, kaleak bezala, dabilen jendeak markatzen baititu hauek ere. Eskertzekoa da baina, lehenago Piruk pitorreoan esan arren, Doniren ikuspuntu irekia. Koadrilan bertan ere bakoitza baita espezie batekoa kaiola berean irteten garen arren. Ta drogetaz hitz egiten hasten bagara bakoitzak bere kaiolatik baino ez du hitz egingo, denean bezala, beretik, bere muga-arau-errespetu etab.tatik. Gainera drogaren gainean ere,



ezinbesteko edo errespetuzko konfiantzan ez bada behintzat, hitz egitea da egin litekeen txarrena. Hara bakoitza bere 'tuboeskapearekin! Ta irteera gabeko sohornara heltzen denak, sartu den lekutik irtetea dauka, nik behintzat, aurrez nire errespetua irabazi badu lagunduko diot arazo barik bidea aurkitzen, ta dena delakoagatik horrela ez bada, hor konpon! Al montón!

–Hemen ere bakoitzarekiko ereiten dena ordain ezta? (Alain)

–Horixe! Ta bakoitza ama batekoa garenez, berdin zaizkit 'glu-glu-glu' alkoholetan itotzen, 'ñaka-ñaka' angulak jaten zein, 'din-dan'ik entzun ezinik, agian existitzen ez den kanpandorrearen bila dabiltzanak. Nirekikoan izango dute heurekikoa, ez beraienean egite edo izateagatik.

–Nire drogarik behinena musika da ba! Eskorbutok zioen lez, musikak hil egiten duela diote, baina ni beragatik bizi naiz. (Martxelo)

–Musika gabeko mundua ez da ez, imajinatze erraza.

–Niri asko esatea iruditzen zait ordea. Nire drogarik arriskutsuena, gogorrena eta bigunena, ni naiz; nire burua. Denona esango nuke. (Txiki)

Bafleak: "... confundes pesadilla con un sueño, confundes pesadilla con un sueño, confundes pesadilla con un sueño, buscando el cielo en el infierno..."

- Horixe berori, uste dut berdina esan nahian genbiltzala lehen. Bakoitzak bere burua kontrolatu beharraren hortaz. Drogak isolatzaileak dira, eskape bat, botika zein gaitz bat, eta buruak egin dezake edozer asko zein gutxi iruditzea. Burua da benetako arriskua. Dangerous in the kraneus! Komeni da ba kontrolatzea, deskontrolatzeko ere.
- Ez pentsa ni oreka zalea naizenik baina. Oreka estatismoa baita, berdintasuna, ezaxolakeria; heriotza. Ez dago fisiko-kimikoki, inguru giroarekiko gizon orekatuagorik hildako bat baino. Ni armonia zalea naiz, absolutuen kontrako eta A eta anti A interdependenteki elkarrekin bizi ahal direnaren ustekoa. Ying-a eta Yang-a! Baina kontsekuenteki. (Txiki)
- “koka edo speeda matrailezurra dantzan dabilkitenentzat, zaldia geldi, pirulak dantzan, txahuena aho gozoentzat, beste flumil bat dukadosagaz dabilzan txikiteroentzat, drogak zentzurik ez daukalako aurkitu ez dionarentzat”
- Nik beste bat dakit Mario: “se cuide de si, se cuide de solo, porque el mismo don que lo levanto puede ahogarlo en lodo” (Donibane)
- Koño Doni! Kantuan ere badakizu ta! (Jonmi)
- Nahi dudanean bai. Zer bagoaz hurrengora? Ba benga, farolak hustu eta martxa! (Donibane)

BAFLEAK: "... I don't know just where I'm going, but I'm going to try for the kingdom, if I can cause it makes me feel like I'm a man. When I put a spike into my vein, and I'll tell yeah, things arent quite the

same. When I'm rushing on my run. And I feel just like Jesus son, and I guess that I just don't know, and I guess that I just don't know..."

Falta zena, ileak puntan jartzen dituen The velveten temazo hori.

Hemen goaz baina berriro, kaleko hautsak astintzen. Kalekoak! Tribuak bezala, koadrilan, taldeka eta talde kodigoekin. –“Nireak? –Aurretik doaz!” bezalako erregistro komunekin hari gisa edo.

Proximo destino: Kili-kili. Ia zerbaitek egiten digun!

KILI-KILI: "... amores de barra, y un lápiz de labios me ha puesto en el baño colirio en los ojos, pegote de rimel la copa en la mano, y..."

Ta? Egia esan, oso bestelakoa da Kili-kili. Beste kolore arrosago batekoa. Beste kilima bat. Usaina ere, apotan goazenaren antzekoa; antena igo eta telebistak balira lez, denei zappingean begira, paratu ahal izateko modukoa. Baina klaro, babalora eta koipeztoak ere tamainan.

Gautxoriak hasi dira lehenengo izarrak pikoteatzen txio-txioka, beste batzuk bide luzetxuago baten, pasioa itzaltzearen duten nesken begietan nabigatzen ikasten duten bitartean. Ta baten bat, ezin bidean baina pil-pilean, beti ukatutako mirarien zain. Denaren aldeko izan ninteke, baina oraintxe bertan ez daukat kredituen makinan jokatze gogorik!

–Zer? Ni naiz berri hala?

–Lasai txo, betilez barraren sakonerara joan beharrean, non kokatu estudiatzen genbiltzan eta! Ni noa, badakizu, caipirinha bana hartzeko ordua da! (Martxelo)

BAFLEAK: "... la hipnotizante curva de tus labios, fue el argumento que me convenció, como si fuese el último día, dando mas que lo que nunca daría, con la fuerza de un adolescente, hiciste el amor esa noche, entre las sabanas paseándote inquieta, sabiendo que ahí eres la mas fuerte, tu cuerpo, lo que deseo, tu cuerpo, precioso miedo..."

–Hau afrusa eta berbalapikoz betea egongo da baina, ni hamabiak jota nago jada. Imajinazioa izango da? (Ekain)

–Lasai, ez zara altan dagoen bakarra, hemen leloenak ere baduelako bere egitorgasmoa. Ta bai, imajinazioa ere izango da tikismikis hauen ondoan zerbait egingo dugula pentsatzea, baina horixe da gure punto-fuerte; imajinatzea. Nekatu ere gutxira egiteko arriskua dago ta! (Txiki)

–Hasi gaitezen ba sareak hedatzen! Musuen orde, institutuan bezala, palmerak jaten jarraitu nahi ez badugu behintzat. Jada ez nau lotsak beldurtzen, ezta jende aurrekoak ere! (Ekain)

–Zetarako baina? Nire osaba arrantzaleak dio, batzutan batzuk eta bestetan beste batzuk, baina ia beti, berdinek egiten dutela arrantza. (Donibane)

–Busti ezik ez dago arrantzatzerik orde! Ta nik astelehenetik ostiralera Santa Ageda jotzea gustuko dut baina, errekak ur biziak dakartzanean, artzak lez, errebotatuta irteten diren arrankariak airean hartzea gustuko dut. (Piru)

–Nik ere listo! Kontua da hemengo guai guztiakin mutur saldarik ez dudala nahi.

BAFLEAK: "... garaia duk motel, esaiok, ez pentsa geio, esaiok..."

–Ekainek arrazoi du, momentuan dagoena momentuan dago beraz, egin beharrekoak orain egin, hiltzean ez baitago larrua jotzerik. (Txiki)

–Hori ba, pitokeriak utzi eta mingaineko zimur gabe, metxa pizteko sua txapelokerrari eskatzeko beldurrik gabe, golferia apurrari ekin. (Piru)

BAFLEAK: "... esta noche han caído, todos los héroes que has tenido, astuta como una zorra, endemoniada bailando sola, tarareando esa canción, vives para ser deseada, boquita pintada, bonita de cara, cada vez me pides mas, bonita de cara, boquita pintada..."

Ez zen Taóa, medikuntza aurreratua naturarekin harremanetan jartzea dela zioena. Ba ze demonio, mugitzen denari tiro, Buda Nirvanan bezala aurkitu arte. Kurt Kobain bezala bukatzen badugu ere! Egia esan inguruko putre batzuk horrela bukatuko balute ez lidake asko ardura izango.

Mirarien zain daudenak berriz, ba hori, ez dira behintzat besteen ohean sartzen. Bidea libre dagoenean ikustea ere komeni den arren, azken finean haizetik soilik ez delako inor bizi. Ez berak nahita behintzat.

Nire miraria, abentura perfektua behintzat, astelehen batez kaferen baten adibidez, herrira oporretan etorri den norbait ezagutzea litzateke, ta pare bat ordutara, badaezpada emandako telefonora hots egin diezadala, betirako herriratu aurretik ostiralera arte geratuko dela esanez. Baina mirariak espero ordeztatu behar direnez, eta gaur toreatu behar dugun plaza, zeren berdin baina kapote ezberdinekoa denez, hemen geratuko naiz, ezertan pentsatzen. Beno, ezertan ezertan... neskak daudenean norbera ez dagoenez sarri, alkatea eta zinegotziak taburetean tenplau eta, barra izkian barra barrukoari begira. Inoiz aspertuko en ninduketen begi argiei hasperenka! Hori bai, zeharka, begi bakarrarekin, imnoziak biak galtzeko arriskuan nago bestela! Kanutoa piztu eta hasperen batean kea eta bere hanken luzea denbora berdinean biltzen. Mihi besarkatuen jolasean, itzala ere muskatuko niola gogoratzen. Nik eman ostean norbaitek emango balio arrenkurarik izango nukeen hausnartzen. Azkenean ezinbestean begiok, bere begi berde biekien topeka, kolpeaz adar puntetara erori, eta disimulan, hauek bistaratzen duten kanaletik doazela uzten. Txanponaren beste aldean berriz, buelta ematean, glorian, bizkarreko eskotea bukatzen den kurba horretan justu, eraiki ahal nukeenaz amesten. Aldi berean gozatzen eta sufritzen... arte gabe arteari entregatzen; nirekin bukatzen dakienari.

-Zer Mario! (Xabi)

–Ejem. Nirean, Garik kantalez, nire oinen su eta begien izotz beharrean.
Komunera noa azken gainbegiratu egin eta segidan bueltan etortzeko.

BAFLEAK: "... mujer fatal... ¿que hace una chica como tu en un sitio como este? Que clase de aventura has venido a buscar? Los años te delatan, nena, estas fuera de sitio, vas de caza ¿a quien vas a cazar? No utilices tus juegos conmigo. Mujer fatal, siempre con problemas, mujer fatal..."

–**Bagoaz?** (Donibane)

–Azken portuaren zain, talde lanaz ahaztu eta, auto dispertsioan sakabanatu ez bagara bai!

BAFLEAK: "... pónmela esa cinta otra vez, pónmela hasta que se arranque, y a cantar como tu sabes, y a cantar como tu sabes..."

Bai, horixe, a cantar como tu sabes, eta musikarekin beste leku batera!

–**Koadrila buruen topaketa txiki bat da hori ezta?** (Donibane)

–Beno, esateko era bat da! Preparatutakoak hobeto arrantza egiten dutela esango nuke nik, galo definizio gabe. Ez gurean behintzat, denetariko koadrilak dauden arren, baita lehentasun printzipalzat baldintzapean 'lirain' hori daukatenak ere. Handitasun saldoak kontsumitzeko arazorik ez daukatenak! Herrian bertan ikusita daukat hori, bai nerabe aro bai adin

nagusiko uda bukagabe horietan ere. Gurean iraila urrun bat da hori eta, bakoitza lar bakoitza da bestela izateko. Eta orokorrean, ez dakit hori neskek ikusiko duten baina, orokorki, beraz denera, beraiek baino 'itsusiagoak' ez garelara bagenekienez, biba gurea! Denbora alde daukagu eta.

- Bai baina, ez ahaztu, sexuan batik bat, lehenetasunak momentukoak direla. Erakargarritasunetik haragoko beste guztia gainera, proiektu luzeetarako baino ez dugu aintzat hartzen, beraz dohain bat da momentuak bereizten jakitea. Egoerak egiten du zerbait berezi! Momentu guztiak bereiztu ta denak aintzat hartzean dago artea; moldatuz, kenduz, ezarriz, gogoratu, ahaztuz,... geu izaten uzten.** (Txiki)
 - Hori egia da, hamar mila arautara lotzen gara edozertarako, printzipalena ahaztuta, momentua, eta horrela egiten duena hezurmamitzen gainera. Kometak bezain erdi libre ibiltzearen gaitza hori da: kola dakarrela. Kometaren haria eutsi nahian jendeak eragindako kola. Bakoitza bereaz arduratuko bagina! Baina ez, ikusten ez duten begietan ere, beti dago txibato bat. Bere buruarekin nahiko ez daukan txota puta bat.
 - Oraintxe esan duzu egia Mario. Maitasuna itsua dela diote gero baina, nik miopea edo begi okerra dela esango nuke, hemengo jendearen ohitura, dena lorrindu, petatxatu, ta komeni bada borratzea ere badelako besteak beste. Esamesak nonahi. Egon da Katun momentu magiko horietako bat Uxueren koadrilako ile horidunaz, badakizu, zerbait nahi duzula ikusten uzten duzunean eta, bestela, bururik galdu barik lasai egon zintezkeela**
-

demostratzen duzun arteko hori. Bai, momentua, benetako atake puntua, baina loritoen beldur karramarroarena egiten bukatu dut. (Ekain)

–Bai, ni ere, logikoki zu baino askatasun gehiagoz, neurtzaile horretatik begiratuta noski, geldirik egon naiz txutxu-mutxuetatik ihesi, zerbait gorroto badut, kaka horietan herriko jendearen ahotan egotea delako. Mugaz gaindi erabilitako informazioak. Hobe da beraz, berotasun gehiagoren galeraz bada ere, hotza zarela esateko arriskuaz ere; distantzia apur bat.

"... equidistante con los mios... como me gusta..."

Dena dela, urak bideratzen ikasi beharko genuke arrantzaleei begiratu gabe.

Adarrik txarrenak norberaren buruari jarritakoak diren aldetik, dena delako zirkunstantzian, geure buruaz fidela izaten ikasi behar genuke. Horrela ikusten ez duten begirada ilunetaz paso egiten, ez badugu idien begi erori berdinekin ibili nahi behintzat.

Mundu hontara iritsi ginetetik heriotzak baino ez gaitu berdintzen antza, ta garaiak atzera bueltarik ez duenez, aukera bakarra dago; geure erara hiltzea.

–Pixka bat hiltzen hasiak gara, eta geure eran pixka bat gehiago hiltzeko edo bizitzeko Pink Pantherrera joan beharko da ezta? (Piru)

–Zuk bai jakin artista! Argi zegoen hasieratik, nola ez. Plana diseinatua dago aspaldi. Baina zer, oinez goaz? Hor dago nirea.

Hori ere kristona da, beti egiten da berdina koadrilan, badirudi beste-lako betarik izateko beste orbitaren batera joan beharra dagoela. Aldi be-rean lotu eta itotzen nauena. Zaituena. Gaituena, gardentasun ezagatik. Zelan botatzen dudan faltan horrelakoetan batik bat, enano katxondo bat koadrilan, nik kokotekoak eman ahala berak potroetatik tiratzeko!

-Nire autoan hiru lau, ta Mariogaz beste hainbeste orduan. (Donibane)

-Ok. Argi dago tribuek ere ez dutela gauerditik aurrera, kilometro bat gehiago egiten herri barruan. Ba zer, bagoaz Xabi? Martxelo, Jonmi, Ekain? Oraintxe gaude Doni, Alain, Piru.

Kaseta: "... cuando le dije que la pasión por definición no puede durar ¿como iba yo a saber, que ella se iba a echar a llorar? "No seas absurdo -me regañó- esa explicación nadie te la pidió, así que guárdatela, me pone enferma tanta sinceridad", y así fue como aprendí que en historias de dos conviene a veces mentir, que ciertos engaños son, narcóticos contra el mal de amor. Yo le quería decir que el azar se parece al deseo, que un beso es solo un asalto y la cama es un ring de boxeo, que las caricias que mojan la piel y la sangre amotinan, se marchitan cuando las toca la sucia rutina. Yo le quería decir la verdad por amarga que fuera, contarle que el universo era mas ancho que sus caderas. Le dibujaba un mundo real no uno color de rosa, pero ella prefería escuchar mentiras piadosas, yo le quería,..."

-Ez du ez Sabinak arrazoi faltarik e? Nahita jarri duzu hau loroan, orain hain justu, Mario? (Jonmi)

–Zuk ze uste duzu? Non jokutzen den jakitea modukorik ez dago. Eta jake bakoitzeko ezin gara endrokatzen ibili. Gizon emakumeok ezberdinak garela diote, eta noski, baldintza fisiologikoak eragiten du, baina gainerakoan, esanak esan, bizitzeko erak markatzen dute gehien.

Abestiko neskak argi dauka, gizonak baino gehiago esango nuke, badakielako zer dagoen ta zelan jokatu. Gizonak ere ez luke beraz, maite duenari min ez ematea baino baldintzatzaile gehiagorik jarri behar.

Azken finean bikotea ez da bat, hiru baizik; bera, bestea, eta beraiek. Ni, zu eta gu, hobe ulertzen bada. Bikotea bat izanda, norbera da goizago edo beranduago faltan botatzen dena, akabuan egoera naturalera itzuliz. Bikoak berriz, modelo ona dirudi baina proiektu gabezia dauka, bakoitzak beretik ematen duelako baina dosifikatuz. Bakarlari bikoteduna ez delako heltzen bere existitze ezatik, eta egun baten isla biak batzen dituen azken zubia erortzen da. Normalena da. Eta txarragoa den beste formatu bat bada; ni eta bikotea. Bestearen pentsuan bizi dena, bestearen funtzioan funtzionatzera kondenatuz.

–Klaro, teoria polita. Badakit nik ere bikotean bizitzea hiruren interesak bateragarri egitea dela. Baina ez da erreza, armonia agertzen denean polita den arren. Ni nago, bera agertzen da ta bi gara, ta besarkatzen bagara bakoitza izanda gara bat, beraz hiru. Ni, bera eta gu, denbora berdinean gozatzen,... orgasmo hirukoitza –bera, nirea, gurea– baina ez da beti horrela. (Jonmi)

–Noski, ezer ez da beti horrela, neugandik hasita jokatu izan dugulako beti, bat hirutan jokora, hirurak batera jolastu beharrean. Nik esan nahi dudana da gauzak diren bezala ulertzean dagoela benetako artea. Zuk jarritako kasua maitasunaren puntu gorena da. Beste pertsona baten existentzia hutsaren bozkarioa. Bestearen onarpen totala. Zure entrega totala.

Kontuz baina hemen dena nahasteaz daukagun ohiturarekin! Jakin horrek ez daukala maiteminduta egotearekin zerikusirik; heldu bezain arin doan pasioarekin. Ezta behar izatearekin ere –ez baita oxigenoa–, eta are gutxiago hegoak moztuta ondoan uzteko kapaza den nahi izatearekin. Ez, maitasuna da hori; ondokoa zelan heltzen den disfrutatzea. Seme-alaba batekin gertatu behar litekeen berdina, beraiek beraien burua behar dutela hegan egiteko, hegaldi lagun izatea biok gustuko lagungarri dugun arren.

Argi diotsuet, saiatu naizela nolabait harreman horretan, dena bereiztu eta onartzearen horretan eta ezinezkoa dela, ezagutu lehen egunetako begirada ezinezkoa den bezala, hobea izan litekeen arren. Esatera nentorrena txapas, gizarte ustel honen hainbeste kakaren artean, ikus erreza ez bada ere, egoerak egoera, bereizten eta jokutzen jakin behar dela edozeren gainetik. Ez dakit ulertzen didazuen?

–Bai gizona bai, loturak elementu askeekin egin behar direla. Behartu gabe. Eragile estra natural gabe. Garbi bezain loi, horrela ulertu nahi bada.

Maitasuna juzgatu barik entzutean dagoela. Gomendatu beharrean iritzia ematean. Exijitu orde z fidatzean. Bestearengatik erabaki beharrean

erabakitzen laguntzean. Hutseratu gabe zaintzean. Ito gabe besarkatzean. Inbaditu gabe hurbiltzean. Bultzatu gabe animatzean edo kargu egin barik sostengatzean.

Maitasuna gezur barik babestean dago, hau da, bakoitzarena bestearengan proiektatu gabe begiratzean, onak eta txarrak ezagutuz, ezagutu eta onartuz, orduan bakarrik izango garelako maite garen gu. Hargatik nago bakarrik ordea, hori ezinezkoa delako. (Xabi)

–Sinesten dizut, esan dut lehen baina, gu geu izaten saiatu beharko dugu ba! Nik behintzat, ez dut oraindik nirekin bukatu! Ez dut alperrik ez naizenik hill!

Nik ere onartzen dut inork ezin duela inor erabat onartu, beti egongo delako gustuko ez dugun zerbait –pentsamendu, usain, kolore, mania–... abestiko gezur cupidatsua adibidetzat. Hargatik nioen neskak bazekiela zertan zebilen ta bestea ere orduan konturatu dela, min eman gabe bakoitza izaten. Errespetua hori da, ez gizarte jokoak. Zu, zu zarelako banaiz ni, ni, eta ni, ni naizelako bazara zu, zu, ba orduan ez gara ez zu zu, ez ni ni izango. Bakoitza bera izanda eraiki behar da, inor ez delako mundura sortu inoren uste edo nahi guztiak betetzeko. Eta horrela izanda bat egiten badugu, aurkitzen bagara, oso polita izango da erlazio bezala, hiruko bezala, edo bertso neurritan esanda, zortziko zein hamarreko bezala. Baina horrela ta ez mundu antinaturalak, faltsu eta bekaiztiak eraikiz. Eta horrela izanda ez bagara aurkitzen, ba zubiren batzuk huts egiten dutelako izango da –ezin delako denen begiko izan– edo ez da ez zubi, ez hari, ez nahirik egongo. Egiazko garapen gordina bai ordea.

Kaseta: "... has aprendido a controlarme, has echo trampa al contar, sabes que el tiempo juega a tu favor y por eso me haces apostar. Y yo como un tonto resbalo a tu jaula para que hagas conmigo un robot, que sigues sufriendo las reglas del juego que tu inventaste para los dos..."

-Hala ba, denak kotxetik bera eta, irteeraren entsegu, Pink Pantherek merezi duen bere sintonian sartu gaitezen katxaka hartzera. (Ekain)

-Hori hori, ia arka galduaren bila dabilen norbait! Ia berriz ere, nire birmaitatzeko ahalmenarekin harritu ta pozten naizen. (Martxelo)

PINK PANTHER: "... tara, tara, tara tara tara tara... taratarata. Tara-tara-tara ta ta ta ta taratarata..."

Heldu gara heldu indioen azken kanpamendura. Tribu bakoitzaren soinu eta mugimendu ezberdinen enkontrura. Topaketa indigenara, non talde ezberdinak elkartzera jotzen duten, eta aparteko arazo gabe behintzat, nahastu ahal diren orrazkera, ibilera,... en fin, kolore ezberdineko talde zein bakarlariak, edo bakarlari lez dabilzan taldekideak, edo... zer dakit nik?

Eskaileratetik pantera arrosarena egiten sartu garen momentutik, hankak aurrerantz tolestatzen ditugun eritmorra, burua lepoarekin bat aldiro makurtzen, konturatu naiz hemen betilez, animalia bat baino gehiago badagoela. Panterak nagusi diren oihanean edozein animalia oldartzen edo

kikiltzen dela. Espezie bakoitzak bere lekua bilatzen duela eta denak saiatzen direla bere esparrua markatzen. Zorte handiago edo txikiagorekin, segun zer nahi duen bakoitzak, gutxi dira hitz, keinu, edo mugimendu gabe beraien umorea azalerazi gabe uzten dutenak. Bakoitzak, karakolak etxea lez, bere trasteroa dauka!

Pub eder honen lehenengo barran, goikoan, sarrera ondotik eskuinera irekitzen den horretan, dantzatzeko umorez ez dabiltzanak ikusi litezke barraren bueltan; binaka, banaka,... errehabilitazio puntutzat hartu daiteke, haserako noraezean kokatzeko puntutzat hartzen ez baduzu behintzat. Edo gure kasuan lez, lehen tragoa, altueratetik, lasai, arranoak lez, hartu eta ikuskatzeko oihan enbortzat.

BAFLEAK: "... can't explain, think it's love, try to say it to you, when i feel blue. But I can't explain, can't explain, yeah hear what i'm sayin' girl, can't explain..."

The who! Zaharrak berri hemen ere.

-Jarriko ditugu pare bat katxarro hartzeko hamarna euro Mario? (Ekain)

-Zelan ez. Neurrira, ta hori, erretzen duenak bakoitzak berea egin dezala lehen kontaktu honetan.

Han dago Aaron, justu barraren beste izkinan, aurrez aurre. Beretik, Giokonda irribarrez beherantz begira. Honek ere, besteok kuadro bat garelako pentsatuko ote du? Neskak utzi zuen baina, berean tinko ikusten zaio. Bere

buruarekin lasai. Naiz eta suposatzen dudan hori barrutik eramaten dela, denok bizi izan dugulako noizbait sentsazio gazi hori. Errautsetan geratzen zarenaren antzeko emozio hori, non barruak eztanda egin ostean, ondorengoa, negarraren ostekoa, txarragoa, hutsalagoa dela badakizun. Bihotz poza eta bihotz mina toki berean elkartu ez ezik, nahastearen ondorio gordin hori. Bihotzerrea deritzon hori. Eta txarragoa dena, hargatik errautsarekiko konparazioa: hauskorregia dela kontua bi eskuekin heltzeko, ganoraz, eta are gehiago lohitu gabe manipulatua izateko. Herri puta honetan gainera!

Jaiki eta badoa baina, behera, pistarantz, kanturen bat erdi oihukatu eta dantzaldiren bat botatzera. Bai ba! Horrelako jendea gustatzen zait, doluak bere osotasunean bizitzen dituen. Denari aurrez aurre begiratuz; mamu zaharrei, berriei, negarrei, pozei, larritasunei... biziz. Puntu arraroei egurrezko ate naturala eskainiz. Bakardadeari positibismoa ateratzen; denbora, erabakia, dependentzi eza,... piano-piano.

"... el sol seguirá saliendo mañana, y si no es mañana, seguro que otro día será..."

Bafleak: "... Angie, Angie, when will those clouds all disappear? Angie, angie, where will it lead us from here? With no living in our souls and no money in our coats. You can't say we're satisfied. But angie, angie, you can't say we never tried. Angie, you're beautiful, but ain't it time we said good-bye?..."

Txarrago darama, kasu bakoitza ezberdina den arren, antzeko egoera Irisek. Barra berean baina, bi begiak destornia hozten eta kulunkatzen

duten izotzetan iltzatuta. Arroparik gabe baino biluziago! Diskotekako argi aldaketek ere ez dute Aaron zegoenetik pixka bat eskumarago dagoen begirada galdu hori lekuz aldatzen. Karies bat bezain beltz, komunean hautseztatu ostean, maldizioak ahopeka kolekzionatzen amildegira agertutako suizida bailitzan.

Aurreko astean zer moduz galdetu nionean, ametsak txirlaz betetzen zebilela erantzun zidan eta ez diot ba marea aldatuko. Halakoetan, egoerak ezberdinak izaki, alferrikakoak dira esanak. Esan beharrekoak ordea, eta nik esan nizkion.

Mutil lagunak utzi zuenetik, pelikuletako irudi topikoenekin amesten hasi zela esan zidan. Hondartza baten bi izkinatatik elkar besarkatzera korrika abiatzen diren bi pertsonena alegia. Bi bihotzena. Ametsetan bezala, diapoak astiro doazela ordea, batez ere bizitzen ari den hasiera honetan. Hain astiro dio, negar anpuluak lehortzeko beste denbora dutela. Agonikoa. Gazi-gozoa. Gazia atzean utzi nahi eta gozo oso baten bila dioana, akaso pasatzen ere ari delarik bidean, artean, helduko ote den ere ez zekiela baitzioen.

Ezin dela iratzarri zihoen gainera, ta droga pixka bategatik ez bronkarik botatzeko, ezin zela eta argia ematen zuten elementuak kiskalita ikustera makurtu. Bizitzara bazitekeela, baina hilerriera ez, gezurra dirudien arren.

Hor dagoela, bistan, zutik korrika hasteko prest, hondartzaren beste aldean, beste ertzetik, berriz berarekin elkartzera datorren argia korrika

ikusiko duelakoan. Bihotzaren pisuarekin itxoiten dabilela. Sinisten duela oraindik berarekin izango dituen Ohian eta Arara seme-alabetan.

Honenbestean, egin litekeen txarrena egiten ari dela esan nion, ez inori minik eragingo diolako, ez, justu kontrakoa, bere buruarentzako droga po-zoitsua delako baizik, eta bidea egin behar delako beste horrelakoetara begiratu gabe. Hala behar badu, etorriko dela behar dena.

Ez diot berriz esango bere momentuan esana. Argi esan niola uste dut: ez ahaztu ahazduraz ere ahazteaz, baina hori, ahaztu ostean, nahi bezain beste gainera, baina zeure bidea berreraiki bitartean. Hori da behar duzun droga, ez kakamarratzea. Denbora ahalik gehien zeure erara betetzea hormaren kontra joka ibili beharrean. Aurreko harremanaren zukutan ito beharrean, are gehiago urte baino promesa gehiago betetzen ditugun garai hauetan. Bizitzaz gosetzea. Bakartuen plater bakarreko menuaz ahaztu, sobran zaigun biziak, eta birbizitzea.

“... El caso es que nada regresa, y lo que fue ya no será, y si es que pretendes que sea, no tienes mas que empezar...”

Bafleak: “... Daddy's gone across the ocean, leaving just a memory, a snapshot in the family album. Daddy, what else did you leave for me? Daddy, whatcha leave behind for me? All in all lit was just a brick in the wall. All in all was just the bricks in the wall...”

Pare parera! Pink floyd. Eta honek trilogia bat ematen du baina horrela dago gaua. Hain txarto ez dagoena baina inork baino motibo gehiago dituena Andutz da. Barraren justu nire ezkerretara, Aaron zegoenetik pare bat pauso eta Irisengandik bost pa seira, lasai baina saltoka dabilen hori. Hara-hona begira. Osti txarra barruan gordez, ironikoki eta ahopeka “quien me ha robado el mes de abril, como pudo, sucederme a mi” kantatzen duena. Horrek bai badaukala besteen aldean haserre bezain deseroso egoteko motiboa, mina sentitzekoa, ia zazpi urteko erlazioa bertan behera geratu zelako bikotekidea bere lagun batekin hastean. Koadrilan ere ez zen giro, antza. Ondo zegoela esaten zidan. Zidan diot ez baitut azken hilabetean inondik inora ikusi, ta beti irribarrez agurtzen nauen arren, ez dakit ba, desertuaren lorealdiaz gozatzen hasia den.

Mina zer den jasotzen duenak baino ezin du jakin, eta honek azaldu ere ederto egin zidan aparteko detailerik aipa gabe, bere diskrezio poetikoan. Benetako mina, zure bihotza maite duen, maite duzun bihotzari min ematea zela esaten zidan. Zeureganatu ezin duzun karga sorraraztea, melankolia hutsalaren ziztuaz haragokoa. Dena ukituta uztea. Egonezina. Inpotentzia. Lagun bat torturatua izatea. Egon-egin-ezina. Lagun minaren ‘nire’ negarra. Neskalgunaren ‘nire’ negarra. Errespetuaren urkatzea. Nazka! Argi bako gela batean irudikatzen zuen bere mina, definitu bako izpian, non begiek, ikusi nahi dutena baino ez duten ikusten errealitate ilunean. Irisek ikusi beharko lukeen lez, bere neurrira moldatzea. Egoera, aldiro barruak leertzerata datozen odolez betetako puxiken eztanekin konparatzen zuen. Lagunen lagun ezin izanaren eta, laztandu zaituzten neska lagunaren eskuak besarkatu ezinaren gozorean.

Badakit orain ere galdetuz gero, ezertaz damutzen ez dela esango li-dakeela, baita etengabe bere usainaz gogoratzen bada ere. Haserreak behar duen zentsua ez besteak tapatzen dizkion arren. Bere ahoak esana baita, onak bizitzeko berriz txarrak bizi behar balitu gustura egingo lukeela. Uko hitza ez dela bere hiztegian sartzen, txarraren ona txarrena ez delako, ta irabaziak ugari; sentitu, intuitu, imajinatu,... jokatu!!

“... Vivir a la deriva, sentir que todo marcha bien, volar siempre hacia arriba,...”

Bafleak: “... whiskey in the jar-o, mush-a rain dum a doo dum a da. Mush-a rain duan a doo dum a da, hey. Mush-a rain dum a doo dum a da, Mush-a rain d doo dum a da. heyyy...”

–Zer Mario, arranoarena egiten? Edo mamuekin hizketan? (Martxelo)

–Ba bai, bista laburrean baina, badakizu, pertsonen ganbaran bueltaka hortik ere zerbait ikasi nahian. Beti bezala neure buruarekin elkarritzetan, hau beste bat balitz bezala. Akaso neuri entzuteko egin beharreko ariketa!

–Ta? Jendea bakarrik ikusteak mintzen zaitu? (Martxelo)

–Ba hori da kontua. Mindu ez baina gogait eragin bai, eta zerbait argia atera ahal bada maitasun kontuetatik, maitasun handiena laguntasunarena dela da. Haritik tiraka horri nabilkio heltzen. Batek daki edonork nola bukatu dezakeen baina ondo eginiko gauzak betirako egongo dira ondo, bai besteentzat bai zuretzat. Zuk behar duzu lehen lagun, eta zure parte direnez

besteak ere, nahi ta nahi ez, komeni da egoki jokatzea. Eta ez dut uste ba gauzak bat ere ondo egiten ditugunik!

–Ez zaitetz horren zolia izan eta zoaz harira. (Alain)

–Ba askotan galtzen garela, aldez aurretik pentsatu ideia ta jarreretan, benetako baloreei merezi adinako garrantzia eta kuidadurik eskaini gabe.

–Lagunetaz ari zara ezta? (Xabi)

–Noski, lagunetaz; koadriletaz. Gure jarrera ohikoena izaten da, endrokearen jokaldia. Bizitzan ahal bezain arin endrokatzea –etxea, neskalaguna, ...– bizkarra babestuz pertsonalki, ondoren hori bai, atakera jokatzeko. Tartean hain justu, endrokatzea posible egin duten piezak pixkanaka ahantziz.

–Lagunak? (Piru)

–Baietz ba! Izan ere xake partida bat da bizitza, baina argiago esango dizut. Argi dago pieza bakoitzak bere dohain eta mugak dituela. Abantailak ta desabantailak. Bertuteak ta hutsak. Ta badakizu, lehengo gerra estrategiatan lez, hortik baitago xakea aterata, irabazteko estrategia behinena, bakoitzak beretik tiraka baina ahalik bateratuen borrokatzea dela. Mugara ahalik gehien heltzea; zorion garbira. Ba hara ze tontoak garen partida erdian bakoitzak beretik borroka egitea hautatzen dugula behar izanik gabe. Baita bidean pieza-lagunak sakrifikatuz ere. Hara ze tontoak garen, ezen ez dakigu jokoa jokatik bereizten ta dama batek edozein pieza jan dezakeen bezala, peoi batek, laguntzaz, erregea irentsi dezakeela.

–A klaro, ta gero ez du balio, zaldiak negarrez daudenean adibidez, partida hasierara itzultzea ezta? (Piru)

–Hori da, gainontzeko piezak ere ez direlako bere lekuan egongo. Gainera legalak bagara ez daukate zertan egon behar. Izorra dadila mimatu gabe mimorik jasotzen ez duena! Eta ez da mendekua, neure musika baizik.

–**Baina horrelakoek beti pentsatuko dute egoki jokatu dutela, bizi bidez, eta lagun edo pieza berriak beti atera ahal direla!** (Txiki)

–A beno hor konpon bakoitza berearekin, baina ez dut nik hori ondo jokatzeari denik uste. Horiek errege sentitzen dira, eta noski, damak dama. Baina ai amigo, erregeek ere bakarrik bukatu ahal dute, eta esparru laburrean jokatzera kondenatuak gainera; aurrera/atzera- ezker/eskuin- zuri/beltz-... pausoz pauso. Koadroz koadro. Azkenean tablen bila joatearen lelo aurpegiaz bukatuz. Bizitzak ez du berdinketaz ulertzen ordea, eta baliteke jokatzeko pieza eta taula gabe geratzea ere.

En fin, jokoa beti momentua preparatzen egituratzen dugula, jokoa, momentuak berak deliberatzen duela ahaztuta. Tik-tak batek. Erabakiak beraz, halabeharrez hartzekoak dira, zirt edo zart, baina kontrak ere onartzekoak. Hor konpon bakoitza berearekin, horretara nioan gau honetan hamaika aldiz esan badut ere, pena bat baita, berezko, ohizko jokatik ateratzea, indibidualtasuna ohiko bihurtzeraino. Argentinarren antza dugu 'lehenengo ni eta gero ahal bada nire laguna' lelopean dantzan. Beharrizanez erreparatu gabe. Hauek Paraguaritarrekin egin lez, beraien ondokoak beraien ondoan egoteaz daukaten zortiaz arro fardatzen gainera. Ze uste dugu ba?

–**E Peña Peña Peña, joango gara beheko barrara ala?** (Ekain)

–Goazen bai, ia hurbilekoa hurbiletik hurbilago ikusten dugun. Norbaitek kokakola nahasi eta irribarre bat ateratzen didan?! (Jonmi)

Bafleak: "... lonely, I'm so lonely, I feel so alone, I feel low, I feel so, I feel so low, I feel low, low, I feel low, low. I feel low, I feel low, I feel so lonely, lonely, lone, lonely, lone, I feel so alone, yeah, so lonely, so lonely, so lonely, so lonely,..."

Joan gaitezen ba, nekaporraturik bukatzeko boleto guztiak ditugun arren. Nekatu ta izorraturik. Bihotza disko rallatu baten pare. Betiko leloen betiko leloaz. Baina zer? Zoroa, arrazoia izan ezik beste dena galdu duen norbait da. Zorotzat har gaitzatela, ze kristo, gure eskura dagoen azken defentsa mekanismoa da. Justuak gara. Gainontzekoek beraien beste sentituko ez dugula pentsatuko dute gainera! Ta ardura dio? Zerk betetzen ditu pub-ak? Garrantzitsua guretik aberastea da. Pim pam pum!!!

–**Ze Mario dantzara?** (Piru)

–Hombre! Behin behera joanda mugitu gabe ez naiz egongo. Gauzak ganoraz, badakizu, erdibideetaz nekatu nintzen. Behin nire askatasunari prezioa jarri eta inork erosten ez zuela konturatu nintzenean, gogor zapaltzeko erabakia hartu nuen. Marinel izatera jolastea. Ilerik urdinu gabe hezten segitzera. Bizitzera, balantzaka bada ere. Ez dut bihotzik begiratzeko bakarrik aldatuko. Gainera ze kristo, mortalak lehen musu edo bigarren tragorako baino ez garelara diotenak badira, ta guk gaur ere marra hori erraz pasatua daukagu.

–Lasai baina, atsegina baita garrantzitsua izatea. Baina garrantzitsuagoa atsegina izatea. (Txiki)

–Oooo! Zu beti bezain erabakior e Txiki? Ikusi nauzu zuk, noizbait, norbaitekin, nahita desatsegina izaten? Ta ez nabil alardeatzen e! Nik mereziko nuelako baten-baten baina bestee?

Bafleak: "... It was a beautiful day, don't let it get away, beautiful day, touch me. Take me to that other place. Reach me. I now i'm not a hopeless case..."

Egia da bai, gure Asierrek dion lez, kantuak direla lagun konpletoenak. Begiradak direla. Koloreetako osotasunak.

Bafleak: "... Uou, uau, uou. Candy, Candy, Candy. I cant let you go. All my life you're haunting me. I loved you so. Candy. Candy, Candy, life is crazy. Candy, baby. Candy, baby, Candy, baby..."

Badakit bai egunak bukatzeko era onena zein den: lekutze egokian, konpainia onean zerbeza aparrak uzten gaituenak egiten edo, musika onarekin dantzaz –Police, U2, Iggy pop– ta bietara ahal bada hobeto.

Bafleak: "... I know the way, know the way, know the way. I know the way, know the way, know the way. Ohh,ahh,ohh, on the mighty arms of atlas hold the heavens from the earth. Ahh, ohh..."

Entzungo nituzke beste hamar mila The velvet azken irri zigarrorako, The boss bera, edo arrimatekoak a sako –Delincuentes, Malas, Bebes, Venenos,...– golferi apur bat sentitzeko baina, ezin hobeto. Bukatzeko perfekto. Beno perfektoa ez da ezer ez inor, baina nork nahi du ba ezer edo inor izan ba? Led zeppeling-ek ere ez.

Ostia! Pink panther-ek ere ez antza, ta sartu garen moduan irteteko ordua da. Ez dezagun guk inoiz ohiturarik apurtu! Ez gaitezen gu izan!

–Bihar arte kuadri!



Disimulu gabeko ‘bihar arte’ batek irten dit azkenean? Honenbestean etxeratu beharko gara, karga alboka eroaten asmatzen badugu behintzat, baina bada zerbaiten seinale irten zaidan azken agurra ere. Gau garbi eta eraginkor baten keinu. Itzell!

Gaur benetan liatuko nintzen gorputzik banu, arimak gora egin baitit rolloari esker, baina,... betikoa, osagarri nahasketa behartua. Akats komu-

nikatiboaren beste zulo bat. Eskatzen jakingo bagenu bitzta bere onean aprobeztatzeko?

Nire lehentasunak berbaloratu direnaren alegrantziaz noa aro on eta pauso motelean ordea. Zeruan irekitzen diren tarte izartsuei arnas sakonez so. Ni ta nire orbitei ziurtasunez begira. Daukadan familia ederraren jakitun, gurasoei oparitu diezaiekedan onena eskaintzeko kontzientziatuta; oroimen aktiboa. Beraietaz inkondizionalki gogoratzea. Baita lagunen orbitari ere. Lagunmin edo bereziei behintzat. Egunak edo kontuak konpartitzen dituenari. Gure etapa zein kezka ezberdinetan –kultur arlo, kirol, politika, juerga,...– aldakortasun hariak argizatuta mantentzen dituenari. Jarrerei. Arauei. Errespetuari. ‘X’ arrazoiengatik zu izaten uzten zaituenari. Orbitak orbita direla dakitenei, joe! Nirean ere badagoelako D’artagnan, Falconetti,... zein mangarranen bat, beraien eta nire meritu edo demerituei esker, aterpe ezberdin, banandu eta sendoa egitea lortu duenik. Sendoa bezain hauskorra, bitzta bezalakoa, baina posalekua.

Izan ere nagusitan zerbait izan nahi badut, izatea da. Ahal bada!

"... gerra gogoia, lagunek ta rock and rola, San Dios kortako, gure beixek horman gora, egun bi dire ta, etortzen bazara, beste bat izengo zara,..."

Mario koadrilan

Begira, gauzak aldatzen dira, denboraren harira,
aldatzea zer da ba? Berezkoa ez bada?!

Begira, gauzak moldatzen dira, bizitzaren neurrira,
moldatzea zer da ba? Neurri eza ez bada?!

Begira, asko klonatzen dira, formatoen gutxira,
berezia zer da ba? Bereizia ez bada?!


Begira, lagunak gutxi dira, esku betez, aski da!
Kolega bat zer da ba? Bateko urrea ez bada?!

Atzerantz -so- egin nahi dut
-arre- aurrerantz bezala
lehengoak nigaz nahi ditut
hurrengoak bezala

hontzak ez gara baina
dohai hoberik ba al da?

Jakin atzo gaur dala
Jakin bihar gaur dala
Jakin beti gaur dala
Dana ta ezer garala

*“Ez ahaztu Mario, kamaleoia gara; Mario kamaleoia. Norberarena
besteekin uztartuz garena izatera heltzen dena. Zu ez gara aldatzen,
zu aldakorra gara. Haritik tiraka, hasiari zentzua hartu nahi diona”*



Mario topagunean

Lehiotik: "... bihar, bihar, bihar hil eingo naz, lagundu nazu, bihar hil eingo naz. Bihar, bihar,..."



Ostra! Norbera esperientzia ezberdinen bila,... eguzkia itsu dagoenetik ilargiaren zilbotaren bila,... ez galdu ezta aurkitutako arrazoiaren bila,... nahiak ekortzeko pintzelaren ileen bila,... nire sare zulatuak jaurti ahal ditudan begi ozeanikoen bila,... eta hara, gauaren iluntasunaren erdian, farolen argi ezdeusaren azpian, bizipozaren antitesiaren hotsa non entzuten dudan; puta baten kantu hotza. Ema'galdu' esango nuke aurkitu izan ez banu! Ikusten ez den aurpegiaren aurpegia. Bokazio gabeko suizida torpe bat bailitzan, bakardadeari mokoka, gauak, sutan dagoen txoriak lez deliratzten duelarik. Nahikoa da! Neure bila oldartu nadin; neure kontra jo. Ia topatzen naizen.

"... y desafiando el oleaje sin timón ni timonel, por mis venas va ligero de equipaje sobre un cascarón de nuez mi corazón de viaje, luciendo los tatuajes de un pasado bucanero de un velero al abordaje, de un no te quiero querer, y como huir cuando no quedan islas para naufragar al país donde los sabios se retiran del agravio de buscar labios, que sacan de quicio, mentiras que ganan juicios tan sumarios que envilecen el cristal de los acuarios de los peces de ciudad, que mordieron el anzuelo, que bucean al ras del suelo, que no merecen nadar,..."

Ze ironikoa, sarkastikoa hobe esan topagunearen izena ez? "The Dolls"; panpinak. Inork manipulatuak izateko jostailuak. Gizarteak, hastapen-tatik, jolasteko eraikitakoak. Gerora bizitzak ahotsik izan ez dezaten sor-tutakoak. Tiene cojones!

Barrurakoan, barrakoari galdetu beharko zaizkio mugara heltzeko non-dik norakoak, letrero argitsu baino ilun honen azpiko beste honek uzten banau.

–Barkatu: lehen pisuko argi gorri xeheko gela horretara abiatu nahi nuke?!
Zeintzuk dira pasa beharreko mugarriak?

–**Ate honetan zure galderak erantzuteko nagoela uste duzu?** (Hulk, edo horrela deitzen dioten basaganaua)

Berdin dio, uztazu, dena dela lehen mugarria pasa duzu, baina barra izkinako bakarrari galdetu beharko diozu. Heltzen bazara.

Heltzen bazara? Zaila da ba moketatik ibiltzea? Kar,kar.

Ez diot eskerrik eman baina, ze Kristo, sartzen utzi beharra zeukan dena dela, gainerako pikukeri gabe gainera!

–**Zer?** (barra izkinako tipo bakar hori; 'bigotes') **Zu ere zure baritarekin hauts magikoak isurtzeko motxetaren bila?**

–E? A, bai, beno, aurrez zure bila ezta? Gustuko dudan bat badut baina, kasualitatez goian dago, lehen pisuko koarto batean.

–**Inor ez badago ez daukate ba han egoterik, zorte txarra. A! beno baliteke Lupe izatea, hemen inor falta denik ez baitut uste. Urrea zaindu beharra dago garesti dago ta!**

Bafleak: "... subamos la escalera, vamos a hacer el amor,..."

Ze ironiko sarkastikoa tuburio honetako musika ere ezta? Amor?!

–Pok-pok? Pok-pok-pok? Pok-pok-pok-pok?!

–**Bai? Nor? Zer?** (Lupe, leundu gabeko harribitxi hegoamerikarra)

–Ezer ez, Pretty Woman-eko Richar naizela eta Juliaren bila nabilela. Bai?

–**Ba jai daukazu. Gela honetako woman bakarrak Lupe du izena, izena eta iza...
beno ezer ez, eta ez daukala gaur ganbara alokatuta daukan inorekin
egoteko gogorik.**

–Lasai, broma bat zen, berdintasan bakarra ordua ordaindu dudala da garitoko
perlarekin egoteko, beste kale txakurren bat etorri aurretik. Zabaltzea
komeni zaizu, edo beheko bibotedunarengana jo beharko ote dut berriz?

–**Sartu. Barkatu, erantzi mesedez.**

–Ez, ez, ez didazu ulertu. Tatuia baten erradiografia lez, porrot baten
autobiografia leiho batetik kantatzen entzungo ez banu, baliteke, baina
kasuan, ez dut koskoilari jaten emateko ordaindu, kontzientziari baino. Ez
dakit garesti edo merke irtengo zaidan, baina gaurko aukera hori izan da.
Arraroa ezta? Ezberdina ez, arraroa.

Izan ere jadanik, ikusiak ikusi, ez dakit mundua den alderantziz dagoena edo ni
naizen buruz behera dagoena baina, zerbait ziurra bada, morala erortzen
denean dena berarekin doala da, baita beste hori ere.

"... viene y va, el tranvía del deseo, viene y va, en la estación de mis sueños solo hay, vías muertas nada mas, vías muertas nada mas..."

-A, ederto, zeuk ere ez duzu sinisten baina ondo.

-Baliteke.

-Ba ni ere hemen, zer nahi duzu esatea ba! Kristalezko paradisuari galderak loratzen. Estazioetako itxarongelan zain dagoen jendea lez, erantzunen hilerrian auskalo zer itxaroten.

-Bai ba, horixe, sexurako gogoia ere kendu didala, kendu badaiteke behintzat, leiho baten silueta bat negarrak landatzen ikusteak. Amodioa urkatu, amorrua erditu eta mina ezagutzen. Eta txarragoa dena "bihar hil eingo naiz"en aieneari zaurientzako odol barik geratzen.

-Nortasuna bilatzearen ordaina zen, ispiluari hil arte mokoka aritzea. Ispilua da egiak aurpegira jaurtitzen dituen bakarra.

Bila bazentoz, aurkituko duzu beste topagune bat. Hona hemen bakardadea; egoterik ez daukazun bakardadea. Isiltasuna eta zentzu gabeko distantziak zeharkatzen dituzten automobil alderraien geralekua. Ozeano deslaxak. Belarra hasi eta sikiera oroimenik ere ez dagoen lekua.

Nahiko nuke nik ere "Hotel Kalifornia" abesten egon ahal izatea Varaderon, pero ya ves,...

–Ya veo. Ta zer esanik ez negu iluntze hauetan ezta? Ikatza ikatzaren gainera erortzen denean. Metroko trenak ere nonbait lotan daudenean.

–Ba lehen esatera zentozena; perla urratua. Asteko pare bat negudun aroa, non egunero uda bat hiltzen den. Ta zenbat diren leundu gabeko harribitxiak? Kaleetan –San Franetik Miribillarako aldapak kasuko– itsatsitako 3. munduko estanpak. Postaletako argazki ederrek usain txarra hartzen dituzten orenak.

“... la belleza es un ramo de nubes que sube de dos en dos las escaleras, un carné de exclusivo socio del bingo negocio de la primavera, un barril de cerveza que mata de sed, un melón con pezón de sandia, un espía enemigo, un contigo al revés, un ombligo de bisutería...”

–Bai, arrosa, arrosa delako da polita, ez bertan lore batek arnasten duelako. Ta nola iritsi zinen ba hona? Zeren atzetik edo zeren ihesi? Zer dela ta?

–Ama bakarra dagoela dio esaerak ezta? Ba neuri tokatu behar zitzaidan. Ta aita? Nor da aita? Berak baleki?!

Gogoan duzu jaiotze eguna? Bizitzak klin egin zizuna? Ba nik ere klin egin nion eta biok itzali ginen. Orditik hona gauak beltz beltzak dira. Bizi nahi eta bizi nahi eza, etengabe nahastu dira eta kolore guztietako printzipioak asmatu ditudan arren –suzko koktelak itsasora jaurti, haizea hezi,

unibertsoa zulo beltz batean gatibatu,...– isiltasuna abestea baino ez zait geratu.


“... isilik! Isilik! Isilik!”

Ez dago isiltasuna oihukatzea bezalakorik. Ta horrela, etxe-minez, etxean min gehien eragingo zuen bizibidea hautatzeraino. Zornotzan. Pasoko bizitzaren pasoko herrian. Hotzetan. Hezetasunean gutxienez. Itsaso gabeko hondartzan.

–Bai, badakit zer diozun, jadanik ilargia bera ere beraietaz aspertu eta, eguzkiak ikusi nahi ez dituenekin bat egiten ezta?

–Bat egiten bat egiten? Toki berak zapaltzen. Izan da zure gitarren bat inoiz lekuko?!

–Lekuko lekuko? Bai, kasuen kasuan. Nire gitarren bat egon da inoiz kasuan. Esperantza galduaren balantzan. Itxarotea besterik ez dagoen lekuan. Ez da izango itxaropena gizasemearengana heltzear dagoen ondasun bat baina, zorrigaitz bezala ere ezingo da hartu. Momentuko droga soilik, esperoan.



–Poema ederra, baina momentukoa hori ere noski. Uste dut nire biziaren azken baten, besteenaren ezberdina, baina antzera, momentuko poema bat bezalakoa izango dela. Hori bezain idatzi eta ez idatzia. Botila huts batera sartzen dugun mezu bat, gezalak ezabaturiko letrak begi zohardiren batzuk gerora ber egin ditzaten. Eta hark ere momentukoa izatearen gurutzea eraman beharko du. Auskalo ze erara eta ze lekutan.

"... laino ilunak ikusten, goizean goizo zeruan, leihoak bustirik daude, hitzak hiltzen jaiki naiz, berririk ez dakar egun honek, kezka gabe hartuko dut kafesne bat lasai lasai, oraindik erdi lotan naiz. Eguzkia alde batetik irten eta bestetik sartzen da baina bien bitartean inork ez daki zertan dan, bakarrik, berriz etorriko dela, ja, ja, ja, ja, ja..."

–Argi dago beraz, ez garelako ez, gaueko izar bakarrak, are gehiago, indar gabeko irribarre honekin. Gela honetako leihotik ilargia bada ere ostu dai-tekeen gauza bakarra, beragandik ere urruntzen garelako. Edan ditzagun ba arrazoiak, eta azidoaz bihotzak erretzen ditugun bitartean jolastu gaitezten. Aitzakia zuriak eta gorriak kontatzen jolastu geratzen zaizkigun 45 minututan. Husterako. Soberan ditugun 5 izarrak eranstera. Laurak, hirurak...

"... Ya lo dijo Camarón, quita una pena otra pena y un dolor otro dolor, eso es lo que digo yo, antes que morir de pena que te den por culo pinto un corazón..."

-Hasi ba galderak landatzen. Orain artean ere erein gabe ibili ez zaren arren. Inozentzi galduaren prezioa ordaintzen. Azken finean ni ez naiz zu gabe eta zu nirekin baino ez zara antza. Ba benga, nire azpiko errekararen bila, berago dagoen eguzki edo, biontzako, sakon sakonean daukadan gauaren bila.

-“... because the night belongs to the lovers, because the night belongs to us?...”

-Ja, ja. Era ederra hasteko. Ba jakin dezazun, amodioa dagoen eta jainkorik handiena dela ez dakiena, ergel eta ezjakin galanta da. Berak ematen die pertsoneri erotasuna eta zentzua; atsegin-desatsegina.

-Zergatik maite duzu orduan ordurik beltzena?

-Nondik atera duzu hori? Itzaletan jaio nintzelako beharbada?!

Esan dizut lehen ere, mugaren mugan egoteak kontra dakarrela. Kontraren kontra. Kontraren kontraren kontra.

Begira, oroitzapena baliagarria da bititza beragan finkatzen ez duzun bitartean, menpeko ez zaren artean, eta horren harira behin nire memoria eta ohorea eztabaidatzen hasi ziren. Memoriak horrela izan zela zioen eta ohoreak ezin zitekeela horrela izan. Normalean memoria da ohoreari gailentzen zaiona, egia, egia nahiari. Baina, kasu honetan ez zen inor galtzaille irten, ez zeukan batek besteak baino pisu gutxiago antza, eta beste barik, bizitzak zor didan erregaluren baten zain nagoela suposatzen dut, erdibideko ezer onartzen ez dudala behintzat argi izanda.

- Hau erdibideko eta bide erdikoa da ba?
- Bai**, baina mindu nauten bihotzak mintzeko adinakoa. Irtenbiderik aurreikusten ez denean, mintzen zaituztenak mintzea da bidea. Pozoiak pozoitzen ez badu baliteke merezi izatea.
- Aja! Hori da politika. Bizitza. Borroka. Ez zaitut baina pozoi bako ikusi?! Bazirudien kulpak nahiak baino pisu gehiago zeukala?!
- Lasai**. Momentua zen. Sentimenduak paper albalean. Mugikorrarekin gertatzen den bezala maitasuna makina batean sartzen saiatzen zarenean. Egiak, erabaki guneak sakonean daude.
- Amodioa, sentimenduak, mobila, makina, egi-erabaki-sakon,... koktel ederra ezta?
- Osagarriak** ondo bereiztu ezean bai. Hori da arazoa ordea, elementuak ordenatu ez ta gainera, gure orden eza, norbaitzuk noizbait komenentziaz jarritako ‘ordena’, gainontzekoen ‘desoreka’ bihurtzea. Ondorioa? Oreka. Hau bezalako leku putapenikoen negozio txarkuteroa. Norbere erabakian bakarrik oinarritzen ez den sexu negozioa. Uneoro bihotzak saldu baina, gorputzak, interes ekonomiko instantaneo honen truk jartzen ditugunon kontu trufatzen diren emagalduen gurutze; hilobi. Hankak edo ahotsa saldu litezke baina bularrak edo ipurdia ez? Bihotza bai baina xoxoa edo buztana ez? Ez zabiltzate ba zuok eguneroko jarrerekin demostratzen, bizitza interesen truke bat baino ez dela? Luzaroan, presa barik berdina egiten gainera?
-

Barkatu baina errua gurea beste, zuona da. Are gehiago, zuena delako da gurea, langileona, beste azeri batzuentzako larrua uzten dugunona. Gezurrik gabeko merkatu librea bultzatzen ez duenarena.

Zer gehiago nahiko nuke nik, neure egoera pertsonalaz gain, bizitza truke simple bat izatea baino. Joko legala, ez zintzotasun ezak eraikitako puzzle desleial hau. Zintzotasunaren tribiala, ez orain den bezeroen zurikeria eta agintarien monopolio zikina. Ez gaitzazue ba pakete ezberdinetan sartu, berean baikaude.

-Zenbateko arrazoia duzun. Beti esan dut geure izatearen kontra jarritako arau askoren menpe gaudela. Kontraesanen gatibu, lagun izan beharrean, ta adibide gisa, arrazoen arrazoi lez, potroetaraino, ta ezin nuen hobeto esan, beteta dauden guardiako farmazia hauek.

-Eta sorginkeriaz beteagoko etxe enkantatuak, noski, bata besteen ondorio, osagarrien arteko konexioaren txispak hain zuzen. Elkarrekintzan bizi diren gorpu biren talka ekidin ezina; amodioa eta sexua. Besteak beste, komunean jarritako ur-olioaren ezinbesteko dentsitate ezberdintasuna; leku bereko toki bilatzea. Fusioa edo eztanda, uneoro irudi bera ematen saiatu arren, elementu bien elkar bizitza zirrikiturik gabekoa bailitzan.

"... sabes de sobra que eres la primera, que no miento si juro que daría por ti la vida entera, y sin embargo, un rato, cada día, ya ves, te engañaría con cualquiera. Porque una casa sin ti es una emboscada, un pasillo de un tren de madrugada..."

–Egiak garesti daude ezta? Garestiago! Garestiegi!

–Bai noski. Tranpa baten adibide ezezta ezina, esan dizut. Partxeatutako egia; argien itzala. Partxeatutako gezurra; itzalen argia. Partxeatutako sistema; zintzotasun eza.

"... falta una sota, sobran dos reyes, cuerpos de jota, contra las leyes..."

–Herria neurotikoz lepo dago. Eraginen eraginez, bizitza erdia tranpak jartzen pasatzen duen jendeaz, beste erdia beraietan jausten pasatzeko. Deskonforme permanente eta manipuladorez lepo. Limiteak onartze ezak etendako jendeaz.

Zergatik ez dugu onartzen bakoitzaren kapela pertsonalaren pertxero baino ez garelara? Barrua eta kanpoa bereizten ikasi?

Garrantzitsuena norekin oheratzen zaren baino, nahi duzunaren ondoan esnatzea bada, garrantzitsuagoa beharko luke gauzak sentitu bezala esatea ezta? Sexu bako mundurik ez da existitzen, esan dezagun ba! Abiatu gaitezen bizipozerantz.

Nork imajinatzen du gaur egun bere burua hil arte berdinarekin txortan?

Egunero arroza jaten? Inoiz goi mailako sukaldaritza probatuko ez duela pentsatu edo pintxoren bat sikiera dastatu gabe lasai egoten? Estra gabe?

"... todos queremos más, todos queremos más, todos queremos más y más y más, y mucho más,..."

Asko dira 'fideltasuna'ren banderapean beste batekin bizitza proiektu baten formatu 'zuzenena' aukeratu dutenak. Baldintzapeko askatasunak eskaintzen duen aukeraketa bakarra, halaber, ez baldintza ez askatasuna, baina bai, eguneroko ogia ziurtatzearena, kontzeptuak batera ezinak baitira marko legalean; naturaren irrealidadean.

Datozela hona, topagunera bestela.

Ni ere bizi osoan pertsona berdinarekin bizi naitekeelakoan nago, zein ez, lagun hoberik ez dagoela uste badut, zergatik ez baina, objektibitate eta errealitate baten gainean beti ere, sexuarena beste kontu bat baita. Amodio menuaren plater garrantzitsuena bada ere, sexuak ez dauka bide bakarra inoren buruan. Ba al dago ba sexualki erreprimitu gabe beste norbaitengan pentsatu ez duenik? Noizbait, loran egonda bederen, masturbatu ez denik?

"... **destrozame, destrozame, y no me digas nada...**"

Ez gaitzen aldez aurretik txotxatu. Errespetuan dago gakoa. Amodioak beti behar du sexuaren gainetik, maitatzea nahi bada behintzat, sentitzen bada. Ez da beronen ama bakarra ordea.

Txapo ez dut esango ez direlako inongo ereduren ikur, formatu baten, honen, garaile natural baizik baina, zoriondu nahi nituzke hala ere, inongo errepresio

sentsazio gabe –ez fisiko ez psikiko– neurriko maitasun eta sexu nibelak pertsona bakarrarengan aurkitu dituztenak. Zaila zait ulertzea baina, zoriontasunetik, nahitik hurbilen eta errazen egotearren, zorionak! Bejon daïela batez ere nire gurasoei, horrela sinesten dudalako noski.

Zureengatik ezingo dugu ba berdina esan ezta?

–Utzi nireak bakean; bizitzan hilik. Ni berdin ikusteak ematen dien min jasanezinarekin bakarrik.

Itzuli gaitezen ongi mintzo zaren zauri sekretura!

–Zauri sekretua?

"... si lo que antes parecía amor, ahora es una guerra, trinchera de silencio y rencor, quien dijo que esto ese el plato mejor, la sal de la vida, ternura, color, maldito imbécil. Si los perros tienes pulgas, los hombres problemas y tu no eres menor mi amor, el mar no esta en calma, el cielo tan gris, el fuego que quema también da calor, será una farsidad. Busco una luz que ilumine los sueños perdidos, que me enseñe a jugar con la locura en tu rincón, busco una luz..."

–Bai ba, inolaz senda ezina den gizakiaren berezko zaurira. Batera zein bestera estali ezina den hutsune naturalera. Nonbait buruan behar lukeena baina gehienentzako aurkitu ezina denera. Ez genbiltzan ba hortaz, ase ezinaren minaz?

Pentsa hain dela horrela, amoranteak beraiek ere ez dakitela desirak ordenatzen. Hutsak beti estalita izaten. Ezta larrua jotzean ere! Atsegina garbia ez delako, amodioak beti espero baitu, xurgatzen duen sugarra, piztu zuen berberak amatatzea. Eta ez da hola!

Amodioa energia bezala transformatu egiten da, transformazioa posible egiten duten zutabeak zutik badaude, beraz inoiz ez da bera.

Hara, jakiek bere lekua okupatzen dute gorputzean irentsi ostean, gorputzak asimilatzen duena, larru leunek ordea ez, itxura hutsal eta galkorrak diren imajinak baino ez dizkigu uzten. Tabakoak lez, hutsunea sortzen du. Bete ahala ere bai. Trago gozoena edan ondoreneko edalontzia lez, betetakoan, gainezka egin orduko noiz berriz hustuko unearen zain.

Hori dira amodioan amoranteak; Venusen jostailu. Ase ezinak, min egin arte besarkatuta ere ezin baitute beste gorputz horri deus ostu. Ametsetan egarria ase nahi eta asetzeko ur nahikorik inon aurkitzen ez duen ura bezala.

Plazerean errendatzerara arte borrokatzen dute, esan dizudan lez, suminaldi berria etorri arte suak aldi baterako itzaltzen direlarik. Azken finean, eraren batera sumatzen dute, sumintzen eta erresumintzen dituen desira hori non ezkutatzen den ez dakitela; zauri sekretua.

“... siempre estoy soñando, en invierno con el sol, son las nubes en verano...”

–Jakina, ta horrela doa negozioa. Auskalo ze huts tarteren inspirazio iraunkor. Bizi dugunon bizitzak berak eraikitako negozio zaharra. Tranpa zolia. Baina zu

zauriekin eskarmentaturik ta hain gertuko izanik, bilatuko zenuen ba zeurea?
Zeure zauri sekretua? Sekretua bada!

–Kontuz, zauriak sekretutik beti izango du pertsonala baita, bakoitzak berea.
Beste gauza bat da aurkitzea, eta bestea komunikatzea. Baina txiste bat
dela uste duzu ala? 7 minutuko jardunetan bilatzen den zerbait? Hitz joko
bat? El ánimo edo el anima de jung? Kar, kar, kar. Talentua denerako da
ona, baita sexurako ere!

Dena dela dogma bako itsasoetan erosoago egiten da uger. Alde horretatik
arrazoi duzu. Sexua dogmetarako humanoegia den eran, bidean arri
gutxiagorekin tupust egiteko aproposa da. Abaniko osoa eta denentzako
berdin: eros-aren arte gozoetan hasi berria denarentzako, alargunarentzako,
termoen bioladoreentzako, telenobelazale menopausikarentzako, izkinako
trabestiarentzako, el gay de clóset, la frígida, el castro, el eunuco... bizitzak
kamaleoiak bezala kolore asko ditu eta denak ikasi dezakete.

–Bai, ondo dakit zertaz ari zaren, baina zuretzako ez da denontzako lez ezta?

–Noski ezetz. Nik ezin dut nahi dudanera heldu; naturaltasunera. Denbora nahi
bezala bete; bizipoza. Tronuan sartu; neure burua aurkitu. Ez nizun esan
nahi bakoitzaren bilaketa delako baina, konturatu zara zein simplea den
zauri sekretua? Ezagutuz, zeugaz bizitzearen artea bilatzea. Horren aldakor.
Horren aldaezin.

Horrek desberdintzen gaitu ordea, zu heldu zintezkeela zorientasuna
laztantzera horretarako baldintzak aurkitzen badituzu, giza eredu honetan

erraz ez daukazu arren, batez ere hainbeste zirrikitu dituen sexu kontuan, baina ni ez, nire zauria zein den dakidan arren.

Gehienek, denek ez esatearren, ez dakite minaren jatorria non dagoen, ezta milaka buelta emanda ere, zoratu artean errealitatearen ordezoak bilatzeraino. Sinpletasuna aurkitu ez ta gaixotu direnak: sado masokistak, masokak, pedofiliakoak, gerontofiliakoak, nekrofiliakoak, kopofragikoak, homofobikoak, androjobikoak, misoginoak,...

Gaiztakeriak egiten du gaizkia, ahultasunak kontsentitu eta jakinezak txalotu zioen Sacy-ko baroiak, eta ene bihotza beste bihotz hauek eritzen dute. Esan dizudan bezala, askoz sinpleagoa da zauri sekretuaren gotorlekua.

–Bale bale, ez jarraitu, zurea bai baina nirea ere, nire bihotza, bolante zoro baten moduan hasi baita jiraka.

–Ez zaitut ikaratu nahi, hemen horrelakorik ez baitago.

Pena, sexua eta maitasuna zein polita den konturatu ezin direnena da. Hori bezain naturala. Adibide metaforiko puntual lez, orgasmo bat bere baitan ulertzen ez dutenena. Konbultsio simple bat. Estasi bat; tentsio deskarga birjina. Epilepsia atake bat bere gozoan. Binaka, hirunaka, seinaka, hamabinaka zein banaka, denok baitaukagu fetixistatik zerbait, baina naturala. Arrazoizkoa. Arrazoiaren arrazoizkoa!

"... que el cansancio sea de placer, las lagrimas de risa. Cuantas ilusiones traje a este mundo al revés, que perdiendo una al día, creo

que aun me quedan dos o tres, sin fe, que triste un final sincero, cansado ya de perder, pensando en lo que la vida pudo haber sido y no fue. La noche ya se gastó, mi sueño empieza a caer, los recuerdos son cenizas, parece que aún fue ayer. El día Z llevo, la esperanza ya se fue, o nacimos cansados o se fracasa después, la vida ya se gastó, el tiempo empieza a caer, los días están colgados, parece que aun fue ayer. Como se fueron los años! Como se gasto la vida! Parece que aun fue ayer..."

-Arrazoi bako mundu honek sumintzen zaitu ezta? Paradisua behar lukeen kloaka honek.

-Bai, errubakoon bizitza ugerrak. Ez dira baina hain justu nire onetik ateratzen nautenak azken kapritxoaren bila datozenak, kapritxoak azkenik ez daukan arren. Beste mapa baten mendiak deskubritzera datozenak. Maitasun aldien kontua galduta dutenak. Balore ziurra etxean utzi eta, nirea ez den beste ezeren gogorik ez dutenak. Eduki ezin diren gauzak bakarrik maite daitezkeen pasioarekin, soilik ezpaineekin, maitatzera datozenak. Beraien gehiegikeriaz edozer faltan botatzen dutenak. Halabeharraren gaixoak dira, buruan irakiten dituzten desiren botika partikularra bilatu ez dutenak. Hemen inor ez da indarren atalaseraino kiribiltzen!

Baina bai pena ematen didatela, lorea eraman eta lorontzia laga dutela pentsatzen dutelako. Errautsa bota eta hautsontzia bueltan daramatela pentsatzen dutelako. Kapela bertan utzita buruaz itzuli direla pentsatzen

dutelako. Arimaren farmaziak daudela uste dutelako. Larjakinak izaki, beste ezer ez dakitelako. Itsututako itsuak, lastima.

"... ba al dakizu sua, ahaztu zitzaidala zure bihotzian, ba al dakizu bala batek zulatzen nauela zutaz pentsatzian, kontaktu ahal dizut inoiz eguzkiarena, eguzki gorria dela zeruaren ardoa, eta ilargiak pizten didala azken zigarrua, baina ni banoa, eta ez dakit nora. Bidaia zazu zuganantz, har itzazu oporrak zeure barrurantz, eingo dizut leku bat nire inpernuan, zatoz ta eingo dizut leku bat nire inpernuan, baina ni banoa,... paseatuko gara gure minerantz, ia topatzen dugun gezur hori berriz, eta defendatuko dugu alaitasuna alaitasunarengandik, esan dizut inoiz ez nauzula maite, maitia, baina ni banoa..."

- Gauzei bere izenez ez deitzeak, nahi ezkutuak adiskidetasunaren magal sekretuan gorde ezinak, baizik beste edozein kaineriatan, kaiak lez utzi behar zaitu benetan ere; goiztirian abandonatuta. Bizitzarekin borrokatu eta arrazoa izan arren, ezinbestean, bere buruaz beste egitear dagoen karakola terrestre bat bezala. Esana dizut egon dela nire gutarren bat kasuan?! Gutarren ni. Dena dela, ordu bete honen ostean hobeto zaudelakoan nago. Ez al da hola?
- Bai noski, ordua bete delako hain justu. Ezer ez, broma bat zen, umorea errekuperatu didazunaren seinale. Badakizu segundoak minutuak baino luzeagoak direla hemen, momentuaren garrantzia, eta etorriko delakoan**

nago besteren bat laster, ez dena seguruenik hau bezain poetikoa, beraz, polita soilik izango.

Kai irteera astuna da Txo, eta itsas zabaleko lana itsasontzia inguratzen duen irudiaren handitasun eta bakardadeagatik zuzendurik dago. Gainera datorkigu, zeru eta lurren haserre bizia; uren marea handia. Gaur ere baretu zaigu bere indarrean eta itzuliaz goaz kaira, baina,... eta bihar?

Oheetan loa kendu didatenak lo daude Mario, eta sinetsi ene begietan itsasoan baino gatz gehiago dagoela, ezin baitut, ez itsasotik ez kaitik muinorik edo palmondorik ikusi. Bizitza luze bat? Ez, mesedez ez.

Gauean basamortuko haizea sartzen da kandelaren sugarra ikeratzera. Ainadi berarekin batera itzal. Jaiotzean lez. Nola adierazi bihotzaren mila tolesdura bestela?

Lasai Mario, ez zaitetz infernu itzali honegatik arduratu! Baliteke zerua, Sarrik esaten zuen lez, erreka zikin bat izatea. Askatasun ezaren beste okaso bat.

–Agur ba polite, plazer bat izan da ta berriz izan dadin, izan. Arrazoi zuen gauza onak garesti ordaintzen direla zioenak. Baita merezi dutela zioenak ere. Musu bat! Zaindu, nonbaitetik noizbait porrota berriz agertzen bada, aurpegi maite baten falta inoiz izan ez dezazun, bion esku baitago bihar goizez gaurko gau izaten jarraitzea.

–Itxoin, ez bazaizu inporta eta gainean ditudan neureak diren sosen truk, edo debekatutako ahomusu honen erantzun, irakur egidazu mesedez eta

faborez, izan bako haurtzaroan lez, bakean dagoen nerabe aroko lagun min baten amodio sekretu hau. Askatasun kontu hau. Inoiz ez baitut bukatzea lortu, beragatik edo beharbada askatasunarekiko beldurragatik. Baliteke. Ez dut ba ezezkorik onartuko, badakizu printzipioz, erdizka geratzekoa ez naizela. Ezin zara ene memorian kantzelatatu. Buka dezadan ba, betirako aske edo betirako lo.

NiXNi:

Lorategian lurperatu zituen emaztea eta zakurra elkarren ondoan. Pozoin berarekin hil zituelako beharbada. Pozoina hilgarria zen edo ez jakiteko zakurra lehenik eta emakumea behin eta berriro adarrak jartzen zizkiolako.

Pozoiak txakur bat hil badu, beste batekin ere ez zuela hutsik egingo argudiatzen zion bere buruari gainera. Bere buruari noski, beste inori ulertarazterik ez zegoelako ta ez dagoelako. Jakin baitaki mundua hankaz gora jarrita ere berea dela arrazoia baina bere arrazoia ez arrazonomenduaren arrazoia.

Zerbait badu Potxi bezalako tipo batek, inoren gainetik munduaren azkenera arte heltzeko adorea da. Zorua bai baina arriskua gainerakoengan zamaratzen duen horietakoa badakizue.

Noizbait loraz lora ihiltzeaz gogaitu eta bakarraren petaloetan lo hartzeko apustua egin zuen nonbait. Baina arantzekin ere egin zuen topo antza behintzat berak polito ikusten ez zituen arantzekin.

Izaki preformatuak garen neurrian, gizartearen kulpa ere izango da bai bai, denona baina Aitziber bere lehen emaztea eta honen txakurra hiltzearen errudun bakarra bera da: Potxi.

Gauzak horrela aurrera jarraitzerik baino ez zegoen, bakoitza bere harrikada-rekin eta Ainhoa bere bigarren emaztearekin ez zuen zorte hobea izan. Ta noski, ezta Ainhoak ere Aitziberrena baino hobea. Honek ere lorategiko katakunbetan hukatu zuen. Era berean pozondua gainera: bere pozoiarekin. Arrazoia? Adarrak. Taktika? Aurkitu nahi ezaren bengantza. Sinestezina baina oraindik egia.

Potxi enpresa gizonak egin oi dituen 15-20 egunetako bidai luzetxo horietako baten, honen itsasertzeko jauregian eta bere presentziarik gabe noski, errespetuz, gozaldiren bat edo beste hartu izanak zuen errua: du errua.

Hamaika negar aurkeztuko genuke desenmaskaratuko bagina gajoa 'modus operandis' bera behar bestetan errepikatzeko asmoaz zebilen ordea.

Gizon aberatsa da Potxi, 42 urteko tipo dirutsua: bi aldiz arriskutsua. Izan ere oraindik ia inork ezer ez jakitearen arrazoi nagusia horixe izango da ziur asko: dirua.

Diruarekin dena erosi liteke, eta batez ere isiltasuna. Zenbat izango dira beste itsasertz baten kristalezko leiho eta lorategiekin atondutako etxe galantak dituzten epaile eta enparauak?

Bere munduaren arrazoiak jarraitzen zuen beraz, eta hala dirau, izan ere badakizue zelakoa den mundu hori: zenbat eta diru gehiago are eta zirrikitu gutxiagoko mundua. Ta Potxi nolana, saguzarren antzera, iluntasunean hegan egiten duen mundu subterraneoan zebilen itsu. Auto-araven peskizan, egia baita diruaz, bakoitzak bere mundua eraiki ahal duela gainontzekoen bizitzaren prezioan bada ere. Hori bezain pobrea!

Oraindik ezkutuko sekretua den egiazko pasarte lotsagarri honen amaia zori-txarrez ez da haina hau. 32 urte bete zituenetik urte biko epeetan ezkondu izan da Potxi. Ta ezetz igarri zer gertatu zitzaion hurrengo emazteari? Bai horixe. Rosak ere ez zion eutsi bakardadezko epe luze horietan bakarrik ez egotearen tentazioari eta armiarma sare korapilatsuan erori zen. Arrazionalidadearen altzoan. Arauak behin ta herriz jokoz kanpo geratzen diren horretan, eta dagoeneko zati txiki baten bere errua ere izan zela aitortzen ausartuko naiz. Zergatik ez? Ez hilik bukatzearen patua noski, baina bai formatu baten peshizan bere aurreko bizitza osoa (lagunak, familia herria) bere horretan utzi eta proiektu bakarrean zarratzearena. Izan ere, abilak gara gizakiok bizi moldeei jarraiki geure izatearen kontra joaten. Ba jadanik, gutxienez badira hiru. Urdaibaiko jauregiko nonbaiteko soro azpitan desagertutako emakumeak.

Sumatuko zenuten, epean egon arren, oraindik eman ez den eraildako hotsgarren emakume baten aurretik, laugarren bat egon zela. Neska horren heriotzaren aurretik jakin nuen nik gainera ezkontza hura juzgatu bidez burutu zela eta nire kuriosidaderako hirugarren emaztearekin sinatutako bizitza kontratua ere berdintsu izenpetu zela baieztatu nuen. Baina gutxienekoa zen, ez baita harritzekoa badaezpadako alarma sozialik ez pizteko, eliza bezalako bide deigarririk ez hautatzea.

Autopreheztiorako neurriek ere hazuten bere pisua beraz, gero ta gehiago, hortik atera kontu ze neurritarainoko gizaki baldintzatuak garen.

Du da handiegirik ez nuen arren ohiko galderak hasi ziren nire barrua eragiten gero. Zergatik pare bat urtetako epeak? Zergatik ez du inork matrimonio txar bat

epe gehiagoz agoantatzen? Eta ona non sinatzen da ha? Zer onartzen dugu? Diruagatik hurbiltzen zaizkio emakumeak Potxiri? Eta honek, berari legez lotuta dagoenak huts egitean, hain zuzen bere diruekin ez geratzeko erail? Itxura noblea ez ematea zailagoa da antzal

Kasualitateetan gero eta gutxiago sinesten dut eta dagoeneko ez ditut erantzunak laugarren hilotzean hilatuko. Jakin badakizkidan arren berdin zaizkit laugarren gorpuaren izen-deiturak ere. Erantzunak kalean aurkitzen dira. Erantzunak etxean bertan aurkitzen dira Hau da zugar eta besteengan, hilatu nahi dituenarentzat behintzat. Horren erreza ta konplikatuva aldi berean.

Hasteko, tentazioak gizaki-izakiaren baitakoak dira eta Nietzschek zioen legez, beraiengandik ihes egin behar dugu, baina astiro, harrapatuak izateko moduan. Beste era batera esanda errealitateak ematen duela arrazoia ta arrazionalenak izanik ere animaliak garenez, oherako zein txarrerako, tentazioetan erortzea da gure lehen erreflexua. Gure buruari jarritako arauak enkargatzen dira erreflexu natural horiek jokoz kanpoko bihurtzen.

Gainera tentazioei men egitea ez da dena, jakin nahiko nukeelako, Potxik berak besteei ezarritako bere arauak zenbatetan puskatuko zituen bidia horietako baita. Jakin nahiko nuke adar kontuetan askotan gertatzen den moduan, bere zama bestearen lepoan jartzen ez ote zuen, desagertuen arrastorik ez dagoen bezala ez dagoelako inongo adarren pistorik. Pista bakarra X. istorio honetako pertsonaia ezkutuak eta biok konpartitzen dugu.

Erruak, heldurrak, loturak formatuak. Kontuak kontu, uste dut azken hitzetik duela gehiago kontuak, asmatu dugun bizi formatuan barregarri geratzeak min handia

eragin baitezake. Inori, sekula zeure buruari eragingo ez zenion mina egiteko bestekoa.

Ez al da konturatzen ezkondu gabe, loraz lora zehilenean, arazo gabe zehilela? Gizarteari seriozki atxikitutako arauetatik kanpo erosoago zehilela? Adarrek, gaur egun oraindik arauen lehenetsun taulan goreneko postua betetzen duten arren, ez luketela izan behar inor barreagarri uzteko besteko pisurik? Eta nor berarenak badira ere, ez direla inoren bizitza torturatzeko aitzakial! Falta zena onetik dugulakoan txarretik daukagu gehienal!

Diseinatutako markotik kanpo emandako pintzelada bakoitza garesti ordaintzen da gizarte honetan oraindik ere, aske irteterik ere badagoen arren, hain zuzen diseinuaren munarriei garesti ordainduz. Jokoa dirudi, eta funtsean hori da: jokoa. Joko serioa ordea.

Eta galdetuko duzue zelan dakidan nik hau guztia ezta? Zer dela eta daukadan adarrak egon izan zirenean pista bakarra ezta? Mundua txikia izan eta denboraz denek dena jakin ahal duten arren, zelan momentuz ia nik bakarrik ziurtatu dezakekan hori ezta? Ba utopikoa bezain simplea da bizitza bezalako lehen esaten saiatu naizen bezala. Potxik izan zituen lau emazteen maitale bakarraren neska laguna naiz. Olatz, eta niri nire mutilak dena kontatzen dit arau eta loturarik gabeko askatasunak baduelako betirako lotzen gaituen magia bat. Balio behar da baina ez filosofatu.

Neure mutil lagunak esana dit, hirugarren emaztearekin, Rosarekin egoniko batean. Potxik bere eskuz idatzitako ohar bat bilatu zuela oharkabean, mesanotxetik

behera bere egutegiaren antza zeukan liburuxka batetik eroria honako hau zioelarik:

"Lora txarrak loren sorlekura itzuli behar dira lur azpira. belar txarra zena hurrengoan belar on irten d'adin "

Anuntziatutako hirugarren erailketaren slogan berria zen. Anuntziatutako laugarren erailketaren pozoi bera Aurkitu nahi ezaren bosgarren gurutze.

Lorak bere laguntzarik gabe ere irteten zirela ez zen ohartu ordea madarikatua. Lorak pertsonak bezala lurrairen fruitu dira munduaren produktu, arrazoiaren arrazoi. Ez inoren tesi. Argi hitz egin eta auto arauen eraldaketa gizartekoi bat eman bitartean baldintzapeko askatasunean jarraitzeko arriskuan gaude ordea.

Potxi bakarra ezagutu dut, horren istorio tristea eraiki duena zoritxarrez, baina Potxi edonor izan liteke. Eta edonor izan liteke denok egiten dugulako posible hori. Beno X eta biok ez, bistan d'a ezetz, baina bere 'emazte'ek adina arrisku d'aukagu d'akiguna ez ezkutatzeagatik.

Bizi-arauen beste biktima bat ez izateko bere maitale egitea izango d'a onena akaso? Eta hala balitz ere, baldintza hori iraungitze-d'atarik gabekoa litzate? Maiteminairen epe ez zientifiko baina erreala ez bezelakoa? X-ek ihes egin behar luke? Ezta pentsatu ere nire izenpeko anonimotatik irten eta uztaitik pasako naizenik, askatasuna ez baita ald'arrikatzeko hitza erabiltzekoa baizik!!!

Mario topagunean

Maite dut neure burua nire bezeroek beraien emazteak baino gehiago, lankideak dirua baino gehiago, sukaldeak lapiko bat baino gehiago, baina...

1) Ama zazpi gizonekin
zortzi urtez Bordelen
aitak burua non daukan
ez dakit badakien,
alaba bakarti baten
gurutze zaharra eusten,
'emagaldu'en lantoki
kutre bateko izen,
larrosen biderik ez da
harpeetan ikusten
zimeltzen doana baina
larrosa izan arren.


2) Lehen lana ezagutu
hamalau urterekin
"kuartako" sexu taldea
"The Dolls" izenarekin,
aitak hainbeste urtetik
gorako gizonekin,
gaixo sanoegiak zein
sano gaixotuekin,
bizitzak eskainitako
enkantuei men egin
harpeetako larrosa
gauero lora dadin.

3) Gaueko hamarrak eta
sei erdiak bitarte
edozein neskak daraman
bizitzatik aparte,
egun bat beste batetik
desberdindu daiteke
ohe beteen zenbakiz
zein aterpez aterpe,
ta azkenik izerdi hotzek
agur bera dakarte;
laurogei fula ekarri
eta hurrengora arte.

4) Beste laurogei badira
bihotzaren zuloak
borborka diren sumendi
minduen ainakoak,
kabi baten irauteko
maiz eraikitakoak,
zein zulotan ote dauka
bukaera jokoak,
noiz irentsiko nau gauak?
Noiz urtuko margoak?
Non hartuko nau ametsen
bizitza bako loak?!

5) Agur harpeetan dagon
larrosen esparrua
ilusio faltsuen
bizitza deabrua,
errealitatearen
barneko amorrua,
gaizki erabilitako
printzesaren larrua,
leundu gabeko urre
zatitxuan orrua,
ez daukanak ordaintzen du
daukanaren errua.

*"Ez abaztu Mario, kamaleoia zara; Mario kamaleoia. Norberarena
besteekin uztartuz zarena izatera heltzen dena. Zu ez zara aldatzen,
zu aldakorra zara. Haritik tiraka, hariari zentzua hartu nahi diona"*



Mario parkean II

"... hay días que parece que nunca se va apagar el sol, y otros son mas tristes que una despedida en la estación, es igual que nuestra vida que cuando todo va bien, un día tuerces el camino y te tuerces tu también. Yo he nacido cerca de las vías y por eso se, que la tristeza y la alegría viajan en el mismo tren. Con el paso de los años nada es como yo soñé, si no cierras bien los ojos muchas cosas no se ven. No le tengo miedo al diablo no ves que no puedo arder, no hay mas fuego en el infierno del que hay dentro de mi piel. Todo lo malo y lo bueno caben dentro de un papel, quieres ver el mundo, mira esta debajo de tus pies..."

Zoriontasunaren oparia, dena delako dieta psikologikoengatik nire esku bakarrik ez dagoen arren, oparia irekitzen dutenei dagokie; berau askatzen dutenei. Eta bizitzak berekiko esker onean edo, utzi ninduen lekuan hartzeko detailea izan du; askatasunean. Esplikaziorik zertan eman behar ez den leku berean. Neure borondatearen lorategian. Beste edonon ez bezala, soilik lore usaia darion toki horretan hain justu. Haizean haize naizen horretan. Haizeak airez aldatu dezakeen berean. Aberastu nauten esperientzietatik harago, berriz ere, ni nirekin errekontziliatzen. Ia denarekin, ia ezerezarekin solasean.

Patua? Halabeharra? Zoria? Baliteke, baliteke dena izan edo ezer ez izatea, baliteke kasualitatea baino ez izatea, baliteke, baina abiatutako puntuan bukatzeak zerbait esan nahiko du ba? Nik ere zerikusirik izango dut ba! Azkenean, ezinezkotzat jotzen nuen erabateko zoriontasuna aurkitzera iritsi naizela izango da? Keba, keba, ezinezkoa, baina bai agian, neure buruaz konformatzera heldu naizela, parketik irten aurretik neure kolkoari komentatzen nion hura, bakoitzak norberarekin bizitzeko artea aurkitzera heldu naizela alegia. Suertatu zaizkidan eta bilatu nahi izan ditudan baldintzapetan hegan egiteko gai izan naizela gutxienik. Neure konbentzimendua dela arrakasta bakarra!!

Azken finean, garena aldatzeko egiten duguna gara, eta horretarako askatasuna baino oinetako hobeagorik ez dago. Ziurta dezaket itzuleran askatasunak elikatzen duela zoriontasuna bera, askatasunik ezean irentsi ezin litekeen bizipozaz jangarritzat.

Kaletik bueltan beraz, abiapuntua ontzat jo dezakedala ondorioztatu dezaket, elkarrizketa eta batez ere bakarrizketa bizien iturri. Denok egin behar genukeena egin dudalakoan nago: inguruarekiko behar adinako tesuinguruan beti, neure buruarekin benetan hitz egin. Onerako zein txarrerako neure dohain eta akatsen jabe izan; neure aberastasun eta miserien nagusi. Pentsamenduen bukaeraraino beldurrik gabe jo.

Kamaleoi bat naizela onartzeaz pozik nago; Mario izateaz arro. Barruan daramat daramadana eta edozein zirkunstantzian ez, bistan da, horietan

bilatu gabe baitzara zu, gordin, datozen bezala, zer erremedio, baina egoera herrikoi ezberdinen aurrean, ni izateko gai izan naiz inongo har barik. Nire aukera da, hori behintzat bai, eta aukeratutako bidez baliatu baino ez naiz egin, besterik gabe. Helmuga bidean iltzatu.

Osasuntsu nago beraz, bai osasuntsu, zer da ba osasuna aukeratzeko kapazitatearen espresioa baino! Esan eta isiltzen dudana aukeratzea baino! Gero eta autentikoago gainera, baldintzapean gutxiagorekin, konprometitua, naizena izatearen prezioa ordaintzeko prestuago, konbentzituago. Gaur egun, saiakeran gaixotasunen bat egostea errazagoa den arren, zorientasunak osatzen ez duen gaitzik osatzeko, medizinarik ez dagoela frogatzera emanago. Emozioak pentsamenduetatik, arima gorputzetik eta arrazioa bihotzetik dibortziatzen dituen sistema horren borreroago.

Ikusiak ikusi pribilegiatua naizela deritzot, bizitzea egokitu zaigun mundu aldrebes honetan, denek ez baitute aukeratzeko aukerarik. Ezta herrian ere, herririk badute. Eta penagarriagoa dena, beste batzuk ordea, ez dute markatutako koadrotik kanpo sikiera pintzelada batzuk pintatzeko sasi aukerarik ere ikusi nahi. Ongi izatearen bermeaz desposatu! Jakitearen beldurak ignorantziara kondenatu dituenak dira, egitearenak halaber, inpotentziara. Erantzunen beldur dira, gara, baina bereziki dira, urrundik kamaleoiaren kolore deigarriak bakarrik erdikusi dezaketen horiek guztiak, eta sinesten ere hasia nago jada, gero eta gehiago direla aldakorrak izan ezin direnak. Izaera propio baten ustean, oraindik, benetako izaerarik ez dutenak. Baieztatzen hasi ninteke gaurdanik, kontrakoak poztuko ninduen

arren, gero eta gehiago direla eta, gero eta gazteagotatik gainera, formato batera atxikitzen direnak. Atzekoz aurrera doazenak. Muskerrak, ez kamaleoiak.

Gizakien gizarte hau atzerantz doa, karramarroak lez. Gutxi gara benetako kamaleoiak, berez aldatzeko maskaratu edo desmaskaratu beharrik ez dugunak. Aldakorrak garela onartu eta, txaketaz aldatzen ez dugunak. Askatasun zaleak, geurea ez den beste ezeren baldintza barik. Zoritxarrez, erremedio etxekoirik ezean, galtzear dagoen espezia.

Jakinminik, ilusiorik eta umorerik gabeko bizitzari garapena deitu diogu. Ni ez naiz progresista orduan! Nik ez dut progresista izan nahi kontzeptu horietan behintzat. Bide naturaletik aurreratu nahi dut.

Dirua da denaren gainetik gizartearen oinarri. Boterea oraindik ametsen zutabe, zutabe gabe ere amestu litekeen arren. Baina hori, antza, amestu bakarrik, ezinezkoa baita askatasun osoa, menpekotasunen zooan. Baldintza diferentzia handiegien zirkoan. Dirua jendea baino libreagoa den honetan. Ondorioz, askatasunik ezean, erabateko zoriontasuna zutabe bako amets bat baino ez da: trapezista bat airean. Bizitzaren motorra beraz, bizipoza, diruagatik aldatuta ere, ez dugu inoiz erabateko zoriontasunik lortuko, eta diru horiekin edo gabe, beti egiten duguna egiten jarraituko dugu; imajinatu. Denok noizbait egin dugun berbera: betiko zoriontasuna zer izango ote den irudikatu. Geurea margotu.

Hau guztia baino askoz errazagoa da ordea. Konturatuko ahal dira ga-joak! Zoriontsua izatea zoriontasunik behar ez izatea da. Beharrik ez bada garelako baikara. Ez da horren garestia ez ta? Ez dirutan neurtzen ez badugu behintzat! Pintzelik ere kentzen ez badigute behintzat!

Atera aurreko usteak ustelak ez zirela konfirma dezaket ordea: Sasi zoriontsuak gara. Kaleko xalotasunean izaera mozorrotuak dira nagusi. Irri-barre margotuak garaile. Disfrazaren kulturari eta 'okulta'tzen duenari deitzen zaio 'kulto'. Disimuluaren hizkuntza bikoitza darabilenari; moral do-blea. Inmoralak izan beharko dugu ba benetako kamaleoiak? Ezta pentsa ere! Ez da zuringoa nagusituko!

Ustez egin dezakegun bakarra egiten dugu: ahal den ondoen bizi, ho-beto bizi ahal garelata pentsatuz. Baina ez da imajinatzea egin dezakegun guztia, are gutxiago aurrekorik ikusi gabe, ohi dugun eran. Geure burua ikusteaz bat aritzea ez litzake hobe? Erreala fantasia bera baino fantas-tikoagoa dela sinestea?

Azken finean ohartu naiz zoriontsua izateko ezinbestekoa dena bihotza toperaino beteta izatea dela, husteko betetzea. Bete ta hustu kikara bat ba-litz lez. Hustu-bete, baita minez ere. Bai, minez ere bai, minik garratzenez ere bai, husteko gainezkatua ukitzea. Ez baitago bizi ez izanarena baino nostalgia txarragorik. Ibili arazten nauten barrikadak dira. Eta hau ez da masoka izatea, bihotza okupatua izatea baino. Bihotzean okupa bat baino gehiago izatea alegia. Zeureaz gain denentzako lekutxo bat izatea zeure



benetako izaerarekin dena ikusi ahal izateko. Bizipoza da hau. Maitatzeko edo gorrotatzeko norbait izatea. Zerbaiten esperoan egotea. Zoriontasunaren sekretua beraz, berau, bidaiatzeko modu gisa ulertzean dago, ez beti heltzeaz zauden jomugalez. Bizipoza mastekatzen. Horretarako burua utzi eta zentzuetara itzuli behar da. Sentsazioetara. Norberarenak norberarengan duen konfiantzaren jarrera plastikora. Baieztatzeke zein ezeztatzeke bezain jarrera egonkor eta, errealitatera moldatzeko bezain elastikora. Dabilen harriari ez baitzaio goroldiorik batzen!

Kontzientziaren minak oso arriskutsuak dira, baina ez naiz kontzientzia errotoz ateratzen duen horietako bat izango. Ez naiz kontzientzia ezerezatzen duen monigote bat gehiago izango; mina saihesten duen beste bat. Kontradikzioa nire osasunaren parte baita, nire jarrera plastikoaren parte. Inkoherentzia berriz, nire gaixotasunarena; argi faltarena. Orain eta hemen, bai esan eta egin ezean, izan ezean, errespetu falta bat da neurekiko zein besteekiko eta, nik ez dut hori nahi. Horretan jarraitu nahi nuke apustu egiten.

Ez nago geldi egoteko. Berriz gogotsu nago gainera. Nintzena bezain kamaleoi, hasieran bezain aske, bidaiatzeko berriz prest. Baita laprast egiteko ere. Sentsazio berrien egarri. Izan ere neu izatea lortzen dudanean, osotasun sentsazio batekin konektatzen dut, nire kontzientzia handitu eta harago naramanarekin. Baldintzapen ezak zabaltzen didan atearekin. Hutsune fertila; dena jasotzeaz bat denontzako lekua eskaintzen didanak.

Horra nola iritsi naizen orain ere irteera puntura; sentsazioetara. Ezer leporatu ezin zaien bultzadetara; barruko ahotsetara. Behin eta berriz amildu arren, aurrera jarraitzeko arnas garbira. Berezkora. Chambao-Txanbao.

Kontuz baina, hauek manipulatzeko makinaria, egon badagoelako. 24 orduz gainera. Errealitatearen amaraunak diosku denbora dela gero ta garestiago ordaintzen dena. Zuhaitzetik jaitsi den tximuak onerako baino txarrerako erabili ohi duela indar hori. Bakarrizketarako eta elkarrizketarako baino, norberekoikerietarako eta kanpo-ederkerietarako, denboraren aurrezte eta ongi izatearen lelopean.

Nik zorionsua izatea baino ez dut nahi, eta ez dut uste asko eskatzea denik eskaini ere egiten ez den bizitza bakarrerako. Izan gaitezen errealistak beraz; egin dezagun guztiarekin amets. Hori ez dela handizale izatea, argi geratu delakoan nago. Justu kontrakoa, gure txikitasunean handi izan nahia. Hori ongia nahi izatea da, eta denona bada hobe, baina egiaren ongia. Askatasunarena. Askatasuna eskaintzen dutenena. Izatearen eta ez esatearen ongia.

Hain gauza sinplea eskatu eta ezinezkoak eskatzen ditudalakoan nago. Izan ere, ezinezkoak eskatzen ditut, zinezkoak ezinezko eta ezinezkoak zinezko bihurtzeko joera aldaezina dutelako gizarte honetako txakurterdi gehienek. Mundua begiratzea baino ez dago! Zu pozik zaude? Zure animalia klasearekin ados?

Hargatik beti esateko moduan egongo naizen ustearekin diot, ni naizela nire lagunik onena; naizen modukoa izaten uzten eta onartzen nauen bakarra. Agian hori ere ez, beti ez bainaiz erakartzen, ezta gutxiagorik ere, baina, lagun perfektuaren bila bazabiltza, bakarrik zaude. Gutxienez ba, beti gainean eraman ezin litekeen sentsazio uholdea barnean eraman nahi duen gizasemea izan nahi dut. Momentua bera. Nire aurpegia haizean, haizearen kontra, eta aurpegia kolpatzen didan haizea bera. Espresio horiek guztiak!

Eta ez dut aldatu nahi, aldakorra izanez, alda ezina izatea baita, kama-leoiaren izaeraren ezaugarriarik esanguratsuen.

Mait


Nire olerkietan zaude,
zaude baina,
errezitatzen dudanean.

Nire kantuetan zaude,
zaude baina,
kantatzen dudanean.

Nire koloreetan zaude,
zaude baina,
margotzen dudanean.

Ametsak bezala naiz neure.
Ametsak bezala zara zeure.
Ametsak bezala gara geure.
Momentua, geure egiten dugunean.
Momentua geu garenean.
Geu, geu garenean.

Maite zaitut,
zaitut baina,
maite naiz, maitia.



Mario parkean II

Nire burua, mundu zabaleko irla bat da.

Nire burua, batek daki zertan dabilen

Nire burua, sinistu ezinak amesten

Nire burua, amets bat bide hauskor baten

Nire bihotza, txori bisitarien habia da.

Nire bihotza, erritmo ezberdinak sentitzen

Nire bihotza, armonia ona bilatzen

Nire bihotza, amets bat bide hauskor baten

Nire gorputza, osatu gabeko osotasun bat da.

Nire gorputza, sarri deabruaz dantzatzen

Nire gorputza, pozik bibaketan jolasten

Nire gorputza, amets bat bide hauskor baten

Elikatu beharra dut, askatasunean
bizipoza mastikatuz, zorientasunean
kamaleoi herrikoi bat, bakoitza berean
sentsazio berrien zain, Mario parkean

Nahi den dena baina, ahaztu barik, zeu barik ezin zara bizi.

Agurra

"Ez ahaztu Mario, kamaleoia zara; Mario kamaleoia. Norberarena besteekin
uztartuz zarena izatera heltzen dena. Zu ez zara aldatzen, zu aldakorra zara.
Haritik tiraka, hariari zentzua hartu nahi diona"

Aldatu gabe norberarena
besteengana hurbildu.
marka gabeko marka jarrita
zarena izatera heldu.
Kamaleoiak kamaleoien
izaerarik nahi badu
bere barneko sentsazioen
gatibu izan behar du.
Kamaleoiak kamaleoien
izaerarik nahi badu
ausart jokatu zeu izatera
geu ere izateko gu.

Su honi egurra botatzeagatik, eskerrak :

Ini { Txistue
Txirulke
alboka
gaita eskoz. } + Etxakun (zubenk.)
Ego (koruek)
Lupe (estudi. ahots)

Itu, Olaia, Irati (txalapartse)
+ Kajaia

Alain eta Maisu (marrazkiak)


Joseba Berriotxoa (maketaz. erroteta...) +

Eta jakin edo jakin gabe, ni izaten
lagundu nautzen gutxioi.
Espresuki, etxeari - aita, ama, Aitor, Beñat -
lagunei, eta bereziki, herri honen
idiosinkrasiaagatik, nirekin egoterik
ez dutenoi;

Akaro-master-

(lagurra) + izudeei so gartzakazueno.
Ibaizahaderko siri-mixaxe
Inari: Zabalza (arad. telkarr.)
Aitor Kuko (mate, mastera.) + Estolezkan (eskud.)
Lanku (Mokei, Uraia:..)

ETXAKUN



Aitor Rubio (kantuen gupurtea, Produktzioa, ...) + +

Josele (tekniko, produktzio, ...) + Juan Luis

Eñaut (git, ahots, doinua, ...) (Zoombi records)